Aiaraldea jaietan

2024ko udako jaiak

AIA RAL DEA - FAK TO RIA

www.aiaraldea.eus

HI MUGI
fisioterapia

Andere Ugarriza Lado
3147 zbk
946 72 75 66
689 96 71 74

Zumalakarregi 65,
LAUDIO

www.himugifisioterapia.com

Egutegia

ABUZTUAK

04–05 Kexaako jaiak
10. orrialdea

05–09 Okondoko San Roman jaiak
18. orrialdea

06 Llantenoko Andra Mari Zuriaren jaia
10. orrialdea

08 Luiaondoko Santo Domingo jaiak
9. orrialdea

09 Urduñako San Roman
22. orrialdea

10 Luiaondoko San Lorenzo jaiak
9. orrialdea

11–17 Amurrioko jaiak
44-54 orrialdeak

14–16 Urduñako Kalebarriako jaiak
23. orrialdea

14–16 Ibarrako jaiak
34. orrialdea

15 Luxoko jaiak
10. orrialdea

15–17 Laudioko jaiak
67-82. orrialdeak

18–25 Okondoko San Bartolome
19. orrialdea

21–25 Laudioko jaiak
84-90. orrialdeak

14–16 Urduñako Kalebarriako jaiak
23. orrialdea

14–20 Arranku-diagako jaiak
32. orrialdea

24 Larrabeko jaiak
58. orrialdea

29–30 Aloriako jaiak
58. orrialdea

30–31 Soxoko jaiak
10. orrialdea

IRAILAK

30–04 Orozkoko jaiak
98-101. orrialdeak

30–01 UrduFolk / Koroatze jaiak
29. orrialdea

30–08 Artziniegako jaiak
108-109. orrialdeak

07 San Bitores jaia
11. orrialdea

06–09 Baranbioko jaiak
59. orrialdea

07–08 Etxaurrengo jaiak
13. orrialdea

06–08 La Antiguako jaiak
24. orrialdea

13–15 Latiorroko jaiak
92. orrialdea

14–15 Atxetako jaiak
33. orrialdea

14 Artziniegako Antzinako Azoka
114. orrialdea

21–22 Landataseko jaiak
25. orrialdea

21–22 Goikiriko jaiak
102. orrialdea

26–29 Berazako jaiak
103. orrialdea

28 Mikel Deunako jaiak
24. orrialdea

28–29 Lekamañako jaiak
59. orrialdea

URRIAK

05–07 Belandiako jaiak
25. orrialdea

Editoriala

Hamarkada bat Aiaraldea ospatzen

Duela 10 urte plazaratu zuen Aiaraldea Komunikabideak lehenbiziko aldiz Aiaraldea Jaietan aldizkaria, 2014ko abuztuan. Gauza asko pasatu dira hamar urte hauetan, baina berdina izaten jarraitzen du esku artean duzun argitalpen honen funtsa: abuztua eta irailean eskualdean dauden jaiei buruzko informazio ahalik eta osatu era erakargarriena eskaintzea, euskaratik eta euskaraz.

Aldizkariak aldaketa ugari izan ditu urtez urte, baina betiko formula horrek funtzionatzen jarraitzen du. Urtero bezala, orri hauetan topatu ahalko dituzu datozen asteetan eskualdea alaituko duten jaien egitarauak, festen protagonistei eginiko elkarrizketak, edota ospakizunei lotutako bestelako artikuluak ere.

Baina aldizkari hau ez da Aiaraldea Komunikabideak uda honetan plazaratuko duen gauza bakarra. Beti bezala, jaien jarraipen berezia ere egingo dugu, Aiaraldea.eus atariaren bidez. Zuzeneko-emisioak, argazki-galeriak, bideoak eta bestelako edukiak sareratzen joango gara egunez egun, komunikabideko langileen zein eskualdean barrena kamara edo mugikorra eskutan dabiltzan boluntarioen eskutik.

Goazen kaleak festaz eta euskaraz betetzera!

Argitaratzailea: Aiaraldea Koop. Elkartea **Tirada:** 8.000 ale
Lege gordailua: BI-1230-2013 **Erredakzioa:** Aiaraldea Komunikabidea **Azala:** Aimar Gutierrez Bidarte **Prezioa:** Doan
Posta elektronikoa: erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus **Tlfnoa:** 946568554
Webgunea: www.aiaraldea.eus **Helbidea:** Errotari kalea, 4-8 pabilioia, Laudio 01400 **Oharra:** Aiaraldea Komunikabideak ez du bere gain hartzen elkarrizketetan adierazitakoaren gaineko erantzukizuna.

araba álava
foru aldundia diputación foral

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Aurkibidea

12-13. ORRIALDEAK

ETXAURRENGO JAIEN
jatorria aztergai

38-42. ORRIALDEAK

AMURRIOKO JAI
KUADRILLETAKO
ORDEZKARIAK
Elkarrizketa laburrak

56. ORRIALDEA

ERASO MATXISTEI
AURRE EGITEKO
urrats berriak

72-73. ORRIALDEAK

PIRULO TXOU
Agur eta umore

76-80. ORRIALDEAK

LAUDIOKO
KUADRILLA BERRIAK
Elkarrizketa laburrak

110-112. ORRIALDEAK

ARTZINIEGAKO
MUSEOA TXUPINERO
bere 40. urteurrenean

08. ORRIALDEA
Marina Cuevas

16. ORRIALDEA
Loli, Isa eta Marisol Egia

36. ORRIALDEA
Raisa Alava

48. ORRIALDEA
Yolanda Mosquera

64. ORRIALDEA
Laudioko Gaiteroak

66. ORRIALDEA
Itzelak kuadrilla

96. ORRIALDEA
Orozkoko Jubilatuen Elkartea



106. ORRIALDEA
Edgar Hernandez

Argazkia: Josu Zaldibar

Aiarako herrietako jaiak

Pruden Otegi Etxebarria
AIARAKO ALKATEA

Kaixo Aiaraldeko herritar guztiei. Udan jai asko ospatzen dira gure herrietan, eta horregatik guztiok haietaz gozatzea gustatuko litzaidake. Egun horietan aukera handiak daude denok batera gozatzeko, gure ohiturak ospatzeko eta gure familia eta lagunekin partekatzeko.

Era berean, espero dut udalerrietako jaiak errespetuaren eta bizikidetzaren eredua izatea, ondo pasatzeko eta seguru sentitzeko.

Aiarako Udalaren izenean, esan behar dut arbuiatu egiten dugula edozein jokabide matxista, eta guztion artean jai-giro inklusiboa eta errespetuzkoa sor dezakegula.

Jai zoriontsuak! Agur bero bat.

Jaietan ere, euskaraz!!!

Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

Elkarrizketa

“Txikitatik amestu dut Damaren banda eramatearekin”

MARINA CUEVASek piztu du Luiaondoko jaiei hasiera emateko suziria, Dama izatea egokitu baitzaio. Festaren nondik norakoez mintzatu da Aiaraldea Komunikabidearekin.

Aurten zu zara Dama, zelan hartu duzu ardura hori?

Benetako ohorea da jaietan Luiaondoko ordezkaria izatea, eta espero dut maila eman izana, niretzat amets bat izan baita beti. Herria ordezkatzeko gogo handia nuen, eta uste nuen zortea izango nuela, baina inoiz ez dakizu; beraz, oso eskertuta nago konfiantzagatik.

Diozunaren arabera, beti nahi izan duzu Dama izan.

Bai, txikitatik amestu dut Damaren banda eramatearekin eta jaiak hain modu berezian ospatzearekin. Nire amabitxia ere inspirazio handia izan da niretzat, 2010ean Dama izan baitzen, oker ez banago, eta bere legatua jarraitzea harro egoteko modukoa da.

Hainbat dira Damak bete behar dituen funtzioak jaietan zehar. Zerk egin dizu ilusio gehien?

Pregoia emateak ilusio gehien egiten zidana zela esango nuke, baina baita errespetu gehien eman zidana ere. Beldur pixka bat eman dit herri guztiaren aurrean hitz egiteak.

Ze mezu zabaldu nahi izan zenuen pregoian?

Ez da zaila ni hazi naizen herriaz, betiko jendeaz eta niretzat hain garrantzitsuak diren jai hauetaz hitz egitea. Esker oneko hitz batzuk esan nituen, konfiantza osoa eskertzeko.

Aurreko urteetan Dama izan diren gazteekin hitz egin duzu? Aholku edo gomendiorik eman dizute?

Bai. Aurreko urteko Damarekin, Janirerekin, harreman estua daukat. Nire amabitxiak ere asko lagundu dit batez ere pregoiarekin, niretzat hain garrantzitsua den une batean pixka bat gidatuz. Oso aholku onak eman dizkidate, ezin naiz kexatu.

Zer da jaietatik gehien gustatzen zaizuna?

Herri guztia elkartzen dela festak elkarrekin ospatzeko, adina edozein dela ere. Urteekin galtzen joan den zerbait dela uste dut baina Luiaondon tradizio gisa mantentzen saiatzen gara.

Zein izan da ekitaldirik jendetsuena?

Erromeriak eta DJak esango nuke. Nire adineko jendea erakartzen dute, baina adin guztietarako ere izan daitezke. Uste dut ekitaldi horietan guztiok parte hartzen dugula eta guztiok batera oso ondo pasatzen dugula.

Zelan joan da Luiaondoko jaien lehen txanpa? Zer balorazio egiten duzu?

Oso ondo joan direla esango nuke. Jendeak oso ondo pasatu duela esan dit, eta, hainbat ekintza egonda, hainbat aukera daude disfrutatzeko, umeek zein helduek.

Eta Dama bezala, zelan bizi izan dituzu?

Ohore handia izan da niretzat Luiaondoko jaiak ordezkatzea. Oso ondo pasatu dut, babestua sentitu naiz, aurreko urteetako Damak ere ondoan izan ditut. Aukera bikaina izan da niretzat.

“Oso ondo pasatu dut, babestua sentitu naiz, aurreko urteetako Damak ere ondoan izan ditut”

Dena ez da pozgarria. Jakin izan dugu eraso matxistaren bat ere izan dela Luiaondoko jaien asteburuan. Elkarretaratzea egin zenuten hori salatzeko.

Uste genuen herrietan ez direla horrelakoak gertatzen, eta ez genuen espero. Ahal izan dugun guztia saiatu gara egiten, eta gehiagotan ez gertatzea espero dugu.

Uste duzu babes handiagoa beharko litzatekeela?

Baietz esango nuke. Nik uste nuen Luiaondon herri bezala babesa genuela, baina, ikusten dugunez, ez da horrela. Erantzuna emateko hor egon gara, eta espero dut erasotua izan den pertsona hori babestua sentitu izana.

Abuztuak

02 Ostirala

20:30 **Txorizoak Oleta jatetxean**
Oletak berak antolatuta. Horrekin batera, diskofesta KM MUSI-K DJrekin

08 Osteguna *Domingo Deuna*

12:00 **Meza, Domingo Deunaren omenez**
12:30 **Umeentzako herri kirolak**
13:00 **Bermut ordua**
14:30 **Herri bazkaria**
Baselizaren zelaian
16:30 **Briska Txapelketa**
17:00 **Haurrentzako aurpegi margotuak**
18:00 **Adinekoentzako herri jolasak**
21:00 **Odolosteak denontzat**
21:00 **Erromeria Ganeko taldearekin**

10 Larunbata *Lorentzo Deuna*

11:00 **Tortilla Txapelketaren hasiera**
12:00 **Meza, Lorentzo deunaren ohorez**
12:00 **Marrazki lehiaketa**
3-14 urte bitarteko haurrentzat
12:30 **Etxebarria aita-seme trikitilariak**
13:30 **Tortillen aurkezpena**
14:30 **Herri bazkaria**
Baselizaren zelaian
16:30 **Tute Txapelketa**
17:00 **Umeentzako ur-txirrista**
20:30 ***Cabeza de lomo* antzerkia**
21:30 **Txintxorta denontzat**
22:00 **Dantzaldia Ganeko taldearekin**

Kexaa Abuztuak

05 Astelehena

9:00 **Suziriak egun handiari hasiera emateko**
11:30 **Prozesioa**
12:00 **Meza ermitan**
13:00 **Ohiko tartaren zozketa**
Goizean zehar pintxopotea egongo da
17:00-19:00 **Bolo txapelketa**
18:30 **Igel txapelketa**
20:00 **Fiz azti frikienaren emanaldia**
Txokolatea egongo da

Soxo Abuztuak

30 Ostirala

09:00 **Kanpai iraulketa**
09:30 **VII. Mendi Martxa**
Ganzorrotzek antolatuta, izen ematea doakoa
13:00 **Meza nagusia**
13:00 **Txapel jaurtiketa lehiaketa**
18:00 **Haurrentzako jokoak**
19:00 **Mus Txapelketa**
Izen ematea: 20 euro
22:30 **Berbena Bajaun taldearekin**

31 Larunbata

13:00 **Meza nagusia**
13:30 **Igel-toka txapelketa eta talo dastaketa**
18:00 **Haurrentzako jolasak**
19:00 **Tute txapelketa**
Izen ematea: 20 euro
21:00 **Parrillada**
22:30 **Otegiren erromeria**
00:00 **Mozorroak eta bingoa**
01:00 **Erromeriaren jarraipena**

Lanteno Andra Mari Zuria Abuztuak

06 Asteartea

10:00 **Kanpai-errepika**
12:00 **Meza nagusia**
12:15 **Etxebarria aita-seme trikitilariak**
12:30 **Agurra Andra Mari Zuriaren ohorez**
13:00 **Txiki eta nagusientzako herri jolasak**
14:30 **Bazkaria zelaian**
17:00 **Txikientzako parkea**
18:00 **Txapela jaurtiketa**
Parte hartzea: 1,5 euro
19:00 **Saka lasterketa**
20:00 **Erratz dantza**
20:30 **Txokolatada herrikoia**
21:00 **Ohiko zozketa**
21:15 **Bingo musikatua**

Luxo Abuztuak

15 Osteguna

13:00 **Meza nagusia**
Ostean, luntxa

Kobata San Bitores Irailak

07 Larunbata

12:00 **Meza santua**

13:00 **Artzain-txakur erakustaldia**

14:00 **Artzainari omenaldia**

15:00 **Herri bazkaria**
Rakatapla elkartearen laguntzarekin

16:30 **Igel-toka txapelketa**
Heldu zein umeentzat

18:30 **Soka-tira**
Artzainak gainontzekoen kontra

Txapela jaurtiketa
Heldu zein umeentzat

Dantzaldia
Iñaki Otegirekin

Txokolatada eta jaiaren amaiera

Etxaurrengo jaiak, mendeetako erroak Aiaran

Etxaurrengo santutegiak eta hari lotutako ospakizunek toki berezia dute Aiarako zein eskualdeko herritarren bihotzetan eta, nahiz eta Menoion izan, jende ugarik parte hartzen du ekintzetan. Baina, zergatik da horren berezia data hau aiararren artean?

Aiara Dantza Taldeak urtero eskaintzen du erakustaldia jaietan. **Aiaraldea.eus**

Printzipioz, Etxaurrengo Ama Birjina Aiara osoko zaindaria da. Hori dela eta, haur jaioberrien pisua garitan eskaintza gisa eramateko ohitura zegoen, era horretan umeak haren zaintzapean gera zitezen.

Felix Mugurutza toponimian adituak lan anitz egin ditu eta datu zein tradizio ugari azaleratu ditu. Hasteko, bere ikerketen arabera, Etxaurren toponimoa *intxaur* hitzatik dator, eta santutegia eraiki zuten, ustez, Ama Birjina hango intxaurrondo batean agertu zelako. Berez, agerraldi mistiko horren erregistorik zaharrena 1443koa da, Vatikanoko dokumentu batean, alegia.

Felix Mugurutzaren aburuz, toponimoak bi bide proposatzen ditu. Alde batetik, akademikoagoa dena: "*Etxaurren* toponimoa euskal konposatu ederra da eta osagai bi ditu: *etxe* izena, konposatuetan askotan *etxa-* bihurtua, eta *urren* 'hurbil, hurkoa' edo *aurren* 'aurreko hurbilena, lehenengoa'".

Ordea, berak azpimarratzen du herri etimologiak *Etxaurren* toponi-

moa *intxaur* hitzarekin lotzen duela, Ama Birjina intxaurrondo baten gainean agertu zenaren mitoari erreferentzia eginez.

XV. mendetik XVII. mendera

Egurrean landutako birjina, berez, XIV. mendean egin zuten. 1936an desagertu zen, gerra garaian, baina eraikina bera XVII. mendekoa da.

Ungila eta Eskorieta mendiaren hegoaldean kokatuta, Mugurutzak berak gogoratu du XX. mendera arte inguruan bazegoela jendea bizitzen inguruko etxeetan. Baina egun zelaiek iraileko lehen astean ikusten dute jarduera gehien, Etxaurrengo jaiak ospatzen direnean, hain zuzen.

Toponimia gora eta behera, Mugurutzak beste datu bat azpimarratu du bere ikerketetan. 1775an, baseliza berreraiki ondoren, San Markos egunean (hau da, Menoioko jaietan) santutegia inauguratu zuten eta, Federico de Barrenengoaren testuen arabera, parrokoak berak goraipatu zuen *Etxaurren* hitza intxaurrari lotuta zegoela. Une horietan, antza, euskara ez zen erabiltzen jadanik Aiaran, baina bitxia da, Mugurutzaren ustez, garai berean Okondon edota Laudio oraindik euskaldunak eta elebakarrak zirela.

XIV. mendean egin zuten egurrezko Ama Birjina, baina 1936an desagertu zen, Guda Zibilean

Etxaurren Irailak

07 Larunbata

18:30 **Bederatziurrena eta zozketa**

19:30 **Parrillada**
Izalde erromeriarekin

08 Igandea

11:00 **Trikitrilariak**

12:00 **Meza eta birjinaren prozesioa**

13:00 **Dantza erakustaldia eta tarten zozketa**
Aiara Dantza Taldearen eskutik

14:00 **Meza**
Ermitan

14:30 **HERRI BAZKARIA**
Izoriako Arangutxi elkartearen eskutik

16:30 **Falkoneria erakusketa**

16:30 **Igel-toka Txapelketa**

16:30 **Briska Txapelketa**

20:00 **Txahalaren zozketa**
Egun guztian zehar erromeria egongo da Ganeko taldearekin

Okondoko jaiak

Abuztuaren 8tik 25era

Jon Escuza
del Campo
OKONDOKO ALKATEA

Aurten ere, San Romanen eta San Bartolomeren omenezko jaiak datoz Okondora, eta horiekin batera, herri gisa ditugun alaitasuna eta gogoa. Jai hauek gure herriaren bihotza dira, berriz elkartzeko, gozatzeko eta elkarrekin ospatzeko aukera paregabea.

Herriko jaiak ospatzeko ilusioz prestatu ditugun ekintza guztietan parte hartzera gonbidatzen zaituztet. Gustu eta adin guztietarako proposamenak daude, eta ziur nago une ahaztezinak aurkituko ditugula familian eta lagunartean partekatzeko. Hori bai, goza dezagun guztiaz errespetuz, giroa beti segurua eta erosoa izan dadin.

Ez dut aukerarik galdu nahi eskerrak emateko elkarteei eta egun hauen antolaketan eta garapenean buru-belarri aritu diren auzokide guztiei. Zuen ahalegin eta dedikazioari esker, gure jaiak bereziak dira urtez urte.

Goza dezagun San Romanez eta San Bartolomez alaitasunez, errespetuz eta jai-espiritu handiz. JAI ZORIONTSUAK GUZTIOI! GORA OKONDOKO JAIAK!

Gora San Roman eta San Bartolome, GORA OKONDOKO JAIAK!

OKONDO
UDALA - AYUNTAMIENTO

“Jendeak badaki hemen gaudela eurentzat”

LOLI, ISA ETA MARISOL EGIAk Batzokia kudeatzen dute duela 34 urte eta aurtengo jaietako pregoilariak izateko hautatu dituzte.

Nola hartu duzue pregoilarien izendapena?

Marisol: Ezustez eta poztasunez. Ez genuen espero. Alegia, ez genekien ezta zein zen prozesua ere. Ez genekien udaletxean eta liburutegian bozkatzen zenik.

Isa: Inoiz ez genuen pentsatu pregoilari izango ginenik. Nik ez dut inoiz bozkatu.

Loli: Egia da herriaren aldetik aitortza izan dela.

Nola jakinarazi zizueten?

L: Alkatea etorri zen tabernara eta aipatu zidan. Nik ezin nuen sinistu. Izan ere, ni ez nintzen herrian egon behar. Oporrak hartu nituen eta aldatu behar izan ditut egoteko.

M: Esan genion parte hartu behar zuela bai ala bai.

Zergatik hautatu zaituztete, zuen ustez?

I: Nik uste dut gure ibilbide profesionalagatik izan dela. Urte asko daramagu hemen.

L: Nolabaiteko erreferente bilakatu gara, denbora luzea eman dugulako hemen.

M: Jendea hemen elkartzen da, badakite beti egongo garela, behar dutenerako.

I: Horrez gain, 2020an taberna erre zen eta uste dut babesa izan dela. Une horretan adierazi ziguten.

M: Bai, sutea gertatu zenean, konturatu ginen jendeak maite gaituela. Animo mezuak bidali zizkiguten.

I: Herritarrek esan ziguten prest zeudela gu laguntzeko, zozketa bat antolatzeko... Herri bat da hau eta harremana jendearekin ia familiakoa da.

M: Ez da taberna soila. Familia bat gara. Jendeak kontatzen dizkizu bere arazoak, zuk zureak... Oporretan joaten direnean, edo ospitaleratu behar dituztenean, agurtzen gaituzte bidaia egin baino lehen... Hori sortu da urte mordoa daramagulako hemen.

L: 19 urterekin hasi ginen, atera kontuak.

Hasi zinetenean uste zenuten hain denbora luzez eutsiko zeniotela?

I: 20 urterekin? Inondik inora. Lan bat zen eta lan egin nahi genuen. Ez genuen esperientzarik eta 34 urte bete ditugu hemen.

M: Bezeroek erraztu ziguten. Lasai egoteko esan ziguten, guk ez genekien ezta zenbat balio zuen ardoak.

I: Ez da gauza bera jaio zaren herrian lan egitea (non auzokide guztiak ezagutzen dituzun) edo hiri handi batean egitea. Hemen konfiantzazkoa da jendea. Betidanik ezagutzen dugu elkar.

Zergatik lortu duzue, zuen ustez, irautea?

L: Duela bi urtera arte urteko egun guztietan irekitzen genuen, salbu oporretan. Astelehenetik igandera bitartean. 345 egun guztira. Hori bada

jendeak oso kontuan izan duena. Izan ere, beti jo ahal zuten guregana. Bazekiten tabernan egongo ginela.

M: Sutearen ostean pentsatu genuen atseden hartu behar genuela. Dena ez da lan egitea eta erabaki genuen astean behin egitea, astelehenetan.

I: Gainera, zuek biok bakarrik geratu zineten. Sutearen ondorioz bi urtez egon zen taberna itxita eta nik lana bilatu behar izan nuen.

Asko aldatu da herria urte hauetan?

I: Taberna ugari zegoen lehen eta orain Txaparro eta gu baino ez gara geratzen.

L: Jende gazteak ez du gogoko lan hau. Oso esklabua da, jai egunetan egin behar baituzu lan.

Oroitzapen berezirik duzue?

M: Asko. Gogoratzen dut German Sagardui. Duela bi urte hil zen Okondon gertatutako sute batean. Familiako kide guztiak ziren bezeroak, baina Germanek egunero zaintzen gintuen itxi bitartean. Txandaka lan egiten genuen eta taberna ixten zuenarekin geratzen zen bermatzeko dena ondo zegoela. Guk esaten genion etxera joateko eta berak erantzuten zuen ezetz, etxera ordu erdi lehenago edo beranduago heltzea berdin zitzaiola. Egunero. Inoiz ez gintuen bakarrik utzi.

I: Gauza txiki ugari: urtebetetzeetan tarta zati bat ekartzea, adibidez.

“Sutearen ostean pentsatu genuen atseden hartu behar genuela. Dena ez da lan egitea”

Harremana oso atsegina da. Batzuetan haserretzen zara, baina edozein lekutan bezala. Esperientzia ona da. Positiboa.

Asko ikasi behar izan zenuten taberna hartu zenutenean?

I: Dena. Ez genuen esperientziarik.

M: Taberna zuena etorri zen gure etxera eta esan zigun utziko zuela, beste lan bat atera zitzaiolako. Proposatu zigun guri hartzeko. Zortzi egun egon zen gurekin.

I: 1990eko abuztuaren 10ean ireki genuen. Egun horretan auzoko ume bat jaio zen eta aitari afaria prestatu genion. Gurekin afaldu zuen. Ez dakidanean zenbat urte daramagun hemen, aitari galdetzen diot zenbat urte dituen bere semeak.

Zer esan dizuete etxean pregoilari izateari buruz?

L: Ezustean harrapatu ditugu, baina esan digute merezi dugulako izango garela pregoilari.

M: Gu izututa joan ginen etxera. Izan ere, jendearen aurrean hitz egiteak... urduritasuna sortzen digu.

I: Eneritz Alonsok mezua bidali zidan, galdetzeko ea ahizpekin hitz egin nuen. Deitu nion Marisoli eta aipatu zidan pregoilariak izango ginela. Erantzun nion Eneritzi hauek oso urduri zeudela eta berak azpimarratu zidan ni ere pregoilari izango nintzela, gure ibilbideagatik hautatu gaituzte eta.

Pentsatu duzue zer esango duzuen?

L: Ez, zurekin hitz egin duguna aipatuko dugu; gure bizitza dela.

I: Arazoa da herriaren aurrean esatea.

Jaietan parte hartuko duzue?

M: Beti egiten dugu, eta paella eta tortilla txapelketak irabazi ditugu. Tabernan gaudenez beti txandaka, jaiak aukera dira familia osoarekin elkartzeko.

Horregatik hasi ginen paella eta tortilla txapelketetan parte hartzen. Guztiok sukaldatzen dugu eta jaian gaude. Batzokira gatoz eta hemen bazkaltzen dugu senide eta lagun batzuekin. Aurten ere egingo dugu.

I: Abuztuko azken bi asteak beti itxi dugu. Ospakizunak urrun dira eta horrela guztiok gozatzen dugu.

San Roman Abuztuak

08 Osteguna

17:00- 19:00	Bolo txapelketa
20:00	Poteo eta odoloste dastatzea eta bolo txapelketako sarien banaketa
22:00	Nafarroako jotak
23:00	Mus txapelketa
00:00	Diskojaia

09 Ostirala

12:00	San Romanen ohorezko meza
12:30	Pintxoak eta erromeria Florentxu eta bere lagunen eskutik
13:00	Igel txapelketa
17:00	Briska txiki
17:30	Briska txapelketa
18:00	Umeentzako puzgarriak
19:30	Alpargata jaurtiketa
21:30	Herri afaria
00:00	DJa eta txokolatada

San Bartolome Abuztuak

18 Igandea
Adinekoen eguna

12:30 **Meza**
14:00 **Herri bazkaria**
17:00 **Musika**

22 Osteguna

11:00 **Bolo txapelketa**
11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara
17:00 **Futbito txapelketa**
14 urte arte
20:30 **Kuadrillen aurkezpena**
21:00 **Bingo eta karaokea, plazan**

23 Ostirala

11:00 **Paella lehiaketa plazan**
13:00 **Jaien hasiera eta pregoia**
13:30 **Paella lehiaketarako sari-banaketa**
14:00 **Paellen herri bazkaria**
16:30 **Briska txiki txapelketa**
Plazan
17:00 **Briska txapelketa**
Txaparron
17:30 **Kuadrillen arteko txapelketa: Jolas tradizionalak**
Plazan
19:30 **Umorezko antzerki jaialdiko antzezlana**
22:30 **Akerbeltz**
01:30 **DJ Varro**

24 Larunbata
San Bartolome

11:00 **Landare lehiaketa**
11:00 **Futbitoren finala eta langarri emateko txapelketa**
12:00 **Aquagym**
12:30 **Mesa San Bartolomeren omenez**
13:00 **Trikitixa eta txoripan dastaketa**
13:30 **Landare lehiaketako sariak**

17:00 **Tute Txapelketa**
Txaparron
17:00 **Haurrentzako jolasak, moto lasterketa eta buru-handiak, plazan**
19:30 ***Ellas bailan solas* antzerkia**
Arabako plazetan jaialdia, frontoian
21:00 **Saiheski eta Eusko Labeleko oilasko-hanburgesa jana**
21:00 **Dantza plaza**
22:30 **Mariatxi Imperial**
00:00 **DJ Varro**

25 Igandea

11:00 **Tortilla lehiaketa**
11:30-14:00 **Haurrentzako parkea eta zezen mekanikoa**
Frontoian
12:30 **Meza hildakoen omenez**
13:30 **Tortilla-lehiaketako sari banaketa**
15:30 **Igel-toka txapelketa**
Plazan, haurrentzat zein helduentzat
17:00 **Mus txapelketa**
17:00 **Tokiko plater-tiroketa**
17:30 **Ur jolasak eta puzgarriak**
Igerilekuetan
22:00 **Mozorro lehiaketa. Amaitzean, Grupo Norte**
Atsedenaldian txapel jaurtiketa eta kuadrillen arteko txapelketako sariak

Argazkia: Txemari Ortiz de Luna



Urduñako kale eta auzoetako jaiak

Iker Santocildes
URDUÑAKO ALKATEA

Aurten ere Urduñako kale eta auzoetako jaiez gozatzeko ordua heldu da. Uda garai berezia izan ohi da gure hirian, bertako kaleak eta auzoak bihurtzen dira protagonista.

Egitarau anitza bezain zirraragarria egongo da, adin eta gustu guztientzako jarduerak biltzen dituena. Lehiaketa eta tailerrak, kontzertuak eta ikuskizunak, gure bazkari herrikoi tradizionalak eta haurrentzako jolasak, bada zerbait Urduñako herritar bakoitzarentzat.

Ezin ahaztu aurten ere Urdufolk jaialdiak Urduñako kaleak hartuko dituela abuztuaren 30ean eta 31n. Egunez zein gauez, musikaz gozatzeko aukera paregabea izango dugu gure hirian jaialdiaren 12. edizioan.

Aukera hau aprobetxatu nahi dut elkarte, boluntario eta Udaleko langile guztiei eskerrak emateko, beren denbora eta ahalegina jaien antolaketan jarri dutelako. Beraiek egindako lanik gabe hau ez litzateke posible izango. Jai egun hauetan parte hartzera eta gozatzera gonbidatzen zaituztet, lagunekin eta senideekin une ahaztezinak partekatzera.

Gorde aurtengo jaietako datak eta ez ahaztu ondo pasatzeaz!

Gora Urduñako kale eta auzoetako jaiak!
Gozatu Urduñan!

URDUÑA Berezko hiria
ORDUÑA Ciudad natural

Auzo eta kaleetako jaiek girotuko dute uda

San Roman Abuztuak

09 Ostirala

09:00	**Txupinazoa eta bolanderak**
10:00	**Diana Getxa-Goi taldearekin**
11:00	**Herri-igoera ermitara** Txarlazo Mendi Taldeak lagunduta
12:00	**Meza San Roman ermitan** Ostean, mostoa eta galletak elizpean eta luntxa musikaz alaituta
13:00	**Porroitik edateko lehiaketaren II. edizioa**
14:30	**Trikipoteoa** Orruño kalean zehar
17:00	**Mus txapelketea**
19:00	**"Lapiko apurketa" jolasa**
19:30	**Buruhandiak**
20:00	**Txokolatea**
21:00	**Dantzaldia DJ Juanmarekin**
22:30	**Zezensuzkoa**
00:00	**Azken traka**

Kale Barria Abuztuak

14 Asteazkena

16:00 **Txupinazoa Benita Zazpi Zapirekin**

17:00 **Gynkana bizikletekin**
Ekarri zure bizikleta, kaskoa derrigorrezkoa izango da

19:00 **Haurrentzako entzierroa zezen zikloekin**

20:30 **Patata-zuritzaileen VI. lehiaketa**

21:30 **Zine Zuma**

23:00 **San Rokeren bingo herrikoia**

15 Osteguna

11:00 **Bonba eta suziriak jaurtitzea**

11:30 **Buruhandiak askatzea**

13:00 **Txapela jaurtitzeko txapelketa**

14:30 **Auzotarrentzako bazkaria**

17:00 **Mus txapelketa**

18:00 **Pin pan pun piñatak apurtzea!!**

19:00 **Igel txapelketa**

19:30 **Nicolas Chevalie & Señor Gonzales**
Magia, umore eta sabel-hiztun emanaldia

20:30 **Morrillonen bilaketa eta harrapaketa**

21:00 **Morrillonen jaitsiera**

21:30 **Barbakoa herrikoia**

22:00 **Musika DJ Juanmarekin**

00:00 **Suzko zezena**

00:15 **Musika DJ Juanmarekin**

16 Osteguna

10:00 **Goizeko diana, traka eta suziriekin**

10:30 **Lore eskaintza**

12:00 **Musika-girotzea trikitiarekin**

12:30 **Meza Buen Suceson**
Gure nagusien omenaldia eta hamaiketakoa

13:30 **Aurreskua eta brindisa**
San Rokeren irudiaren aurrean

15:30 **Nagusiei bisita**
Udal egoitzan, txokolate eta trikitiarekin

17:00 **Haurrentzako jolasak**

18:30 **Txokolatada**

19:00 **Buruhandiak askatzea**

20:00 **Zozketa: San Roke miraria**

20:30 **Jai-amaierako traka**

La Antigua Irailak

06 Ostirala

17:30 Jaien Hasiera
18:00 Umeentzako jokoak
19:00 Duatloi jolasak
Gualdetxu MBTT taldearen eskutik. Parte hartzen duten haurrek 12 urte izan beharko dituzte gehien jota
19:30 Buruhandiak
20:00 Txokolatada
20:30 Karaokea
22:00 DJ Juanma

07 Larunbata

10:00 Mendi martxa
11:00 Tortilla lehiaketa
13:00 Tortillen aurkezpena eta epaimahaiaren ebazpena
15:00 Auzo bazkaria
17:00 Briska eta mus txapelketak
17:30 Umeentzako puzgarriak eta apar festa
18:30 Cassette zintak birbobinatzeko lehiaketaren lehen edizioa (Bic boligrafoen bidez)
20:00 Karaokea
22:30 Berriztu erromeria
02:00 DJ Juanma

08 Igandea
Antiguako Ama Birjinaren eguna

10:00 Kanpai dangada
10:30 Meza Santua La Antiguako Santutegian eta hamaiketakoa La Antigua auzoan
12:00 Boletoen zozketa
Jaien amaiera

Mikel Deuna Irailak

28 Larunbata

11:00 Txupina eta txistu-kalejira
12:00 Umeentzako puzgarriak
12:00 Tortilla txapelketa
13:00 Trikipoteoa
14:45 Auzokideen argazkia
15:00 Bazkaria
17:00 Goitibera jaitsiera
18:00 Txokolatada
19:00 Txapela-jaurtitze txapelketa
20:30 Parrillada solidarioa
21:30 Kontzertua eta DJ emanaldia

Landatas eta Mikel Deunako jaiekin hasiko da udazkena

Mikel Deunako jaietan iaz eginiko argazki bat. **Antonio Muñoz**

Landatas eta Mikel Deunako jaiekin egingo diote ongi etorria udazkenari Urduñan. Lehenengo festak ekainean ospatuko zituzten, baina irailaren 21 eta 22ra atzeratu dituzte azkenean. Oraindik ez dute egitaraua guztiz itxita, baina jarduera nagusiak laburbildu dituzte antolatzaileek. Lehen egunean jolasak egongo dira haur zein helduentzat, buruhandien desfilea Bihotza Konpartsaren eskutik, tortilla txapelketa eta bingoa. Gauean, aldiz, mozorro festarekin girotuko dute auzoa. Hurrengo egunean, aldiz, bigarren eskuko azoka txikia egingo dute, eta euskal dantza erakustaldia ere egongo da, Erauntsi taldeko kideen eskutik. Selekta Vermuth saioa ere antolatuko dute, eta bazkaria egingo dute gero, paellarekin eta marokoar postrearekin. Arratsaldea, aldiz, Pushermen taldeak girotuko du. "Jaia, orokorrean, komunitatean partekatzeko eta tokiko kulturaz gozatzeko aukera paregabea da", nabarmendu dute jai batzordeko kideek.

Mikel Deunako jaietako egitaraua ere lotuta dago. Aurreko orrian ikusi daitezke egongo diren ekintza guztiak.

Udarekin batera amaituko dira Urduñako kale eta auzo nagusietako ospakizunak, baina jaia ez da amaituko. Urriko lehen asteburuan, adibidez, Belandiaren txanda izango da.

Belandia Urriak

05 Larunbata
- 19:00 Jaien jasiera eta kanpai-errepika
- 20:00 Barbakoa
- 21:30 *El bus de la vida* filmaren proiekzioa

06 Igandea
- 11:30 Meza
- 11:30 Kalaka jokoak
- 12:30 Trikitilariak
- 14:30 Herri bazkaria
- 16:30 Briska eta mus txapelketak, bingo musikatua, haurrentzako jokoak...
- 17:00 DJ Cactus
- 20:30 Zozketa

07 Astelehena
- 11:30 Meza
- 13:00 Zozketa

Abuztuaren 30ean eta 31n ospatuko da Urdufolk jaialdiaren aurtengo edizioa

XII. edizioa izango da aurtengoa, eta bostehundik gora proposamen jaso dituzte antolatzaileek. Ostiralean eta larunbatean, egunez zein gauez, musikaz gozatzeko aukera egongo da Urduñan.

Iazko edizioko kontzertuetako baten irudia. **Txemari Ortiz de Luna**

Abuztuaren 30ean eta 31an ospatuko da Urdufolk jaialdiaren XII. edizioa. Joseba Urruela antolatzaileak azaldu duenez, bostehundik gora proposamen jaso dituzte aurten, eta beste urteetan egin duten formatu berdina planteatu dute: nazioarteko talde batek jotzea gutxienez, euskal talde batek, Galiziako talde batek eta beste urte askotan ekarri ohi duten Asturiaseko gaiten bandak.

Euskal taldeari dagokionez, Aldapeko Basque Latin Jazz taldeaz gozatzeko aukera egongo da abuztuaren 30ean, 21:15ean Foru plazan.

Balkan Paradise Orchestra izango da aurtengo nazioarteko taldea. Honek ere abuztuaren 30ean eskainiko du kontzertua, Aldapeko Basque Latin Jazz-en ostean, oholtza berean.

Kataluniakoa den Hidra taldea "oso potentea" dela nabarmendu du Urruelak. Banguardiako musika egiten dute, eta haiek ikusteko aukera

egongo da abuztuaren 31n, 21:15ean, toki berean.

Urruelak aitortu duenez, Galiziako talde bat ekartzea gustatzen zaie, eta aurten Os d'Abaixo taldeak beteko du espazio hori. “Galiziako folk tradizionala egiten dute, baina modernoagoa”, nabarmendu du antolakuntzako kideak. Abuztuaren 31n izango da ikuskizuna, Hidra taldearen ondoren, Foru plazan.

Bukatzeko, beste urte askotan bezala, Asturiaseko El Trasno gaiten banda ekarriko dute. Ostiralean eta larunbatean arituko da kalejiran hirian barrena.

500dik gora proposamen jaso dituzte antolatzaileek, eta horien artean hautatuta osatu dute egitaraua

Koroatze jaiak

Abuztuak

30 Ostirala

19:30 **El Trasno gaitero taldearekin kalejira**
Urdufolk 2024

21:15 **Aldapeko Basque Latin Jazz eta Balkan Paradise Orchestra**
Urdufolk 2024

31 Larunbata

09:00 **Marmitako Txapelketa**
Txoko Igel Abestokiaren eskutik

11:00 **Haurrentzako magia ikuskizuna**

12:00 **Entsaladak prestatzeko tailerra haurrentzat**

13:15 **El Trasno gaitero taldearekin kalejira**
Urdufolk 2024

18:00 **Bola Txapelketa**

18:30 **Dantzaldia**
Gernika plazan

19:00 **Eskupilota partiduak**
Frontoian

21:15 **Hidra eta Os D’Abaixo**
Urdufolk 2024

Iraila

01 Igandea

10:30 **Puzgarrien parkea**

11:00 **Bola Txapelketa**
Orduña Txolope Bolatoki kirol taldearen eskutik

11:00 **Meza**

12:30 **Erraldoi eta buruhandien kalejira**
Bihotza konpartsarekin

13:00 **Santa Zezilia bandaren kalejira**

18:00 **Akerbeltz**

Arrankudiagako jaiak

Abuztuaren 14tik 20ra

Txutxi
Ariznabarreta
ARRANKUDIAGA-ZOLLOKO ALKATEA

Udagaz batera sartu ginen jaien garaian eta, Uribarrikoak eta Basakoetxeko erromeria ederto ospatu ostean, andramarien txanda heldu da; gero etorriko dira Atxetakoak eta, neguko ateetan, Zolloko sanmartinak.

Jai herrikoiak, era zabal eta parte-hartzailean antolatuak. Bizikidetza sendotzeko egunak. Alaitasuna, umorea eta bizipoza nagusi. Baina, giro horren erdian, jaietan egon ezingo direnak ere gogoratuko doguz: joan direnak, gaixoak, ezinduak eta herritik urrun dagozenak. Geugaz izango dira geure bihotzetan. Baina aurten, matxismoaren aurkako garrasia zabadu gura dot lau haizetara. Matxismoaren aurka antolatzeko deia egiten dautsuet herritar guztioi. Inoiz baino irmoago konpromiso kolektibo tinkoa hartzeko ordua da: ez dogu onartuko inolako eraso edo jarrera matxistarik, txikienik ere ez! Inolako LGTBIQ+fobia jarrerarik ez! Hau denon ardura da, ez dau balio beste aldera begiratzeak, tolerantzia zero!

Igaro dagiguzan jaiak askatasunean, berdintasunean eta euskaraz!

Gora Arrankudiagako Andramari jaiak!

Arrankudiaga-Zollo Udala

Abuztuaren 14tik 19ra bitarte ospatuko dira Arrankudiagako Andra Mari jaiak

Asteazkenean hasi eta astelehenera arte adin guztietarako jarduerak antolatu dituzte Arrankudiagan Andra Mari jaiak ospatzeko.

Iazko txupinazoaren irudi bat. **Aiaraldea.eus**

Abuztuaren 14tik 19ra ospatuko dira Arrankudiagako Andra Mari jaiak. Marmitako eta tortilla zaporearekin hasiko dira festak asteazkenean. Txupinazoak jaiak lehertu baino lehen, txapelketa gastronomikoan parte hartzeko aukera egongo da, eta jaien lehenengo gaua musikaren bitartez luzatuko da. Ostegunean, Andra Mari egunean, pilota partidak eta antzerkia izango dira protagonista.

Jaien bigarren txanpari hasiera emateko, ostiralean, gaurko eta atzoko gazteak izango dira jaien epizentroa. Izan ere, jubilatuen zein gazteen bazkariak izango dira eguneko ekintza nagusiak.

Igandean, tradizioa den Kofradia Egunaren bueltan bilduko dira herritarrak. 1602. urteko dokumentu batean agertzen da otordua lehenbiziko aldiz, baina tradizioa askoz lehenagokoa da, Txomin Egiluz historiazalearen arabera. Bere hitzetan, “anaitasuna sustatzea eta hildakoak oroitzea” zen bazkariaren hasierako helburua, eta hainbat ekimen egiten ziren otordua finantzatzeko: “Bolatokiaren kudeaketa enkantean ateratzen zen,

Ohiko eskema mantenduko dute Arrankudiagako aurtengo jaiek, urtero errepikatzen diren jarduerak nabarmenduta: marmitako txapelketa, kofradia bazkaria, odoloste jana...

adibidez". Egiluzek ikertutakoaren arabera, hasieran ez zitzaien uzten emakumeei bazkarian parte hartzen, baina denboraren poderioz onartuz joan ziren. Frankismoan, baina, etenaldia izan zuen tradizioak, eta 1976. urtean berreskuratu zen. Orduz geroztik, "herri bazkari" baten modukoa da Kofradiarena, "herritar guztiei erabat irekia". Menua da urteen poderioz aldatu ez zen bakarra: "hasierako berdina izaten jarraitzen du: berakatz zopa, garbantzuak azarekin eta sukalkia".

Odolostea eta berakatz zopa janaz agurtuko dituzte herritarrek andramariak astelehenean. Jaiei amaiera emateko, urtero bezala, afalorduko odoloste jana izango da jarduera nagusietako bat. Eta gaua luzatuko dutenek goizaldeko 5:00etan agurtuko dituzte aurtengo Arrankudiagako Andra Mari jaiak, berakatz zopa jatearekin batera... hurrengo urtera arte.

Abuztuak

(E) Euskara hutsez
(E) Nagusiki euskaraz
(E) Elebiduna
(G) Nagusiki erdaraz
(G) Erdara hutsez

14 Asteazkena
Bezpera

17:00 **Kamisetak banatzea**
18:00 **Kalejira**
18:00 **XXXV. Marmitako Txapelketa**
Izen ematea 18:00etatik 18:30era
19:30 **XXVI. Tortilla Txapelketa**
Herriko 0 eta 18 urte arteko gazteentzat.
Izen ematea 18:00etatik 18:30etara
20:00 **Tortillen eta marmitako lapikoen aurkezpena**
20:15 **Txupinazoa**
23:00 **DJ Mariskal** (E)

15 Osteguna
Andra Mari

10:00 **Diana**
11:00 **Meza nagusia**
12:30 **Poteoa dultzaineroekin**
19:00 **Pilota partidak**
20:30 **Antzerkia:**
Eutsi, Ramon! **(E)**
Trapu Zaharra taldearen eskutik

16 Ostirala
Gaurko eta atzoko gazteen eguna

12:00 **Meza**
12:45 **Mahai jokoak**
13:00 **Gaztepoteoa**
14:30 **Jubilatuen bazkaria**
Gizarte etxean. Ondoren, **erromeria** (E)
15:00 **Gazteen bazkaria**
Ondoren, **bingo musikatua** (E)
19:00 **Pintxopotea**
Ibilbidea: Gizarte Etxea, Batzokia, Iberlanda eta Elexalde plaza
21:00 **Kontzertuak: Katilu, Alarma Morea eta Lokers** (E)

17 Larunbata
Umeen eguna

11:30 **Umeen kalejira**
Garondotik Elexaldera
12:00 **Umeentzako jolas parkea**
Elexalden
14:30 **Umeen bazkaria**
Gizarte etxean. Bazkarirako izena emateko zerrendak jarriko dira, abuztuaren 16ra arte
16:30 **Aparra umeentzat**
Garondon
17:30 **Bolak**
Umeen tirada
18:30 **Bolak**
Nagusien tirada, J.I. Larrazabalen VIII. oroimenezkoa
19:30 **Dantzatzeko prest!** (E)
21:30 **Kanpamenduko proiekzioa** (E)
Iberlanda tabernan kontzertua

18 Igandea
Kofradia eguna

10:30 **Diana**
11:00 **Meza**
12:00 **Txakolin dastatzea eta erakusketa**
13:00 **Elkarretaratzea:** ***Denok batera presoak etxera!***
14:00 **Umeen kofradia bazkaria**
14:30 **Kofradia bazkaria**
Eliza atarian
16:00 **Kantuak Joxe Mendizabalekin** (E)
20:00 **Los Cazahuates mariatxia** (G)

19 Astelehena
Berakatz eguna

19:00 **Pilota partidak**
21:30 **Odolosteak afaltzera**
Herriko tabernetan
23:00 **Kontzertuak: Kilimak eta Zirkinik Bez erromeria** (E)
05:00 **Berakatz zopa**

Bi Hotsak eta Erauntsi gonbidatuko dituzte Atxetara

Iazko jaietako irudi bat. **Atxetako Jai Batzordea**

Funtzionatzen badu, zertarako aldatu? Seguraski, galdera hori egin diote Atxetako Jai Batzordeko kideek euren buruari aurtengo egitaraua prestatzerako orduan. Ohiko eskema eta ordutegiak mantendu dituzte, protagonismo berezia emanez haurrentzako jarduerei.

Gauzak hala, tailer, puzgarri eta jolasekin hasiko dute larunbat goiza, ohiko patata tortilla eta marmitako txapelketak ahaztu gabe.

Buruhandiak aterako dira bazkalostean, eta eskualdeko bi gonbidaturen txanda izango da gero. Urduñako Erauntsi dantza taldea bertaratuko da auzora, emanaldia eskaini eta dantza plaza dinamizatzeko. Ondoren, Bi Hotsak abesbatzak girotuko du iluntzea. Gaua animatzeaz, aldiz, FestSound DJa arduratuko da.

Igandean J.M Akustiken emanaldia izango da berrikuntza nagusia, gainontzeko jarduerek iazko eskema bera errepikatuko baitute. Arratsaldean Elvi bentrilokuoa igoko da oholtzara, iaz lortutako errakasta errepikatzeko asmoarekin. Azkenaurreko ekintza izango da berea, igel-toka txapelketarekin amaituko baitituzte jaiak.

Atxeta Irailak

14 Larunbata

Goizean zehar baserriko produktuen salmenta egongo da

- 12:00 Txupina
- 12:00 Puzgarriak eta buruhandien tailerra
- 13:00 Marmitako eta tortilla txapelketa
- 14:30 Sarien banaketa eta bazkaltzera
- 16:00 Makillajea, puzgarriak eta jolasak
- 17:00 Buruhandiak
- 18:00 Partyman Skaywalker umeentzako festa
- 18:30 Txokolatada
- 19:00 Dantza emanaldia eta dantza plaza Urduñako Erauntsi taldearekin
- 20:30 Bi Hotsak abesbatzaren emanaldia
- 21:00 Odoloste jana
- 22:00 FestaSound DJ

15 Igandea

- 12:30 Meza
- 13:00 J.M. Akustik
- 14:30 Bazkari herrikoia eta bingoa
- 18:00 Elvi bentrilokuoa
- 19:15 XXXIII. Igela Txapelketa
- 20:00 Igelaren sari banaketa

Amurrioko jaiak

Abuztuaren 12tik 17ra

“Inoiz ez dakizu norekin amaituko duzun parranda”

RAISA ALAVA (Zuhatza, 1990) izango da aurtengo jaietako pregoilaria, iragan martxoan Urrezko Guk Saria jaso ostean. Ilustrazioaren esparruan nazioartean lortutako mugarriengatik jaso du aitortza.

Nola jaso zenuen pregoilaria izateko ardura eta Urrezko Guk Saria?

Ilusio handiz jaso nuen, egia esan. Era berean, ardura handia dela ere iruditzen zait, eta behintzat hori betetzea espero dut.

Nolakoa izan zen Urrezko Guk Sariaren gala? Zer azpimarratuko zenuke?

Oso polita eta hunkigarria izan zen. Belgorri taldea gurekin egon zen doinua jartzen, Iratxe Estradak primerako lana egin zuen, Marinak, Aiarako dantza taldeko kideak, aurreskua dantzatu zuen... Niretzat sinestezina izan zen dena. Nire familia eta lagunak bertan egon ziren, eta baita herriko jendea ere, eta hori izan zen garrantsitzuena. Dena bikaina izan zen.

Zelan doa pregoiaren prestaketa?

Hortxe doa, zalantza asko ditut eta gauza asko esan nahi ditut, benetan ondo egin nahiko nuke. Pixka bat urduri nago (barreak).

Zer dira zuretzat Amurrioko jaiak? Nola bizi dituzu?

Betidanik gogotsu, heltzeko irrikitan. Aste bat herriko jendearekin elkarbanatzeko eta ondo pasatzeko, berriz elkartzeko aukera bat da. Inoiz ez dakizu zeinekin amaituko duzun parranda, agian inoiz hitz egin ez duzun bizilagun hori zure lagun mina bilakatzen da gauaren amaieran. Hori asko gustatzen zait.

Zure lanbidea ezegonkorra izan daiteke batzuetan, baina azkenaldian hainbat proiektu handietan parte hartzen ikusi zaitugu: Frantziako Tourra, Azkena Rockeko iruditegia... eta argitalpen garrantzitsuetan ere ikusi ditugu zure ilustrazioak, hala nola New Yorkeren edo New York Timesen. Uste duzu zure lekutxoa egin duzula industrian?

Bai, urte asko daramatzat lanbide honetan eta egonkortasuna izatea lortu dut. Lanbide arraroak dira jende askorentzat, baina ez dago alde handirik edozein lan autonomorekin. Inori ez zaio ezegonkortasuna gustatzen eta gehienek pentsatzen dutena baino errezagoa da. Guztiz bokaziozkoa, baina lanbide guztiek izan beharko luketen bezala.

“Pregoiarekin zalantza asko ditut eta gauza asko esan nahi ditut, benetan ondo egin nahiko nuke”

Oso koloretsuak izateagatik nabarmentzen dira zure lanak. Zein izango litzateke Amurrioko jaien kolore-paleta?

Kuadrillen koloreak izango lituzke, egun eta gauarenak, haur eta helduenak, hango eta hemengokoenak... Paletako kolore gehienak!

Zer espero duzu aurtengo Amurrioko jaiez?

Mundu guztiarentzat atseginak izatea espero dut. Espero dut inor ez geratzea etxean norekin irteterik ez duelako, espero dut indarkeriazko egoerarik ez gertatzea.

Zer mezu bidali nahi diezu Amurrioko biztanleei?

Ondo pasatu, eta zure ondokoak aspertzen ari dela ikusten baduzu, anima itzazu!

Kuadrillen ordezkariak, jaietarako prest

LUKEN ALAVA
Herriarenak kuadrilla

Zein da jaietako egunik onena?

Nire jaietako egunik gogokoena kuadrillena da, uste dudalako egun egokiena dela kuadrillarekin egon eta egun osoaz gozatzeko.

Egitarauko zer ekintzetarako zaude gogotsuen?

Jaietatik ilusio gehien egiten didana ez da egitarauan egon daitekeen ekintza zehatz bat, baizik eta egun osoa egon ahal izatea kanpoan, lagunekin.

Zergatik erabaki zenuen Herriarenak kuadrillan sartzea?

Uste dut kuadrilla barruan dagoen giro osasuntsu eta politagatik. Uste dut elkarlan handia sortzen dela kuadrilla barruan eta ekintza guztiak egiten direla guztien artean. Denon presentzia da garrantzitsua eta, alde horretatik, oso talde polita da. Horrez gain, iruditzen zait kuadrilla honek ekarpen oso garrantzitsuak egiten dituela bai herriaren alde eta baita, kasu honetan, jaien alde, Jai Herrikoien aldeko egitaraua betetzen, adibidez.

Zeri buruzkoa izango da aurten zuen karroza?

Gure aurtengo gurdia itsasontzi bat izango da, eta horrekin transmititu nahi dugun mezua da euskararen alde arraun edo boga egin nahi dugula. Gure helburuik garrantzitsuena izango da Aiaraldea Komunikabideak euskararen alde egiten duen ekarpena nabarmentzea.

Zein uste duzu izango dela txosnetan gehien entzungo den abestia?

Espero dut *Potra salvaje* ez izatea (barreak), jada nahiko nekatua bainago abesti horretaz. Belgorriko kide izanda ilusio handia egingo lidake txosnetan gure taldeko abestiren bat entzun ahal izatea, *Neguko Otsoak* kasu.

Zerk egiten ditu Amurrioko jaiak berezi?

Urtean behin sortzen dela aitzakia egunerokoan ikusten ez dituzun pertsona askorekin topatzeko. Gainera, jaietako giro horretan beti daude hainbat ekintza adin guztientzat, eta uste dut badela astebete zeinetan herri guztia kalean dagoen eta harreman osasuntsuan sortzen diren adin ezberdinetako pertsonen artean.

ANE SAENZ
El Boli kuadrilla

Zein da jaietako egunik onena?

Niretzat jaietako egunik onena 14a da, Kuadrillen Eguna. Beti primeran pasatzen dut egun horretan, batez ere kuadrilla guztiekin egiten den bazkarian, baina txupinazoa eta karrozen eguna ere gogo handiz espero ditudan egunak dira.

Egitarauko zer ekintzetarako zaude gogotsuen?

Niretzat aurten goitibeherak, hainbat urte pasa baitira ekintza hau ospatu gabe. Amak kontatu dizkidan pasadizoei esker, itxaropen handia dut ekintza honi dagokionez. Gogo handia dut aurten nola doan ikusteko, ea irabazten dugun.

Zergatik erabaki zenuen El Boli kuadrillan sartzea?

Kuadrilla honetan sartu nintzen jende berria ezagutzeko eta karroza eta jaietan modu aktiboagoan parte hartzeko gogo handia nuelako. Gainera, lagun bat nuen kuadrillan, beraz, errazagoa izan zen.

Aukeraketa hori egokia izan da, jendea bikaina da eta oso giro ona dago kuadrillako guztion artean. Ezin ninteke harroago egon haiek ordezkatu ahal izateaz.

Zeri buruzkoa izango da aurten zuen karroza? Zergatik gai hori?

Gure aurtengo gaia zirkua da. Kuadrilla guztiek bezala, jende guztiak bere ideiak aurkezteko eta gustukoen zuena bozkatzeko deia egin zen aspaldi.

Greziar gaiekin karroza egiteko zorian egon ginen, baina erabaki genuen zirku bat egiteak aukera gehiago ematen zizkigula dekorazio polit bat egiteko eta jende gehiagok parte hartzeko.

Zein uste duzu izango dela txosnetan gehien entzungo den abestia?

Nik uste dut *Lokaleko leihotik* izango dela jai hauetan gehien entzungo dugun abestietako bat.

Zerk egiten ditu Amurrioko jaiak berezi?

Niretzat, Amurrioko jaietako gauzarik berezienak kuadrillak dira. Kuadrillen arteko hizka-mizkak, antolatzen diren ekintzak, kuadrillen bazkariak, jendea, karrozak taldean muntatzea...

Horrek guztiak jaiak beste era batera bizitzea eragiten du. Kuadrilla bateko kide sentitzeak eta bestela ezagutuko ez zenukeen jendearekin hitz egiteak eta lan egiteak herriaren eta jaiaren beraren parte sentitzen laguntzen dizu.

Kuadrillak gure artean laguntzeko gaudela esateko ere aprobetxatu nahi nuke, eta erasoren bat gertatzen bada, hemen gaudela laguntzeko, behar izanez gero.

SAIOA GUERRA
2024ko Jaietako Ordezkaria, Txabolakoak kuadrilla

Zein da jaietako egunik onena?

Niretzako 14a, kuadrilena, bazkaria dagoelako eta jende asko dagoelako kaletik egun osoan zehar.

Egitarauko zer ekintzetarako zaude gogotsuen?

San Roke eguneko bazkarirako, abuztuaren 17koa, familia osoa gaudelako batera.

Zergatik erabaki zenuen Txabolakoak kuadrillan sartzea?

Nire neba bertan zegoelako eta uneoro esaten zidalako ni ere sartzeko.

Zeri buruzkoa izango da aurten zuen karroza? Zergatik gai hori?

Gabarra da gure gaia. Iruditu zitzaigun oso aproposa zela, aurten gertatu dena kontuan izanda.

Zein uste duzu izango dela txosnetan gehien entzungo den abestia?

Lola índigoren *La Reina*.

Zerk egiten ditu Amurrioko jaiak berezi?

Kuadrillak eta herriko guztiak batera gaudela.

Kuadrillak

AKETZA DIEGO
Euskotarrak kuadrilla

Zein da jaietako egunik onena?
Nire iritziz, Kuadrillen Eguna, abuztuaren 14a, da jaietako egunik onena. Goizetik ateratzen gara herria girotzera, eta kuadrilla guztiak elkartu eta egun ederra pasatzen dugu. Gainera, mota guztietako kontzertuez eta ekimenez gozatzeko aukera izaten dugu.

Egitarauko zer ekintzetarako zaude gogotsuen?
Egitarauan dauden ekintzen artean nire gustukoena ETS taldearen kontzertua da. Izan ere, adin anitzetarako kontzertua da eta, gainera, jakinda datorren urtean eszenatokiak uzten dituztela, pribilegio handia izango da ekimenaz disfrutatzea.

Zergatik erabaki zenuen Euskotarrak kuadrillan sartzea?
Egia esan, jaio nintzenetik naiz kuadrilla honen parte. Nire familiaren eraginez sartu nintzen, haiek Euskotarrak kuadrillaren parte ziren eta. Baina, aipatu behar dut ez nintzatekeela inoiz beste kuadrilla batera aldatuko.

Zeri buruzkoa izango da aurten zuen karroza? Zergatik gai hori?
Aurten koralezko arrezife bat prestatzen gaude. Nolabait gure helburua birziklatzearen garrantzia nabarmentzea da, berrerabilitako objektuekin apaingarrien parte bat eginez.

Zein uste duzu izango dela txosnetan gehien entzungo den abestia?
Nire ustez, gehien entzungo den abestia *Potra Salvaje* izango da, udako abestia dela esan daitekeelako eta denok dantzan jartzen gaituelako.

Zerk egiten ditu Amurrioko jaiak berezi?
Jaietako kuadrillak, zalantza barik. Familia askotan kuadrilla baten parte izatea tradizio sendoa bada ere, adin anitzetako jendearekin eta urtean zehar ikusten ez ditugun pertsona askorekin elkartzen gara gurdietan eta egiten diren ekintza guztietan. Horrek giro hobezina sortzen du kuadrilletan.

ENEKO GUERRA
Txabolakoak kuadrilla

Zein da jaietako egunik onena?
Niretzat egunik onena abuztuaren 15a da, dudarik gabe. Hau esaten dut egun horretan Amurrioko jendea ateratzen garelako bakarrik, Eskauteko txosnan elkartzen gara guztiok eta oso giro familiarra sortzen da.

Egitarauko zer ekintzetarako zaude gogotsuen?
Txupinazoa izan da betidanik jaietako nire momenturik gogokoena. Txikitatik denok itxaron dugu egun hori, gure kuadrillarekin plazara joateko eta Iguarrakoa balkoira noiz iritsiko zain egoteko; gaseosaren, irinaren, ardoaren... jaia has dadin.

Zergatik erabaki zenuen Txabolakoak kuadrillan sartzea?
Nire kuadrillan sartu nintzen betiko lagun batek esan zidalako bere anaiaren kuadrillan pentsatzen ari zirela herriko gazteentzako kuadrilla berri bat sortzea, eta pentsatu gabe gure izena emateko esan nion.

Zeri buruzkoa izango da aurten zuen karroza?
Gure aurtengo karroza Gabarra bat izango da. Ez dut uste azalpenik behar duenik gaiaren hautaketak.

Zein uste duzu izango dela txosnetan gehien entzungo den abestia?
Ez dakit, baina bihotzez espero dut *La potra salvaje* ez izatea.

Zerk egiten ditu Amurrioko jaiak berezi?
Gure jendeak egiten ditu berezi.

URAGORRI S.L.

ITURGINTZA
BEROKUNTZA
AEROTERMIA
GASA
AIRE GIROTUA

Dionisio Aldama 11, AMURRIO
adm.uragorri@gmail.com
Tel: 945 041 395 · 671 624 250 · 654 056 953

KO MU NI- KA
EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO AGENTZIA INTEGRALA

Erakunde komunikazioa
Diseinu grafikoa · Publizitatea
Ikus-entzunezkoak
Itzulpengintza eta interpretazioa
Sare sozialak

FAKTORIAN/
Laudioko industrialdea 4-8
komunika@aiaraldea.eus
946 56 85 54
komunika.eus

TORRE ANAIAK S.L.
CARPINTERIA - EBANISTERIA
ARMAIRUAK · ATEAK · LEIHOAK ·KOMUNAK · SUKALDEAK · MAHAIAK · ESKAILERAK · ZORUAK · LOGELAK · TEILATUAK ·

695 94 09 23 · URDUÑA (BIZKAIA) · www.torreanaiak.com · info@torreanaiak.com

EL RACÓ DE FUSTER

PAELLAK:
marisko, valentziar erara, arroz beltza, fideua...
OILASKO ERREAK
ERRIOXAKO PIPER ERREAK:
irailetik azarora
ETXEKO MARMELADAK
PIPER POTOAK:
bertan erretakoak

Km 0 produktuak

EGIN ZURE ENKARGUA Mirian 618 836 139 Juan Carlos 675 942 804
Aldaiturriaga industrialdea 17-18 pab., AMURRIO
IRAILEAN IREKIERA

Kuadrillak

JONE VALLEJO
Trot-Art kuadrilla

Zein da jaietako egunik onena?
Nire ustez, egunik onena karroza eguna da, uda osoan zehar egun hori prestatzen dugulako eta kuadrila guztiak batera gaudelako.

Egitarauko zer ekintzetarako zaude gogotsuen?
Goitibera probatzeko gogotsu gaude, aurten zerbait berria delako eta Amurrioko jaietan ez delako inoiz egin.

Zergatik erabaki zenuen Trot-Art kuadrillan sartzea?
Txikitatik gurasoek jantzi nautelako kuadrillako jantziarekin.

Zeri buruzkoa izango da aurten zuen karroza? Zergatik gai hori?
"Barbie", iazko jaietako azken egunenan otu zitzaigulako eta gai honek aukera ematen dielako pertsona guztiei nahi dutena izateko.

Zein uste duzu izango dela txosnetan gehien entzungo den abestia?
Potra salvaje abestia izango dela uste dut.

Zerk egiten ditu Amurrioko jaiak berezi?
Azken eguneko karrozek egiten dituzte berezi.

ENDIKA BEOBIDE
Dantza Lagunak kuadrilla

Zein da jaietako egunik onena?
Jaietako egunik onena karrozena da, hilaren 16a. Izan ere, hilabete bat baino gehiagoz karroza egiteko lanean aritu ondoren, guztion ahalegin eta lanaren ondoren gozatzeko eguna da kuadrilla osoa.

Egitarauko zer ekintzetarako zaude gogotsuen?
Kuadrillen bazkaria eta kaleko poteoa dira gehien gustatzen zaizkidan jarduerak, kuadrilla guztietako pertsona guztiak elkarrekin egoteko unea delako eta oso ondo pasatzen dugulako.

Zergatik erabaki zenuen Dantza Lagunak kuadrillan sartzea?
Nire aita eta bere familia beti izan dira kuadrilla honen parte, bizitza osoa, eta tradizioa jarraitzeagatik erabaki nuen sartzea.

Zeri buruzkoa izango da aurten zuen karroza? Zergatik gai hori?
Gure karrozaren gaia Hard Rock Las Vegas izango da. Kuadrillako batzuk aspalditik nahi zuten gaia da, eta ni gitarra-jotzailea eta rock-zalea naizenez, ez zegoelako urte hoberik hori egiteko.

Zein uste duzu izango dela txosnetan gehien entzungo den abestia?
Ba ez dakit zein esan, baina ziur nago talde ospetsuren baten eta etengabe entzuten ari den abestiren bat izango dela.

Zerk egiten ditu Amurrioko jaiak berezi?
Jendearen arteko giroak eta kuadrillen arteko loturak, eta baita kuadrillen artean karroza egiten bizi ditugun uneak ere, uda erdia jaien aurretik.


Ondo pasa!
Amurrioko jaiak
AMAURRE
Dionisio Aldama Kalea 16,
01.470 Amurrio
Tfnoa.: 945 393 544
info@amaurre.eus

Abiaga
JATETXEA
Eguneko menua, ezkontzak, jaunartzeak,
ospakizunak, taldeentzako menu bereziak...
Abiaga kaldea 7, AMURRIO 945 39 36 18 · 652 703 551
info@abiagajatetxea.com · www.abiagajatetxea.com

Electricidad Albizua
Electricidad
Albizua, S.L.
Tel. 608 87 05 13
945 89 07 02
Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!
Aldaiturriaga poligonoa, E2 (AMURRIO)

+hiT!
@Hitdenda

Euskara
eroso
bizitzeko
aek
euskara praktikoa
Aiarako AEK
Laudio, Amurrio, Orozko, Okondo, Aiara, Artziniega eta Urduña
EUSKARA-IKASTAROAK
• Aurrez aurrekoak: maila eta ordutegi guztiak
• Autoikaskuntza tutore eta mintza-saioekin
• Titulu ofizialak: A1-A2-B1-B2-C1
Laudioko AEK · Zubiaur, 5 · 946 726 722 · 663 194 177 · laudio@aek.eus
Amurrioko AEK · Etxegoinbide, 8 · 945 892 334 · 663 076 240
amurrio@aek.eus
Urduñako AEK · Kultur-etxea · 607 678 079
DIRULAGUNTZAK
EUSKO JAURLARITZA · ARABAKO ETA BIZKAIKO ALDUNDIA · LAUDIO, AMURRIO, URDUÑA
ETA AIARAKO UDALAK

GUK CAFÉ
ASKOTARIKO PINTXOAK
Olagarroan eta bakailaoan
espezializatuak
Iturralde kalea 7, Amurrio (Araba)
Tel. 671 42 46 86

Goxe Berri
Fruituak eta Barazkiak
Jose Madinabeitia 1, AMURRIO T. 945 89 08 47
Sukalderako jaki onenak

A—
—MU
RRIO
LOGOPEDIA
OSAKIDETZAk
eta ELEk
akreditatutako
osasun zentroa
Erregistro zk.: 208/15
Tratamendu zehatzak: hizkuntza, ahotsa eta entzumena.
Irakurketan eta idazketan zailtasunak: dislexia.
Terapia miofuntzionala: haurren irensketa atipikoa.
Ikaskuntza metodoak: ikasteko laguntza.
Larrinaga kalea 1, A solairuartea · 665 714 511

Egitaraua

Abuztuak

03 Larunbata

18:00 **Santuaren jaitsiera**
San Roke Ermitatik Santa Maria parrokiaraino, Santa Vera Cruz kofradiak antolatua
Autobusak: 17:30ean eta 17:45ean autobusa Antzokiko markesinan, 17:35ean eta 17:50ean San Jose markesinan

10 Larunbata

11:00 **Paella lehiaketaren hasiera**
Parkean, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

11:30 **Amurrio Herri Eskupilota Txapelketaren finala**
Udal pilotalekuan, Pelotazale Klubak antolatuta

14:20 **Bazkaria eta paella lehiaketaren sari banaketa**
Parkean, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

15:30 **Andoni Ollokiegi (E)**
Parkeko pinuetan, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

18:00 **Zazpizar erromeria (E)**
Parkean, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

19:00-22:00 **Indarkeria matxistarik gabeko gunea**
Larrinagako oinezkoen gunean, Samurrak Aniztasuna elkartearen eskutik

22:00 **Eskupilota profesionaleko partidak**
Udal pilotalekuan, Larrazabal-Eskiroz Urrutikoetxea-Aranguren aurka. Pelotazale Klubak antolatuta (Sarrerak salgai Fronton Tabernan)

23:00 **DJ Truetox Ta Kitto! (G)**
Parkean, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

Prezio berezia parkean kokatu diren barraketan: 1,5 €/bidaia

11 Igandea

09:30 **XIII. Marmitako Lehiaketa**
Juan Urrutia plazan, Su-gozotan elkarte gastronomikoak antolatuta

12:00 **Musika animazioa**

13:00 **Marmitako lehiaketako kazolen aurkezpena**

14:00 **Marmitako lehiaketaren sari-banaketa**

17:00 **Haurrentzako ur-jolasak**
Udako igerilekuetan

18:00 **Futbol partida**
Jose Negrete Trofeoaren 8. edizioa. Barakaldo eta Gernikaren arteko norgehiagoka. Basarteko udal-zelaian, Amurrio Klubak antolatua. Sarrera dohainik

21:30 **Zinema kalean: *El Carné***
Udako igerilekuetan. Kalean ikusteko egindako pelikula arabarra da, publiko guztientzako komedia

12 Astelehena
Txupinazoa

12:30 **Kuadrillen aurkezpena**
Euskotarrak, Dantza Lagunak, Trot-Art, El Boli, Herriarenak eta Txabolakoak kuadrillen eskutik

13:30 **Poteo musikala Orkestra elektrotxarangarekin**
Frontoi kalean hasiko da

18:00 **Pregoiaren irakurketa**
Raisa Alavaren eskutik, udaletxeko aretoan

18:30 **Kuadrillen ordezkarien aurkezpena**
Udaletxean

19:00 **Txupinazoa eta Iguarrakoaren jaitsiera**
Jarraian, kuadrillen kalejira Battuere batukadarekin eta Mariaka eta Marigabon erraldoiekin

19:00–22:00 **Indarkeria matxistarik gabeko gunea**
Larrinagako oinezkoen gunean, Samurrak Aniztasuna elkartearekin

21:00–23:00 **Etxebarria aita-seme trikitilariak**
Eskauten txosnan

21:30 **Streetlight, Oxabi erromeria eta DJ Varro**
Juan Urrutia plazan. Txosna solidarioa egongo da, Hodeilargi ekimenaren alde dirua biltzeko

23:00 **Dardara eta Aiaraldeko soinu sistemak** (G)
Parkean, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

23:00–01:00 **Ikusgune LGTBIQA+ postua**

Abuztuak

13 Asteartea
Haurraren eta adinekoen eguna

10:00-14:00 **Amurrioko haurren zupakiak jasoko dira Iguarrakori emateko**
Udaletxearen sarreran

11:30-13:30 **Berijai fanfarrea**
Bereziki adinekoei eskainitako kalejira

11:00-14:00 **Haurrentzako parkea**
Parkean

11:00 **Hiribilduko pertsona zaharrenari makila ematea**
Udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Jarraian, trikitixarekin paseoa elizaraino

11:00 **Xake partidak**
Aldiberekoak zein haurrentzakoak. Parkean, Amurrioko Xake Taldearen eskutik

11:30 **Meza**
Santa Maria parrokian Mariaka abesbatzaren parte-hartzearekin. Meza bukatzean, udalbatzak San Anton de Armuru egoitza bisitatuko du

12:00 **Buruhandien irteera**

12:30 **Adinekoentzako mokadua eta musika-animazioa**
Juan Urrutia plazan, Amurrio Hiribilduko Familia Elkartearen eskutik

13:30 **Apar festa**
Guk eskulturaren ondoan

14:00 **Haurrentzako bazkaria**
Udal-parkean, Amurrioko Eskaut Taldearen eta Aurreraka taldearen laguntzarekin

14:00 **Adinekoentzako senidetasun bazkaria**
Udal-pilotalekuan

16:00-20:00 **Iguarrakori bisitak**
Udaletxeko osoko bilkuren aretoan

16:00-18:00 **Kalaka jokoak**
Parkean

16:30 ***Gora bihotzak!* ikuskizuna**
Parkean, Eidabe taldearen eskutik

18:00 **Buruhandi irteera**

19:00 ***Ipurbeltz* familia ikuskizuna**
Lucas Rey, Mendiko eta Felix Murgaren arteko plazan, Ameztu Antzerkia taldearen eskutik

19:00-22:00 **Indarkeria matxistarik gabeko gunea**
Larrinagako oinezkoen gunean, Samurrak Aniztasuna elkartearekin

20:00 ***Ellas bailan solas* antzerkia**
San Anton plazan, Pikor Teatroren eskutik

21:00-00:00 **Amurrio Harroren informazio postua**
Larrinagako oinezkoen gunean

22:00 **Zezensuzkoa**
Elexondo kalean, udaletxearen parean

22:00 **Kontzertuak: Sembrando Kaos (E), Etxepe (E), Biziraun erromeria (E) eta DJ Desi ta Presi (G)**
Parkean, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

22:30 **En Esenzia orkestra**
Juan Urrutia plazan

ASADOR
Villa Florida
Lucas Rey kalea, 6,
01470 Amurrio (Araba)
ERRESERBAK ETA ENKARGUAK
945 89 19 99
EGUNEKO MENUA ETA EDOZEIN PLATER ERAMATEKO PRESTATZEN DITUGU

LARRABE EGURRAK
Pago eta haritz egur salmenta
Mendiak sastrakaz garbitzea · Baso-pistak garbitzea
Itxituretarako hesolak kokatzea
679 96 14 21 AMURRIO

AD ESTUDIO
@AD_ESTUDIO_
697 834 409
Zure proiektua, gure esku

Batzoki
ALBINARRATE
Gosariak eta askotariko pintxoak
barran zein eramateko.
08:00etatik zabalik
Frontoi kalea, 4, Amurrio · 945 56 33 67

ECOMOBEL
hogar
Bañuetaibar kalea, 14 · 945 892 345
ecomobelhector@gmail.com

CEPA LAUDIO AMURRIO HHI
Edozein adina ikasten jarraitzeko aproposa delako
DOAKO IKASTAROAK
MATRIKULA EPEA ZABALIK: Irailaren 2tik 13ra arte
DBH titulua lortzeko ibilbide osoa (hasierako klaseak + DBH)
Testuen irakurketa eta lanketa
Gaikuntza digitala: oinarrizko informatika kontzeptuak ikasi (ziurtagiriarekin)
Hizkuntzak: atzerritarrentzat espainiera, oinarrizko euskara eta oinarrizko ingelesa.
Artea belaunaldiz belaunaldi
Memoria martxan tailerra
Landaburu 11, AMURRIO 945 89 26 20 Astelehenetik ostegunera: 14:30-19:00 Ostiraletan: 9:00-11:30

BIDERDI
Garagardo anitzak · Pintxoak · Enkarguzko tortilak
Jose Madinabeitia 8, Amurrio 663 53 19 67

EL TALLER DE ALEX
Pol. Aldaiturriaga 2 AMURRIO
T. 945 89 10 17 610 427 805
alex@eltallerdealex.com
www.eltallerdealex.com
Mekanika orokorra
I.A.T.ari begirako azterketa
Diagnosiak · Pneumatikoak

“Argi nuen ez nuela betiko ikonografia erabili nahi”

YOLANDA MOSQUERA FERNANDEZek (Amurrio, 1973) ibilbide luzea egin du ilustratzaile gisa eta aitortza ugari jaso ditu bere lanengatik. Baina aurten mugarri berria lortu du: bere herriko jaietako kartela diseinatzea.

Maiatzean iragarri zen zuk irabazi zenuela jaietako kartela egiteko lehiaketa. Nola jaso zenuen berria?

Sorpresaz harrapatu ninduen. Ez nuen espero. Izan ere, lau profesional hautatu gintuzten eta, gainontzekoen lana ezagututa, ez nuen hain argi ikusten ni izan nintekeela irabazlea. Azken finean, aurtengo sistema berriarekin epaimahaiarentzat ere zailagoa da.

Esan duzunez, aurten lehiaketaren planteamendua ezberdina izan da. Nolakoa izan da hautaketa-prozesua eta nola baloratzen duzu zuk aldaketa?

Aurten hemengo lau profesionali deitu ziguten. Sistema aldatzearen edo leihaketaren oinarriei buelta bat emateko helburua, azken finean, da talentua eskualdean geratzea da eta hemengo sortzaileen lana baloratzea. Beste urte batzuetan sariak kanpora joan dira eta, Udaletik badakitenez hemen bertan badaudela profesionalak, horren aldeko apustua egin zuten.

Beraz, aurtengo leihaketa deialdi batetik abiatu da. Lau sortzaileok ordaindutako bozeto bat aurkeztu genuen, eta horren defentsa egin genuen, eta gero, epaile profesionalek irabazlea aukeratu zuten.

Niri oso ondo iruditzen zait horrelako planteamendua, azkenean nolabait lanbideari duintasuna emateko modu bat da. Ni, adibidez, oso gazteta-

tik aurkeztu naiz lehiaketetara, baina heltzen da une bat non galtzen duzuna irabazten duzuna baino gehiago den: denbora, ideiak, dirua, gogoa... Beste Udal batzuetan ere horrela egiten ari dira, esate baterako, niri Donostiako kartel lehiaketara ere gonbidatu ninduten, eta kasu horretan, artista bere portfolioaren arabera aukeratzen dute.

Nolakoa izan da kartelaren sormen prozesua? Hasieratik izan zenuen argi egin nahi zenuen hori?

Hein batean bai, flash moduko bat izan nuen. Bi proposamen baloratu nituen. Alde batetik, jaien ohiko elementuak kontuan hartzea zen aukera bat, eta beste aukera zerbait xumeagoa baina inpaktanteagoa egitea zen, eta hori aukeratu nuen azkenean. Zentzu horretan argi izan nuen, ez nuen betiko ikonografia erabili nahi. Lehen begi kolpean arreta deitzen zuen zerbait egitea interesatzen zitzaidan. Era berean mundu guztiari gustatzeko moduko zerbait ere egin nahi nuen, berdin umeak, helduak...

Zure beste lanei erreparatzen badiegu, zuria eta pastel-koloreak nabarmendu ohi dira gehien. Baina, diseinu hau, aldiz, askoz koloretsuagoa eta disdiratsuagoa da. Esan genezake, orduan, egin ohi duzun horretatik aldentzen dela?

Zentzu horretan egia da oraingoan kolore gehiago erabili ditudala, eta hori kontuan hartuta inprimatutako euskarrian ez dela digitalean bezain argi eta koloretsu ikusten. Egia da nik ez dudala ia horrelako kolore disdiratsurik erabiltzen, edo oso gutxitan egiten dudala.

Izan ere, uste dut tirabirak izan nituela koloreekin kartelaren osagai nagusiari dagokionez, dela nolabaiteko arku bat, ortzadar bat, irudikatzen duena eta aldi berean praka batzuk. Baina ez nuen nahi koloreak bereziki deigarriak izaterik, ez dago berderik... ez da ikustera ohituta gauden ortzadar bat, baina aldi berean erraz identifika daiteke. Orain arte ez naiz konturatu baina agian nire lanik koloretsuena da.



Nola bizitzen dituzu zuk jaiak?

Azken aldian ez naiz hainbeste ateratzen, baina oso oroitzapen onak ditut. Oso ondo pasatu izan dut beti. Egia da ez dudala barrutik hainbeste bizi, nahiz eta Euskotarrak kuadrillarekin atera izan naizen nonbait.

Gazteagoa nintzenean San Roke errepikapena asko gustatzen zitzaidan, gaupaseroak jende nagusiarekin elkartzea zelaietan... Eta karrozak ere bai! Txikia nintzenean magikoak iruditzen zitzaizkidan.

Gero ere gogoratzen dut Txurru etortzen zela bere akordeoiarekin bigantxak egiten zirenean giroa alaitzera! Txikitan hori guztia asko gustatzen zitzaidan.

Abuztuak

14 Asteazkena
Kuadrillen eguna

10:00 **Baserriko produktuen erakusketa eta lehiaketa**
Juan Urrutia Plazan

11:00-14:00 **Haur parkea**
Parkean

12:00 **Kalejira**
Amurrioko Txistuzaleak elkartearen eskutik

12:30 **Musika-animazioa trikitixarekin**

13:00 **Triki-poteoa kuadrillekin**
Kioskotik abiatuta

13:30 **Perretxiko-dastaketa**
Larrinagako oinezkoen gunean, Arriola Mikologia Elkartearen eskutik

13:30 **Apar-festa**
Guk eskulturaren ondoan

15:00 **Kuadrillentzako bazkaria**
Udal-pilotalekuan

17:00 **Amurrioko goitiberen jaitsiera: Euskal Inertzia Kopa**
Irteera Aresketa Ikastolan. Izena emateko: euskalkopa.com/amurrio

19:00 **Eskaintza Andre Mariaren Jasokundeari**
Santa Maria parrokian

19:00 **Futbol partida**
Bilbao Athletic-Deportivo Alaves B, Basarteko udal-zelaian, Amurrio Klubak antolatua. Sarrera dohainik

20:00 **Odoloste-jana**
San Anton plazan. Prezioa: 1,50 euro

20:00 **Kolpez blai batukada (E)**
San Anton plazaren inguruan

21:00-00:00 **Indarkeria matxistarik gabeko gunea**
Larrinagako oinezkoen gunean, Samurrak Aniztasuna elkartearen eskutik

22:00 **Puro Relajo**
Juan Urrutia plazan. Txosna solidarioa egongo da, Hodeilargi ekimenaren alde dirua biltzeko

22:00 **Jotake erromeria (E)**
Parkean, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

00:00 **ETSren kontzertua**
Juan Urrutia plazan

02:00 **DJ Blessive (G)**
Parkean

MAPFRE AMURRIO

BIZITZA-ASEUGURUAK, KOMUNITATEAK ETA AUTONOMOENTZAKO ASEGURUAK...

· ISTRIPU- ETA BAJA-ASEGURUAK
· MEDIKU ASEGURUAK
· AURREZKI ASEGURUAK
· B.G.A.E. (Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak)
· BIZIARTEKO ERRENTAK
· ENPRESEN DIBISIOAK
· ETXE ASEGURUAK
· HILETA ASEGURUAK

Jose Madinabeitia 5, behea AMURRIO Araba / www.mapfre.com/oficinas/0114
Tel. 945 39 31 31 Fax. 945 89 35 54 casteca@mapfre.com

Construcciones Cosme

IGELTSEROTZA OROKORRA
630 435 673

Alikatatuak
sukalde eta komunetan
Eraberritzeak
Gremioen koordinazioa

construccionescosme@gmail.com ARESPALDITZA

arrate
gestoria aholkularitza aseguruak

Iturralde, 2 AMURRIO · Tel. 945 980 206
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com

QUICK PC REPAIR
Informatika argi eta erraz

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA gainkosturik gabe

· Salmenta · Konponketak
· Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxeetarako
· Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tiketen diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien RENOVE PLANAri buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12
www.quickpcrepair.es · quickpcrepair@quickpcrepair.es

SAN JOSÉ
CARNICERÍA/HARATEGIA
Productos artesanos

Gure berezitasuna, tokiko haragi freskoak
Ondo pasa jaietan!

Zabaleko, 8 AMURRIO 945 89 00 31

El Rinconcito

Larrinaga 1,
AMURRIO

Imanol Sarasola · David Gabiña

MANTENIMIENTO Y SERVICIOS

LEXARRAGA, 10 · AMURRIO
Tlf: 655 723 674 · 615 71 49 32
e-mail: ji.mantenimiento@gmail.com

selene frutadenda

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
0KM PRODUKTUAK
GARAIKO FRUTAK ETA BARAZKIAK
EGUNERO IZA OKINDEGIKO OGIA
NEURRIRA EGINDAKO FRUTEN ETA BARAZKIEN SASKIAK

UDAKO ORDUTEGIA
Uztailean
eta abuztuan
9:00etatik
13:30ak arte

Gora Amurrioko jaiak!

· Landako kalea 1, Amurrio · 945 092 550 @frutadenda_selene

Abuztuak

15 Osteguna
Andre Mari eguna

10:00 **Kanpai-iraulketa eta suziri-jaurtiketa**

10:00 **Txirrindularitzako Sari Nagusia, Aiarako LXIX. Zirkuitua**
Elite eta Sub 23 kategorietan, Arabako Txapelketa eta Daniel Albizua memoriala

10:30 **Dianak trikitiarekin**

10:45 **Kalejira parrokiara**

11:00 **Meza nagusia eta ohorezko aurreskua**
Santa Maria parrokian

12:30 **Kalejira erraldoietakin**
Zenbait udalerritako erraldoien topaketa

12:30 **Harrera agintariei eta jaietako laguntzaileei**
Udaletxean

12:30 **Errepresaliatuen aldeko elkarretaratzea**
Juan Urrutia plazan

12:30 **Herri kirolak**
San Anton plazan

13:30 **Txirrindularitzako sari nagusiaren sari-banaketa**

19:00 **Babiora igoera oxigeno gabe haurrentzat** (E)
Parkean, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

19:00-22:00 **Indarkeria matxistarik gabeko gunea**
Larrinagako oinezkoen gunean, Samurrak Aniztasuna elkartearen eskutik

19:30 **Euskal dantzen emanaldia**
Juan Urrutia plazan, Aiara Dantza Taldearen eskutik

21:00-23:00 **Dantza plaza Patxi Perezekin**
Juan Urrutia plazan

21:00 **Babiora igoera oxigeno gabe helduentzat** (E)
Parkean, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

23:00 ***Gurera* dantza bertikal ikuskizuna**
Udal-pilotalekuan, Harrobi Dantza Taldearen eskutik

23:30 **Erromeria Beranduegi taldearekin**
Juan Urrutia plazan

02:30 **DJak**
Eliza-eremuan, Eskaut Taldearen eskutik

www.izanamurrio.com

Izan AMURRIO

amurrioko merkatarien elkartea

Herrian bizi, herrian erosi

ZERBITZUAK BEZEROA ONLINE DENDA OSTALARITZA MERKATARITZA

Gora Amurrioko jaiak!

A+A
Caserío Iruaritz Álava
El Desvan
elkarlan asesores
Ganbara
Electricidad Albizua, S.L.
Asesoría Aiala
azules
Gorobel Kirol Gunea
arano a
Byrytxaga Haragi Industriak
Ustai
Atxubi Barria
ECOMOBEL hogar
El Rinconcito
expert izaskun
Elektrohob
entre punto puntada
Gancedo
Hurblan
hiT!
JF Hair Beauty & Nails
Jare Photography
Kapritx
Kb Katibel
koba cycling
Bar La Terraza
Laid Ubad
SANZ
Pinedo Asesores
Foto Arregi
lur
Luyando Opticos
Txotis
New Jolan
Saratxaga
marilioria
Mirela
Babio Harategia
Aldama hotel restaurante
Peluquería Espiral
susana centro de estética
Calzados Urrutia desde 1936 Amurrio Tfno. 945 89 13 72
Bideko
Eguiluz moda y color
ZA Zulueta Abogados
Telmer cortinas, lencería y ropa de hogar
San José Carnicería
J centro óptico josu

Abuztuak

16 Ostirala
San Roke

8:30-15:00 **Joan-etorriko doako autobus-zerbitzua San Rokeko zelaietara joateko**
Irteerak ordu erdiro Aldaiko biribilgunetik

10:00 **Santuaren igoera San Roke ermitara**
Santa Maria parrokiatik, Santa Vera Cruz kofradiak antolatua

10:30 **San Roke 2024 ganadu erakusketa**

11:00 **Musika-animazioa trikitiarekin**
San Rokeko zelaian

11:30 **Meza nagusia**
San Rokeko zelaian, Mariaka abesbatzaren parte-hartzearekin

12:30 **Aurresku eta Joten LVIII. Lehiaketa**
Aiara Dantza Taldeak antolatuta

19:00-22:00 **Indarkeria matxistarik gabeko gunea**
Larrinagako oinezkoen gunean, Samurrak Aniztasuna elkartearen eskutik

20:00 ***Dale Ramon!* kale antzerkia**
Trapu Zaharraken eskutik, Lucas Rey, Mendiko eta Felix Murgaren arteko plazan

21:00 **Mi Gran Noche taldearen kontzertua**
Juan Urrutia plazan, 1960 eta 1970eko hamarkadako abestien bertsioak

22:15 **Karrozen desfilea**
Elizako biribilgunetik Aldai kaleko biribilgunera

23:30 **Erromeria Akerbeltz taldearekin**
Juan Urrutia plazan

01:30 **Karroza lehiaketaren sari-banaketa eta DJ Markelin**
Juan Urrutia plazan

17 Larunbata
San Roke errepikapena

10:00-15:30 / 17:00-19:30 **Joan-etorriko doako autobus-zerbitzua San Rokeko zelaietara joateko**
Irteerak ordu erdiro Aldaiko biribilgunetik

09:00 **III. Sukalki Lehiaketa eta XXIII. Patata-tortilla**
Lehiaketako izen-ematea San Roken, Mendiko Lagunak-ek antolatuta

11:30 **Landako meza**
San Rokeko zelaian, Mariaka abesbatzaren parte-hartzearekin

12:30 **Patata-tortillen aurkezpena**

12:30 **Ile-mozketa tradizionalaren erakustaldia**
San Roken

13:15 **Sukalki kazolen aurkezpena**

14:00 **Sukalki eta patata-tortilla lehiaketetako sari-banaketa**

14:30 **Senidetasun bazkaria**
San Roken. Txartelek 1,5 € balioko dute, eta abuztuaren 1etik 14ra bitartean erosi ahal izango dira Turismo Bulegoan

16:00 **Erromeria Ganekorekin**
San Rokeko zelaietan

17:00 **Enduro erakustaldi-lehiaketa**
Bañuetaibarko zelaian

20:00 ***Haureskolari* kale-antzerkia**
Tio Teronen Semeak taldearena, Lucas Rey, Mendiko eta Felix Murgaren arteko plazan

22:00 **Ikuskizuna: Albina Stardust & Divina Comedia**
Juan Urrutia plazan

00:00 **Iguarrakoaren agurra**
Juan Urrutia plazan

00:30 **Erromeria Kresala taldearekin**
Juan Urrutia plazan

AXA Seguros
Bizi aseguruetan, Autonomoetan eta Enpresetan adituak
Erantzukizun zibileko aseguruak - Etxebizitza - Osasuna - Inbertsioak
ORTIZ DE ZÁRATE 2024
Jon Pinedo Ortiz de Zárate
AMURRIO
Iturralde, 1 · AMURRIO
Tel.: 945 89 04 50 · 688 62 62 47
aiala@agencia.axa-seguros.es
www.asesoriaaiala.com

Entre 3
Iturralde 2, behea · Amurrio
945 893 727 · entre3@outlook.es
facebook.com/entre3amurrio
instagram.com/entre3peluqueria

KOPAS
IDEIAK GAUZATZEN DITUGU
Gora Amurrioko jaiak
Aialako Industrialdea, 8
01479 Murga - Aiara
fabrica@kopas.es
Tfno. 945.39.94.05
www.kopas.es
Alda. Urkijo, 88 -2º
48013 Bilbao
kopas@kopas.es
Tfno. 94.442.22.24

Ondo pasa, pasatu gabe!
aresketaikastola
1977tik ameslari!
www.aresketaikastola.eus 945890360
aresketaikastola@aresketaikastola.eus
Aresketa auzoa, 2 _ 01470 _ Amurrio (Araba)
ikastolenkartea
HERRI ONURAKO KOOPERATIBA

SUSTRAIAK
- FISIOTERAPIA -
DIZIPLINARTEKO ZENTROA
Fisioterapia eta errehabilitazio aktiboa
Podologia · Nutrizioa
Ondo pasa jaietan!
Jauregi urbanizazioa 1, behea, ARTZINIEGA
658 60 88 41

KOLOORI
Centro de Estética
KIRURGIARIK GABEKO HARMONIA METODOA
Zure helburuak lortzeko tratamendu pertsonalizatuak
EMAITZA NABARIAK BERMATZEN DITUGU LEHENENGO SAIOETAN
BIO eta ECO kosmetika naturalarekin
Tratamendu ez inbaditzailea
Iturralde kalea 7, AMURRIO 605 74 72 29 kolooreestetica.com

ELEKTROHOB
ELECTRÓNICA, ELECTRICIDAD Y ACCESORIOS
KONTRATATU FIBRA ETA TELEFONIA GERTUKO PERTSONEKIN
35 urte baino gehiagoko esperientziarekin
Gaur egun, gertutasuna oso garrantzitsua delako
guuk DIGI mobil Lowi MÁSMÓVIL O2
Etxegoien bidea, 1 - AMURRIO
Tel. 945 89 13 46

adi grafik
jaietarako prest
kartelak, kamisetak, zapiak... eta askoz gehiago!
MERTXAN KATALOGOA
CATALOGO MERCHAN
945 89 08 46 | adi@adigrafik.com | @adigrafik | www.adigrafik.com | Maskuribai Ind. Z-10 | 01470 AMURRIO (Araba)

Urrats berriak eraso matxistei aurre egiteko

Eraso matxistei aurre egiteko protokolo bateratua egin dute Amurrioko eragile feministek Udalarekin batera, eta erasoak salatzeko 24 orduko telefonoa jarriko dute abian. Horrez gain, neska* gazteek akelarrea egingo dute lehenengo gauean.

Iaz jaietan egondako eraso matxistak salatzeko elkarretaratzea. **Aiaraldea.eus**

Aurten ere indarkeria matxistari aurre egiteko ekimen ezberdinak burutuko ditu Mugimendu Feministak. Aspaldi sortu zuten prebentzioan, erasoen aurkako ekintza zuzenean eta horien erantzunean oinarritutako protokoloa, eta mugimenduko kideek kudeatu izan dute.

Halaber, duela urte batzuk Udalari jakinarazi zioten tokiko erakundeak ez zuela protokolorik, eta ez zuela horretan aktiboki parte hartzen ezta baliabiderik jartzen. Nahiz eta azken urteetan ekarpen txikiren bat egin duen, Amurrioko Emakumeon* Saretik protokolo propioa sortzea exijitu diote Udalari, eta, horrenbestez, tokiko erakundeak prozesu bat jarri du martxan aurten, herriko beste hainbat eragilerekin batera, jaietako erasoen aurkako protokoloa sortzeko.

Azkenean, hainbat faktorerengatik nahiko estu ibili dira denboraz eta, mugimendu feministak Aiaraldea komunikabideari adierazi dionez, protokoloa ez da haiek nahiko luketena bezain osatua. Hala ere, modu positiboan baloratzen dute Udalak urrats hori eman izana, eta adierazi dute euren asmoa dela protokoloa osatzen jarraitzea, ahalik eta eraginkorrena izateko. Era berean, Udalari eskatu diote dituen baliabide guztiak jartzeko jaietan eraso matxisten aurkako benetako oinarriak izateko.

Bitartean, jaiek guztiontzako espazio seguruak izan behar dutela aldarrikatzen jarraituko du mugimendu feministak. Beste urte batzuetako dinamikari jarraikiz, hainbat baliabide

egongo dira euren esku, baina Udalak berak ere, bere protokoloaren baitan adostutakoarekin bat egiteko, eragileak material ezberdinez hornituko ditu.

Aurten ere, 24 orduz arreta eskaintzen duen telefono zenbakia egongo da eskuragarri (666 167 220). Emagin elkartearen eskutik emango da arreta, eta egunean zehar Amurrioko Udaleko berdintasun-teknikaria ere egongo da. Jai giroan dagoen mugimendu feministako kide batek, gainera, koordinazioa bermatuko du egunean zehar.

Txosnagunea, espazio segurua

Txosnagunean oinarri feminista batzuk bermatuta egongo direla adierazi dute mugimenduko kideek. Izan ere, Otsemeak taldea txosnagunearen eragileetako bat izanik, bai musikaren aldetik, bai barran eta bai espazioaren kudeaketari dagokionez, oinarri horiek finkatuta egotea ziurtatuko dute. Era berean, txosnagunean erasoren bat egonez gero, beste eragileekin batera erantzun zuzena emango dute.

Txosnaguneaz harago joatea da Udalak prestatutako protokoloaren helburua. Horretarako kuadrillak parte aktibo bihurtu nahi ditu, eta txupinazoaren egunean, abuztuaren 12an, jaien aurkezpen hitzaldian bertan aldarrikatzea jaiek guztion gozamenerako espazioak izan behar dutela eta ez dela inolako erasorik onartuko.

Hori baino lehen, ordea, Jai Herrikoien egitarauaren barne, lehenengo gauean akelarrea egingo dute neska* gazteek, 22:30ean. Horrela, ekimen aldarrikatzaile eta interpelatibo honekin emango diete hasiera jaiei, lehen momentutik argi uzteko guztiontzako jai seguruak izan behar dutela, eta horrela izateko lan egingo dutela.

Erasoen aurrean

Jaietan zehar erasorik gertatuz gero, beraz, mugimendu feministak eskuragarri jarri duen telefono zenbakira dei daiteke, salatzeko zein zalantzak galdetzeko. Gainera, txosnagunean mugimendu feministako kide arduradunak egongo dira jaietako egun guztietan, eta haiengana gerturatzea besterik ez da egin behar gertatutakoa azaldu eta salatzeko eta haiek berehalako neurriak jarriko dituzte. Gainera, kuadrilletako hainbat kiderengana ere jo ahal izango da, eta entzuteko eta erantzuteko prest egongo dira.

666 167 220 izango da eraso matxistak salatzeko telefonoa

Jaiei begira

Amurrioko mugimendu feministak positiboki baloratzen du protokoloa osatzen kuadrilletako ordezkari batzuk egon izana. Izan ere, haien aburuz, jaietako agente aktiboenak dira kuadrillak eta haiek dute benetan eraldatzeko aukera. Beraz, uste dute oso garrantzitsua dela kuadrillek ere euren gain hartzea diskurtso feminista, helarazteko ez dela inolako erasorik onartuko eta jai feministak aldarrikatzeko.

Akelarrea egingo dute jaietako lehen gauean. **Josu Zaldibar**

Egitarauak

Larrabe Abuztuak

24 Larunbata

10:00	**Txupinazoa jaiari hasiera emateko**
11:30	**Meza** Hilerriko kaperan
12:00	**Umeentzako puzgarriak**
12:00	**Patata tortilla txapelketa** Ezinbestekoa izango da zelaian egitea
13:30	**Sari banaketa**
16:00	**Puzgarriak eta aurpegi margoketa**
18:30	**Txokolatada** Umeak dohainik, helduak 0,20 zentimo
19:00	**Umeentzako ekintza eta jolasak**
20:00	**Igel joko txapelketa** Izen ematea 1 euro
21:30	**Gaueko jaia Ganeko taldearekin**

Aloria Abuztuak

29 Osteguna

07:30	**Jaien hasiera suziri eta kanpai hotsekin**
12:30	**Meza santua**
13:15	**Trikipoteoa**
15:00	**Familiako bazkaria**
16:30	**Alboradak**
17:00	**Mus txapelketa**
18:30	**Haur Jolasak eta txokolatada**
23:00	**Gauargi erromeria**
02:30	**DJ Juanma**
03:00	**Itzelezko kontzentrazio atletikoa** Galtza eta tanga lasterketa

30 Ostirala

07:30	**Kanpai hotsak eta suziriekin diana**
13:00	**Hilak gogoratzeko meza**
13:30	**Argazki erakusketa**
15:00	**Herri Bazkaria**
18:00	**Puzgarriak eta jolasak**
21:00	**Guztientzako parrillada** Tiketak 4 eurotan salgai. Jasotako dirua ELA gaixotasuna duten pertsonen Adela Bizkaia elkartearentzat izango da
21:00	**Erromeria Etxebarria Aita Seme trikilariekin**
00:30	**DJ Nabo**

Baranbio Irailak

06 Ostirala
Baranbion

14:00 **Jubilatuen bazkaria**
17:00 **Briska txapelketa**
19:00 **Mus txapelketa**
Baranbioko txokoan
19:00 **Txupinazoa eta kanpai-hotsa**
19:30 **Odolostea**
Prezioa: 1 euro
20:30 **Gauargi erromeria**

07 Larunbata
Garrastatxun

10:00 **Txirrindularitza lasterketa**
Helmuga Garrastatxun, Elite eta Sub23 kategoriak. Lehendakari torneoa, Arabako Txapelketa
11:30 **Paella txapelketan izena ematea**
Arrain paella
12:30 **Trikitixa**
13:30 **Txirrindularitza lasterketaren sari banaketa Garrastatxun**
14:15 **Paellen aurkezpena**
14:45 **Paellen sari banaketa**
17:00 **Bingo musikatua**
20:00 **Pilota partida**
Benjaminen kategoria, Baranbioko frontoian
20:30 **Parrilladarako tiketen salmenta**
21:30 **Parrillada Baranbion**
21:30 **Belgorri taldearen kontzertua**
23:00 **Gautegun erromeria**
02:30 **DJa**

08 Igandea
Garrastatxun

12:00 **Meza**
12:30 **Tortilla txapelketan izena ematea**
14:00 **Tortillen aurkezpena eta sari banaketa**
17:00 **Haurrentzako ekintzak**

10 Asteartea
Baranbion

12:00 **Meza**
13:00 **Pintxopotea**
13:00 **Txistulariak**

Lekamaña Irailak

28 Larunbata

08:00 **Muestra txakurren Arabako Kopa**
12:00 **Jaien hasiera**
Suziri jaurtiketa eta kanpai errepikarekin
13:30 **Arabako Koparen sari banaketa**
15:00 **Herri bazkaria**
16:30-19:30 **Puzgarriak eta cars-ak**
19:30 **Txokolate jana**
20:00 **Odoloste jana**
21:00 **Berbena**

29 Igandea

09:00 **II. Mendi martxa**
11:45 **Mendi martxaren zozketa**
12:00 **Kanpai errepika eta suziria jaurtitzea**
12:30 **Tortilla txapelketa**
13:00 **Meza**
13:30 **Igel-toka txapelketa**
14:30 **Sari banaketak**

Artikulua

Sei udal, jai euskaldunak sustatzeko prest

Apirilean aurkeztu zuten 'Gora Aiaraldeko jai euskaldunak!' ekimena Laudio, Urduña, Artziniega, Orozko, Aiara eta Arrankudiaga-Zolloko Udalek, neurri zehatzak hartzera konprometituz.

Iragan apirilaren 25ean agerraldi bateratua egin zuten Laudio, Urduña, Artziniega, Orozko, Aiara eta Arrankudiaga-Zolloko Udalek, "Gora Aiaraldeko jai euskadunak!" ekimena aurkezteko. Dinamika horren bidez, tokiko erakunde horiek hainbat neurri hartzea adostu zuten euren udalerrietako jaietan euskararen presentzia bermatzeko.

Aldizkari honetan bertan ikusi daiteke neurririk ikusgarriena: Jaietako jarduerak hizkuntzaren arabera sailkatzea, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak abian jarritako "Euskararen semaforoa" tresnaren bidez. Baliabide hori ez dago Udalei soilik zuzenduta. Amurrioko Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak, adibidez, bere egitarauan baliatu du, nahiz eta Amurrioko Udalak dinamikarekin bat egin ez.

Aiarako San Prudentzio jaien atarian aurkeztu zuten ekimena. **Aiaraldea.eus**

Horrez gain, aipatutako sei udalek beste hainbat konpromiso ere hartu dituzte: txosnetarako hizkuntza irizpideak zehaztea (musikaren %65a gutxienez euskaraz izan dadin), jaietako ekitaldietan hizlari elebidunak eskatu edota eskaintzea edota ostalarientzako gomendioak osatu eta jendarteratzea, besteak beste. Datozen asteetan ikusi ahalko da zer nolako eragina duten neurri horiek Aiaraldeko udako jaietan.

Ura Bere Bidean Korala

Irailak 14
Larunbata
20:00 **Buesa Arena**

Euskal abesti itzelen aurkezpena abesbatz bertsioan

Nurat Gazte Abesbatza

Coro Vicente García Abesbatza
Ehuterpe Coro de Ingeniería
Lautada neskak Abesbatza
Coro Urkanta
Amalur Abesbatza
Canta Cantorum Abesbatza
Coro Oskarbi
Coro Ausartak
Coral Santorcáriz Abesbatza
Coro Erribera Beitia
La Raspa de Gazalbide
Kataliturri Abesbatza
Grupo Coral Zurbano
Coral Manuel Iradier
Olabide Abesbatza Helduak
Iradier Gazte
Coro Lantziego

Coro Niño Jesús Abesbatza
Papargorri Abesbatza
Lumturi Haur Abesbatza
Coro del CPM Jesús Guridi
Olabide Haur Abesbatza
Olabide Ikastola
Escuela de Música Luis Aramburu

500 ahots baino gehiago eszenan!

www.ubbkorala.eus

araba álava
foru aldundia diputación foral

LABORAL kutxa

Fair Saturday Foundation

Laudioko jaiak

Abuztuaren 15tik 25era

Ainize
Gastaka
LAUDIOKO ALKATEA

Heldu dira Laudioko jaiak eta kaleak ilusioz gainezka daude berriz ere. Bederatzi egunez jai-giroa izango da nagusi gure herrian, gureak diren jaiak ospatzeko. Eta eskuartean duzuen programak ekitaldi anitz ditu aurten, 160 baino gehiago, herriko txoko bakoitza kolorez, musikaz eta jai-giroaz betetzeko. Baina hau guztia ez litzateke posible izango lan eta lan aritu diren pertsonak gabe, haiei guztiei eskerrik asko urtero egiten duzuen esfortzuagatik herriko jaiak aurrera ateratzen.

Nire besarkadarik beroena ere bidali nahi diet aurten gurean egon ezin direnei. Aurtengo jaiak euskaldunak, herrikoiak, solidarioak eta errespetuzkoak izan daitezela denon esku dago. Laudioarrok ez dugu jarrera arrazista, homofobo edo transfoborik onartuko ezta emakumeon aurkako edozein motatako erasorik ere.

Bizi ditzagun kaleak askatasunez!

Gora Laudio!
Gora Laudioko jaiak!

LAUDIO
UDALA

“Zerbait berezia prestatuko dugu aurtengo jaietarako”

PATXI SANCHEZek, JESUS ANGEL RUIZ PEREZ DE AZPILIKUETAk eta XABIER VALLEk osatzen dute Laudioko gaitari taldea. 31 urteko ibilbidea bete dute jadanik eta aurten jaietako pregoia irakurriko dute.

Nola jaso duzue aurtengo pregoiaren ardura?

Patxi Sanchez: Ezustean, ez genuen espero. Pozgarria izan da 31 urtetan egindako lana aitortzea. Zirriborro bat prest dugu pregoiarekin.

Zein da taldearen ibilbidea?

P.S.: 1993an hasi ginen elkarte gisa. Aretako Kultura Etxean egin genituen lehen urratsak. Bospasei lagun elkartu eta irakasten eta praktikatzen hasi ginen. Berehala eman genuen festetatik irteteko pausoa.

Garai hartan instrumentua ezezaguna zen, jada ez zen hemen jotzen. Antzina Eltziegoko gaitariak etortzen ziren, baina gu hasi ginenerako ez. Horrela abiatu ginen, eta gure itxaropena da jarraituko duela.

Xabier Valle: Laudio ez da jotzen dugun leku bakarra, deitu gaituzten toki pilora joan gara. Euskal Herrian herri asko bisitatu ditugu. Batzuk urtero errepikatzen dira, eta beste batzuetan noizean behin parte hartu dugu. Gainera, ez gara beti elkarrekin joaten, Patxi batzuetan Jesusekin edo Bilboko norbaitekin joan da.

Nolanahi ere, Bizkaitik eskatu ohi

dute gure presentzia, baina Gipuzkoan, Araban, Nafarroan... ere izan gara. EAEn tamaina handiko ia herri guztietan egon gara, erraldoiekin edo dantza taldeekin jotzeko.

Jesus Angel Ruiz Perez de Azpilikueta: Taldean edo banaka, ia Euskal Herri osoan jo dugu. Iparraldean ere egon gara, eta Espainiako Estatuan ere bai: Galizia, Katalunia...

Zein da zuen errepertorioa?

X.V.: Errepertorio klasikoa dantzarako eta kalerako musikak osatzen du, hau da, dianak eta kalejirak. Bada beste zati garrantzitsu bat, XIX. mendearen amaieratik datorrena: balsa, polka, mazurkak, txotisa... Errepertorio hori Nafarroako gaiteroetan geratu zen.

Gero musika modernoagoak gehitu dira, abestien melodiak, euskaldunak eta baita beste leku batzuetakoak ere, beste dantza batzuk... Corpus nagusia jota den arren, fandangoa, arin arina, makil dantza, zinta-dantzak, arku-dantzak... ere jo ditugu: Otsagabiakoa, Arabako Errioxakoa, Kuartangokoa...

Zein talderekin aritu zarete elkarlanean?

P. S.: Laudion, batez ere, bandarekin, baina baita ere Herrien Etxeekin, dantza taldeekin, trikitilariekin, erraldoiekin...

Zenbat gaitari daude Euskal Herrian?

X.V.: Orain asko daude, pila bat. Txistua nagusi izan den lekuetan ere, gaita instrumentu-kutsu bereizgarriagoa hartzen ari da. Lehen ez zegoen lekuetan ere badaude, Baztanen eta ia Nafarroa osoan, adibidez.

Araban, Gasteizen eta Arabako Errioxan daude, eta hemen gu. Bilbon, Bilbo Handiaren inguruan eta Bermeon daude. Gipuzkoan ere badira taldeak herri handietan. Denekin ez dugu harremanik, nahiz eta jende asko ezagutzen dugun.

Zerk motibatu zaituzte 31 urte hauetan?

P.S.: Instrumentuarekiko zaletasunak eta jende gehiago batzen saiatzeak.

J.A.R.P.A.: Zaletasunak, soinuak, gustatzen zaiguna eta entzuten gozatzen duguna. Hobetzen saiatzen gara.

X.V.: Errepertorioa zabaltzea, jende berria ezagutzea, laguntzea...

Zein da zuen errutina Laudioko jaietan?

P.S.: Txupinazoaren egunean hasten gara, erraldoiekin eta kuadrilla guztiekin irteten. Gero dianekin hasten gara, bermuta girotzen dugu eta erraldoiei laguntzen diegu. Arratsaldean gaua hasi arte jarraitzen dugu. Bi egunetan izan ezik, guztietan ateratzen gara.

X.V.: Lehen zezen-plazara joaten ginen, banderillak jotzeko ohitura baitzegoen. Niretzat, zorionez, ez dugu plazara joan beharrik. Horrela egiten zen Iruñean eta Bilbon, eta hemen ere bai.

Aurtengo jaiak bereziak izango dira?

P.S.: Pregoilari izango garen unetik, bereziak izango dira. Zerbait berezia egitea ere pentsatu dugu.

“Taldean edo banaka, ia Euskal Herri osoan jo dugu. Iparraldean ere egon gara, eta Espainiako Estatuan ere bai: Galizia, Katalunia...”

Itzelak kuadrillak botako du txupinazoa

Itzelak kuadrillak hartuko du Laudioko udaletxeko balkoia abuztuaren 15ean jaietako txupina jaurtitzeko eta ospakizunei hasiera emateko.

Itzelak kuadrillako kideek bazuten susmoa euren esku geratu ahal zela aurtengo txupinazoa jaurtitzea, 30 urte bete dituztelako: "Betidanik Suziri Jai Batzordearen parte izan gara eta horrelako beste egoera batzuk bizi izan ditugu jada. Hau da, kuadrilla baten urteurrena heltzen denean, 30. urteurrena gure kasuan, errekonozimendu gisa aitortzen zaio txupinero izateko aukera". Gerora, intuizioa zuzena zela erakutsi du jai antolatzaileen erabakiak eta jadanik ekin diote ospakizunen prestaketari. Izan ere, kuadrillatik ehun kide inguru igaro dira eta gaur egun ia 50 daude aktibo. Adin tartea oso anitza da eta 18 urtetik 50 urtera heltzen da. Horrek suposatzen du euren jantzien bertsio ezberdinak daudela eta ados jarriko direla guztiak kalera ateratzeko sanrokeetan euren uniforme gorria, zuria eta urdina erakusteko. Hori bai, guztiak ez dira berdinak, lehen blusa egiteko erabili zuten oihala ez dute inoiz lortu berriro, adibidez.

Horri gehitu behar zaio hiru hamarkadetako efemeridearekin batera berrikuntzak egin dituztela: "Ospakizunak alde batera utziz, aldaketa nabarmena egin dugu kuadrillan, jantzia aldatu dugu. Lehengo kuadrillen jantzien arteko ezberdintasuna kolorea baino ez zela esan dezakegu. Gehiengoak lauki txikiz eginezko gona eta blusaz osatuta zeuden. Garaiak aldatu dira eta harekin batera euskal jantziak egiteko erabili izan ohi diren oihalak ere. Ugariak dira orain lore, marra edota forma ezberdinez eginikoak. 30 urtez erabili izan dugun jantzia aintzat hartuta sortu dugu berria".

Itzelak kuadrillako kideak, jaietako une batean. **Aiaraldea.eus**

Kuadrillaren izaeran aldaketak

Taldearen ibilbidearen hasiera Laudio Institutuan dago. 1994an hainbat neska batu ziren euren kuadrilla sortzeko eta ezaugarri berezia izan zuen Itzelak-ek hasieran. Izan ere, emakumezkoek osatutako kuadrillak ez ziren horren arruntak eta urte luzez izaera horri eutsi diote: "Garai hartan neskez osatutako kuadrilla bakarra zegoen Laudion, gainontzekoak soilik mutilentzat edota mistoak ziren".

Dena den, bilakaera heldu da Itzelakera; gizonezkoak ere onartu zituzten iaz eta, aurten proposamen berriak jaso ondoren, baiezkoa eman diete. "Gizartea aldatuz doa, eta harekin batera taldea osatzen dugunon ikuspuntua. Hori dela eta, iaz Itzelaken parte bilakatu ziren lehenengo mutilak. Bidea zabaldu dute eta aurten ere partaide berriak izan ditugu, neskak zein mutilak", azaldu dute.

Pozik, zailtasunak gaindituta

Itzelakeko partaideak pozik daude izango duten eginkizunarekin. Berez, 30 urteko markara heltzea ez baita erraza izan eta zenbait gorabehera ezagutu dituzte.

Hala azaldu dute: "Lehen kuadrillen kopurua murritzagoa bazen ere, oso jendetsuak ziren. Ez ziren kuadrilla berriak sortzen, baizik eta zeudenen artean aukeratu eta haien parte izatera pasatzen zinen. Belaunaldi berriekin batera, aldaketak etorri ziren eta kuadrilla berriak sortzeak arestian zeuden kuadrillen partaide kopuruaren murrizketa eragin zuen. Gu, esaterako, 30 pertsona inguru izatetik, zazpi baino ez izatera pasa ginen, eta horrela iraun izan dugu zenbait urtetan".

Dena den, partaide urriko garaiak atzean geratu dira eta kuadrillak lortu du jende gehiago batzea egitasmora eta euren artean pasatzea lekukoa.

Abuztuak

(E) **Euskara hutsez**
(E) **Nagusiki euskaraz**
(E) **Elebiduna**
(G) **Nagusiki erdaraz**
(G) **Erdara hutsez**

14 Asteazkena

19:00 **Jaiak iragartzeko pregoiaren irakurketa** (E)
Herriko plazan, Laudioko Gaiteroak taldearen eskutik. Arloteek girotuko dute ekitaldia

19:30 **Ardoa aforatzea** (G)
Udaletxe zaharreko arkupeetan, Erroke Deuna Kofradiaren eskutik

15 Osteguna Txupinazoa

08:30 **Aire zabaleko XXVI. Pintura Lehiaketa** (E)

10:00 **Herri gosaria** (E)
Alberto Acero plazan, Baldarrak kuadrillaren eskutik

11:30 **Beldur Barik gunea** (E)
Jaietan indarkeria matxista prebenitzeko mahai informatiboak
Batzalarrin kalean

11:30 **Party Carro kalejira** (E)
Aparrezko kanoia, argiak eta soinua herriko erdigunetik, Suziri Jai Batzordeak antolatuta

11:30 **Kalejira Kolpez Blai batukadarekin** (E)
Suziri Jai Batzordeak antolatuta

12:00 **Txupinazoa** (E)
Udaletxeko balkoitik, Itzelak kuadrillaren eskutik. Jarraian, kalejira herrian barrena. Arloteek omenaldia egingo diote Ruperto Urkijori Lamuza plazan (G)

13:00 **DJa eta aparraren festa eta musika animazioa Beti-jai fanfarrearekin** (E)
Zumalkarregi etorbidean

13:00 **Txosnen irekiera** (E)
Txosnagunean

13:30 **Erromeria Iratzar** (E) **taldearekin**
Txosnagunean

13:30 **Diskofesta 1970-1990 hamarkadetako musikarekin eta talo-txosna** (G)
Zubiko Kurajo eta Araba kaleetan jai kuadrilla historikoen eskutik

15:00 **Hotel Ruido taldea** (G)
Zubiko Kurajon jai kuadrilla historikoen eskutik

15:00 **Kaos in Pompeya jaialdia**
Lamuza parkean

16:30 **Party Carro kalejira** (G)
Aparrezko kanoia, argiak eta soinua herriko erdigunetik jai kuadrilla historikoen eskutik

16:30 **Ski-taula eta txorizo-opilak** (E)
Azkenak kuadrillak antolatuta

17:00 **Pablo Líquidoren kontzertua** (G)
Alberto Acero plazan

17:00–00:00 **DJ Ruba** (E)
Zubiko Malekoian

17:30 **Aire Zabaleko XXVI. Pintura Lehiaketaren sarien banaketa** (E)
Udalbatza aretoan

19:00 ***Pausa* antzezlana** (G)
Lamuza plazan

19:30 **Musika animazioa** (E)
Beti-jai fanfarrearekin

21:00 **Fórmula V taldearen kontzertua** (G)
Herriko plaza

22:30 **Erromeria Akerbeltz taldearekin** (E)
Txosnagunean

23:00 **Zezensuzkoa** (E)
Herriko plazan

23:00 **DJ emanaldia 1970, 1980 eta 1990eko hamarkadetako musikarekin** (G)
Alberto Acero plazan

00:00 **Alkohol-kontsumoari lotutako arriskuak prebenitzeko eta murrizteko kanpaina** (E)
Alberto Acero plazan

Hainbat tresna eraso matxisten aurka

Hainbat tresna eta baliabide egongo dira Laudioko jaietan eraso matxistei aurre egiteko. Laudioko Udalak 24 orduko salaketarako telefonoa jarriko du martxan, eta bertatik aukera egongo da arreta psikologikoa jaso zein mugimendu feministako kideekin harremanetan jartzeko.

Tresna berriak jarriko dituzte martxan aurten Laudion eraso matxistei aurre egiteko. Azken urteetan Laudioko Mugimendu Feministak kudeatu du erasoak salatzeko telefonoa. Aurten, aldiz, Laudioko Udaleko Gobernantza Feministaren sailak hartu du zerbitzu hori atontzearen ardura. Hala ere, bertara deitzen duten pertsonek aukera izango dute mugimendu feministarekin zuzenean harremanetan jartzeko, hala eskatuz gero. 635 703 855 izango da telefono zenbaki hori eta 24 orduz egongo da funtzionamenduan, jaietako egun guztietan. "Arreta psikologiko espezializatua bermatuko da, eta egunean zehar aurrez aurreko arreta eskainiko da", azaldu du Nagore Gomara zinegotziak.

Ekimen gehiago

Horrez gain, indarkeria matxistarik gabeko "Beldur barik" gunea egongo da jaietan, Batzalarrin kalean. Abuztuaren 15ean 11:30etik 14:30era egongo da. 22an eta 24an, ordea, 19:00etatik 22:00etara jarriko dute. Ikusgunek ere karpa jarriko du hilaren 21ean toki berean, "udalerriko LGTBI+fobiaren erradiografia lortzeko". 19:00etatik 22:00etara egongo dira bertan elkarte horretako kideak.

Horrez gain, mugimendu feministatik baloratzen ari dira bestelako tresna batzuk ere martxan jartzea jaiei begira. Indarkeria matxistaren lau kasu salatu zituen eragileak iazko sanrokeen lehen orduetan. Horren aurrean, "espazio seguru eta gozagarriak" sortzen jarraitzeko deia luzatu zuten.

Iaz hainbat eraso salatu ziren Laudioko jaietan. **Aiaraldea.eus**

Erasoren bat jasan dutenek 635 703 855 telefonora deitu ahalko dute

20 URTE ZUEKIN
EUSKO PC
Eusko PC
· SALMENTA, KONPONKETA ETA MANTENUA
· ENPRESAK ZEIN PARTIKULARRAK
Ezka kalea 3, Laudio 94 608 73 10

TABERNA
txango
BOKATA EGIN BERRIAK
Terraza erreserbatu ospakizunetarako
Aldai enparantza, LAUDIO/ 944 677 100 ERRESERBAK: 686 927 554

EGURLAN
Mota guztietako ateak, leihoak, zoruak, errodapiak... jartzen ditugu.
ERAKUSKETA ZABALA ETA PAREGABEA
20 urteko esperientzia
Ondo pasa jaietan!
Atxeta auzoa, 5, LAUDIO · 94 672 01 75
egurlan@telefonica.net · @egurlancarpintero

Eska S.L.
eskataller@gmail.com
NERBIOI GARAIAN ZERBITZU OFIZIALA

Industrialdea, Pab. 4 - LAUDIO 94 672 81 01

EUSKAL JANTZIAK - BORDATU MOTA GUZTIAK - ESKUZ EGINDAKO PIEZAK - OSAGARRI TRADIZIONALAK
IRRINTZI
euskal jantzi denda
Batzalarrin Kalea, 9 Laudio
944 072 215
Irrintzi, euskal jantzi denda

“Kartelarekin ahalik eta pertsona gehien identifikatuta sentitzea izan da nire asmoa”

MAITE CUESTA HUERTAk (Laudio, 2003) egin du Laudioko jaietako kartela. Ez da bere lehen aldia izan, duela hamaika urte haurren kategorian gailendu baitzen.

Lehenengo aldia da kartel lehiaketan parte hartzen duzula?

Ez, ez da lehenengo aldia. Duela hamaika urte haurren lehiaketan parte hartu eta irabazi nuen. Nire amak behintzat esaten du hortik inspirazioa hartu nuela eta nolabait esan nuela etorkizunean helduen kartel lehiaketan parte hartuko nuela, iritsi da egun hori eta azkenean irabazle izan naiz, eta nahiko alai nago horregatik.

Lehen aldia izan da helduen edizioan parte hartzen duzula?

Bai, hau izan da lehen aldia.

Nolakoa izan da kartela sortzeko prozesua?

Egia esan, arte digitala ez da nire margotzeko eredu nagusia. Nik berez arkatzez eta margoz egiten ditut nire marrazki gehienak. Beraz, lehenbizi bozetoa egin nuen arkatzez eta digitalizatu egin nuen gero. Denbora eskatu zidan horrek, berez ez nagoelako trebatuta eta ez dudalako trebakuntza profesionalik horretan. Amateurra naiz, egia esan.

Inspirazioa Laudion ikusten diren jaietako ikur nagusietatik hartu dut eta guztia kartel batean islatzen saiatu naiz. Nahiko harro nago (barreak).

Ilustrazioaren esparruan aritzen zara?

Ez. Ni berez unibertsitateko ikaslea naiz, biokimika ikasten dut.

Beste lehiaketaren edo proiekturen batean aritu zara ilustratzaile moduan?

Txikitan parte hartu nuen lehiaketetan eta horietako batzuk irabazi nituen, baina heldu moduan hau da lehiaketa batera aurkeztu naizen lehen aldia. Momentu garrantzitsua da beraz, berezia.

Honek motibatu zaitu ilustrazioaren munduan jarraitzera?

Gustatuko litzaidake. Egia esan, karrerak denbora pixka kentzen dit eta denbora atera behar izan dut hau egiteko, baina espero dut etorkizunean trebakuntza profesionalagoa izanda, ilustrazio digitalean master bat edo ikasketaren bat eginda.

Kanpotik ikusita, bi esparru oso ezberdin dirudite biokimika eta ilustrazioa...

Bai, hori da (barreak). Horregatik pixka bat zaila da biak uztartzea, eta hori gertatu zait urte osoan zehar, ikasketetan murgilduta nagoela, baina margotzeko ez dudala denbora nahikorik ateratzen.

Aurtengo jaiak bereziak izango dira zuretzat. Nola biziko dituzu?

Ni laudioarra izanda txikitatik egon naiz festetan eta nire oroimenean nahiko presente dagoen gauza bat da. Orain, heldua bilakatzean, beste ikuspegi bat garatu dut pixkanaka. Ez naiz oso pertsona festazalea, baina ateratzen naizenean normalean nahiko ondo pasatzen dut.

Esan duzun bezala, aurten jai bereziak izango dira, nire kartela ikusiko dudalako eta errepresentazio hori niretzat nahiko berezia delako. Kartelean ahalik eta pertsona gehien identifikatu daitezen saiatzea izan da nire asmoa. Hori lortu dudala uste dut eta horregatik espero dut jaietan jendea identifikatua sentitzea kartelarekin.

Kattalin Egia Etxeberriak irabazi du haurren kartel lehiaketa. Goiko irudian, bi irabazleak batera, euren lanekin. **Aiaraldea.eus**

café araba
Pintxoak
Sandwichak
Bokatak
Errazioak
Jaietan egin gurekin topa!
Zumalakarregi etorbidea 35, LAUDIO
94 672 38 08

SUSTRAIAK
-FISIOTERAPIA-
DIZIPLINARTEKO ZENTROA
Fisioterapia eta errehabilitazio aktiboa
Podologia · Nutrizioa
Ondo pasa jaietan!
Jauregi urbanizazioa 1, behea, ARTZINIEGA
658 60 88 41

Agur eta umore, Pirulo Txou

Pirolu Txou musika eta umore taldeak sanrokeetan amaituko du bere ibilbidea. 35 urte igaro dira hasi zirenetik eta modu egokian agurtu nahi dituzte jarraitzaileak.

Bidaiatu dezagun aro urrun batera, zeinean sakelako telefonoak ez ziren existitzen, ikus-entzunezko ekoizpenak oso arraroak ziren eta bizitza ez zen horren globala eta, ondorioz, herrian gertatzen zena garrantzitsuagoa zen. Urte horiek (1990ko hamarkada, demagun) protagonista bat izan zuten San Roke jaietan; Pirulo Txou.

Taldearen sekretua erraza zen. Abesti famatuak hartu eta letrak aldatzen zizkieten Laudioko gaiak modu umoretsuan lantzeko. Kostunbrismo modernoa umorez. Horrez gain, koreografiak, mozorroak, txantxak eta noizean behin bideoak ere uztartzen zituzten. Ez da harritzekoa, hortaz, jaietan hitzordu finkoa bilakatu izana eta arrakastatsua, gainera, Herriko plaza beteta. Proiektuan dozenaka kide aritu dira, soziologia oso anitzekoak; heavyak, musika tradizionaleko zaleak...

Edonola ere, denak dauka amaiera eta Pirulo Txou, 2024an, Pirulo Txau bilakatuko da, hau da, azken kontzertua. Horrela erabaki dute partaideek. Euren azken emanaldi “ofiziala” duela hamaika urte izan zen eta elkartzeko dituzten zailtasunak ikusita ("Hiru urte behar izan ditugu afaria egiteko”, argitu du Iñaki Moscoso abeslariak), erabaki dute modu duinean agurtzea jarraitzaileak eta herria, oro har.

Berakatz Eguna hautatu dute horretarako, abuztuak 21. 22:00etan oholtzara igoko dira azkenengo aldiz eta horrela itxiera helduko da duela 35 urte baino gehiago sortutako abenturarentzat. Izan ere, Pirulo Txou agertu zen Pirula Irrati libreko saio batean: *Sobremesa, sobrepesa, sobrepasa*. Ideia izan zen emankizun horretan egiten zutena kalera ateratzea, musika taldea sortuta.

Geroztik, kontzertu andana eman dituzte. Gehienak Laudion, nola ez, baina Lemoan edota Madrilen ere jo dute eta eredu anitzak baliatu dituzte, tabernetan edota Uhinak Irratiko *Ojodagila* irratsaioan. Batzuetan oholtza jendez gainezka zegoen, beste batzuetan kontzertu akustikoa egin dute.

Azken hitzordurako prestaketak jadanik abiatu dituzte. Denbora luzez elkar ikusi gabe, taldeak ekin dio maiztasunez entseguak egiteari eta azkenaldian astero batu dira horretarako. Musikaren esparruan ez dute ezer berririk eskainiko. Azken hamarkada hauetan sortutako abestien bilduma hautatu dute eta *revival* hutsa egingo dute.

Hori bai, kanta berririk ez egoteak ez du esan nahi ezusterik ez denik egongo. Berez, bi mikroantzerki egingo dituzte eta go-go taldea arituko da eurekin, Rosalia edota Nacho Cano bezala, baina laudioarrekin. Horrez gain, ohiko azalpen umoretsuak iragarri dituzte bakarrizketa gisa. Izan ere, ez da ahaztu behar abesti asko zaharrak direla jadanik eta gazteenek agian beharko dituztela zenbait azalpen txantxa ulertzeko.

Hortaz, Laudioko jaietan publiko orok izango du tartea Pirulo Txouri agur esateko. Beteranoen aitzakia izango da aspaldi bizi izandakoa berpiztea eta barre egitea. Gazteentzat, ordea, denbora makinarekin bidaiatzeako parada egongo da, modu dibertigarrian, hori bai.

Aluman
PROPAMSA
weber
ARATEI, SL.
ENPRESA ERAIKITZAILEA
Adituak teilatu eta fatxadetan
Hondeaketak eta eraisketak
Forjak eta zurezko estrukturak
Teilatu-hodiak eta zorrotenak
Eraikinen ikuskapen teknikoa / EITa komunitateentzat
Teila-banatzaile eta -instalatzaileak
Leiho-banatzaile eta -instalatzaileak
SATE sistemaren banatzaile eta instalatzailea
BILTEGIA:
Garai etorbidea, 19 ARTZINIEGA
Zankueta poligonoa PAB-1(Larrinbe) AMURRIO
TEL. 616 66 28 40 · aratei@aratei.com · www.aratei.com

Abuztuak

16 Ostirala
San Roke eguna

08:30 **Alborada** (E)
Arloteekin

09:00 **Kalejira**
Lankaietako Lagunak txistulari taldearekin

10:00 **Kalejira**
Ekin Joleak txistulari taldearekin

11:00 **Diana**
Laudioko Gaiteroekin

11:00 **Herri-krossfita adin guztietarako** (E)
Lamuza parkean

11:00 **San Rokeren omenezko meza**
Lamuzako Done Petri elizan

11:00 **Familia gunea** (E)
Txosnagunean

11:00 **Potxin-Patxinen umeentzako emanaldia** (E)
Herriko plazan

12:15 **Ohorezko pitxerren banaketa** (G)
Lamuzako Done Petri elizan Erroke Deuna kofradiaren eskutik

12:30 **Entzierroa eta bigantxak** (E)
16 urtetik gorakoentzat

12:30 **Animazioa**
Laudioko Gaiteroen taldearekin

12:45 **San Roke musika elkartearen kontzertua**
Aldai plazan

13:00 **Kalejira txistulariekin**
Herriko kaleetatik, kuadrilla historikoek antolatuta

13:00 **Zutik elektrotxarangarekin kalejira** (E)
Herriko kaleetan

14:30 **Herri bazkaria** (E)
Laudioko Gazte Asanbladaren eskutik

15:00 **Kuadrilla historikoen herri-bazkaria** (G)
Institutuko jolastoki estalian

16:30 **Zelai errea** (E)
Lamuza parkeko kirol anitzeko zelaian, Azkenak kuadrillaren eskutik

17:00 **Diskofesta-karaokea** (G)
Institutuko jolastokian

17:00 **Erraldoi eta buruhandien ibilaldia**
Herriko plazatik

18:00 **Laudio Conquis** (E)
Lamuza parkean Jalgi kuadrillaren eskutik

18:00 **Herri kirolak** (E)
Aldai plazan Arrizkuzubi taldearen eskutik

18:00 **DJ Ismeder** (E)
Alberto Acero plazan

18:00 **Aurresku Txapelketa** (E)
Herriko plazan, Itxarkundia Dantza Taldearen eskutik

19:00 **Fandango eta Arin-arin Txapelketa** (E)
Herriko plazan, Itxarkundia Dantza Taldearen eskutik

19:00 ***Finito infinito* antzezlana** (G)
Lamuza plazan

20:00 **Sakatu elektrotxaranga eta barbako ibiltaria** (E)
San Rokeko aldapatik, Zoroak eta Zirikarekin

20:30 **Dantzaldia Maturen eskutik** (G)
Alberto Acero plazan

22:30 **Zezensuzkoa**
Herriko plazan

23:00 **El Drogasen kontzertua** (G)
Zumalakarregi etorbidean

23:00 **Arrotzak, Ithaka eta DJ Salda Badago** (E)
Txosnagunean

LAUDIOKO TXOSNAK 2024

EGOTETIK EGITERA!

15

13.00
Txosnen irekiera eta
URREZKO KATXIAren banaketa

13.30
ERROMERIA
IRATZAR

22.30
ERROMERIA
AKERBELTZ

16

11.00
FAMILIAGUNEA
Puzgarriak eta jolasak

14.30
GAZTETXEKO
HERRI BAZKARIA

23.00
KONTZERTUA
ARROTZAK

KONTZERTUA
ITHAKA

DJ FESTA
DJ SALDA BADAGO

17

11.00
FAMILIAGUNEA
Zirku jolasak

13.00
IKUSKIZUNA
YOGURINHA BOROVA

23.00
KONTZERTUA
TXOPET

KONTZERTUA
NAKAR

DJ FESTA
DJ BITTERKAS

21

11.00
FAMILIAGUNEA
Serigrafia tailerra eta jolasak

19.00
KANTUKADA
Parketik

21.30
KOADRIGA LASTERKETA

23.00
ZUMBA ERRALDOIA
Izaskun del Cerrorekin

ABUZTUAK 15-25
ALDAI PLAZA

22

11.00
FAMILIAGUNEA
Ur-jolasak

13.00
IKUSKIZUNA
DISKOTXANTXA

23.00
KONTZERTUA
B.O.T.H.

KONTZERTUA
MOONSHINE WAGON

ERROMERIA
MUXUTRUK

23

11.00
FAMILIAGUNEA
Puzgarriak eta jolasak

23.00
KONTZERTUA
EIRE

KONTZERTUA
GUDA DANTZA

DJ FESTA
XAUKENA XAUK

24

11.00
FAMILIAGUNEA
Esperimentazio jolasak

13.00
IKUSKIZUNA
WALLAS MAGOA

01.00
DJ FESTA
BAD SOUND SISTER

DJ FESTA
REIMY

LAUDIO UDALA

LAUDIOKO TXOSNA BATZORDEA
egotetik egitera!

Bost kuadrilla berri Laudioko jaietan

Belaunaldi aldaketa nabarmena ematen ari da azken urteetan Laudioko kuadrillen ekosisteman. Aurten bost talde berri batu dira Suziri Jai Batzordera.

TXINDOKI

Nondik dator zuen kuadrillaren izena?

Duela urteak Ikastolako, Latiorroko, Lamuzako eta La Milagrosako gazte batzuk elkartu ginen elkarrekin lokala alokatzeko asmotan. Lehenengo lokala Arbol Malato kalean eduki bagenuen ere, bigarrenak, Latiorroko Txindoki kalean alokatu genuenak, eman zion izena gure kuadrillari: Txindoki.

Zein da jaietako egunik onena? Zergatik?

Oso galdera zaila da erantzuten. Txupinazoaren eguna, Kuadrillen eguna, Baserritar eguna, Odoloste eguna... denak dira onak.

Bat aukeratu behar izatekotan, Baserritar eguna aukeratuko genuke, baina ez egitarauarengatik, aspalditik egun horretan kuadrillako baten txokoan egiten dugun bazkariarengatik baizik. Urteek aurrera egin ahala, lana dela, familia dela, gero eta zailagoa da hogeiok elkar ikustea, baina bazkarira inork ez du hutsik egiten.

Zergatik erabaki duzue Jai Batzordean parte hartzea?

Urteak generamatzan zalantzan, eta pasa den urteko sanrokeetan erabaki genuen pausoa emango genuela. Gu guztion herria da, eta jaietan orain arte murgildu garena baino gehiago murgiltzeko motibazioa da.

Egitarauko zein ekintzetarako zaudete gogotsuen? Zergatik?

Egitaraua oso zabala da, eta ekintza asko dira gogoko ditugunak. Txupinazoaren eguneko gosaria, Kuadrilla eguneko bazkaria eta Zoroak kuadrillak antolatutako Muturreko Herri-Kirolak, besteak beste. Argi geratzen da jatea eta edatea gustatzen zaigula, ezta?

Zein uste duzue izango dela txosnetan gehien entzungo den abestia?

Isabel Aaiunen *Potra Salvaje*.

Zein duzue gustukoen: bafle-poteoa, batukada edo elektrotxaranga?

Ia edozerk balio digu, baina, egia esan, oso elektrotxaranga zaleak gara. Giro ona sortzen dute eta, gutxi egiten badugu ere, abesteko eta dantzatzeko aukera ematen digute.

Zerk egiten ditu Laudioko jaiak berezi?

Kuadrillok egiten ditugu Laudioko jaiak berezi, Laudioko gazteon antolakuntzak eta parte hartzeak. Kuadrillarik gabe ere existitu ziren eta existituko lirateke sanrokeak, baina ez lirateke gauza bera izango.

BASAPIZTIAK

Nondik dator zuen kuadrillaren izena?

Kuadrilla moduan izan genuen lehenengo eztabaida izena izan zen, ez baikinen ados jartzen. Hainbat aukera jarri genituen mahaigainean baina asko beste kuadrillak zeuzkatenen antzekoak ziren eta, azkenean, Basapiztiak etorri zitzaigun burura. Goazen telesailean agertzen den taldearen izena da, eta ikaragarri gustatu zitzaigun, gauean parrandan ordu txikiak arte igarotzen baitugu.

Zein da jaietako egunik onena? Zergatik?

Guretzat txupinazoa da gogotsuen hartzen dugun eguna, urte osoa daramagulako une horren zain. Gainera, aurten kuadrilla bezala gure debut ofiziala denez, irrikitan gaude.

Zergatik erabaki duzue Jai Batzordean parte hartzea?

Txikitatik ikusi dugu Jai Batzordeak herritik eta herriarentzat egin duen lana zenbait arlotan eta, guk ere gure aletxoa jarri nahi genuenez, sartzea erabaki genuen, kuadrilla berri bat sortuz.

Egitarauko zein ekintzetarako zaudete gogotsuen?

Egitarauko ekintza askotarako gaude gogotsu, baina kuadrillek antolatzen dituzten jokoak izango lirateke gehien erakartzen gaituztenak; ikusleak izateari utzi eta, lehen aldiz, kuadrilla gisa parte hartuko dugulako. Guztietan primeran pasako dugulakoan gaude, denon artean barre asko egingo dugulako.

Zein uste duzue izango dela txosnetan gehien entzungo den abestia?

Potra Salvaje asko entzuten ari den abesti bat da eta aitortu behar dugu gu ez garela abesti horren fan amorratuak, baina ohituko gara. Eta euskaraz, *Bollikau* eta *Gaupasa*, oso ezagunak ez diren arren, asko gustatzen zaizkigu eta, gu txosnagunean bagaude, ziur abesti horiek eskatuko ditugula.

Zein duzue gustukoen: bafle-poteoa, batukada edo elektrotxaranga?

Bafle-poteoa eta elektrotxarangak asko gustatzen zaizkigu. Izan ere, herritik mugitu eta jendea animatu egiten dituzten ekintzak dira eta, aurten, askoz gehiago biziko ditugu barrutik.

Zerk egiten ditu Laudioko jaiak berezi?

Azkenean Laudion betidanik bizi izan gara eta txikitatik jaiak gertu bizi izan ditugu. Oso berezia da guretzat kuadrilla moduan bizitzea eta hainbeste urteetan zehar ikusi duguna barrutik bizitzeko aukera izatea. Gogo handia dugu aurten eta datozen urteetan jai ederrak bizi eta antolatzen jarraitzeko.

AZTARNAK

Nondik dator zuen kuadrillaren izena?

Esan ahalko genuke: "Pentsatu genuen izenak nolabaiteko aztarna utzi behar zuela eta, orduan, Aztarnak izena jartzea erabaki genuen...".

Baina, egia esanda, gure kuadrillaren izenak ez dauka misterio handirik. Kuadrilla moduan jardutea erabaki genuen momentutik izen bat pentsatu behar genuen eta taldeko kide batek komunean zegoela "Aztarnak" aipatu zuen, guztiok onarpena eman genion eta aurrera! Egia da asko kostatu zitzaigula erabakitzea.

Zein da jaietako egunik onena? Zergatik?

Jai-kuadrilla bat garen heinean, Kuadrillen Eguna esan beharko genuke; izan ere, egun hori kuadrillentzako dago prestatuta. Hala ere, gure ustez, Odoloste Eguna berezia da, hain zuzen ere, tradizio aldetik garrantzi handiena duena delako. Dena den, guretzat ez dago egun berezirik: Laudioko jaiak bere osotasunean ez lirateke horrela izango egunen bat faltako balitz.

Zergatik erabaki duzue Suziri Jai Batzordean kuadrilla moduan parte hartzea?

Aztarnak kuadrillaren parte hartzearen jatorria beste kuadrilletan dago. Goraipatu behar dugu aurreko urteetan zehar beste kuadrillek egindako lana. Hori da Laudioko jaien oinarria eta agerian utzi dute ondo pasatzeko ezinbestekoa dela kuadrilla moduan jardutea. Beraz, jaiak beste ikuspuntutik bizitzeko, Aztarnak kuadrilla sortu dugu. Gainera, Jai Batzordeak etengabeko berrikuntza izan behar du, baina uneoro betiko kuadrillak eta haien ahalegina errespetatuz.

Egitarauko zein ekintzetarako zaudete gogotsuen? Zergatik?

Kuadrilla berri moduan esango genuke, sanpedropekoetan bizitako esperientziaren ondorioz, gastronomia txapelketetan parte hartzeko irrikan gaudela. Momentuz gainontzeko ekitaldiak ezagutu eta probatu behar ditugu erantzun zehatza emateko.

Zein uste duzue izango dela txosnetan gehien entzungo den abestia?

Oraindik denbora falta da hori jakiteko, baina uste dugu *Potra Salvaje* abestia izango dela, eta, bide batez, aipatu nahi dugu ez dugula batere gustuko.

Zein duzue gustukoen: bafle-poteoa, batukada edo elektrotxaranga?

Guretzat batukada da onena. Komunitatea beste ezerk bezala batzen du. Eskaintzen duen esperientzia fisiko eta emozionala izugarria da, energia handia transmititzen duelako bere estilo musikalarekin. Hala ere, elektrotxarangak eta bafle-poteoak ere indarguneak dituzte. Izan ere, berritzaileak eta modernoak dira. Azkenean, dena norberaren gustuen eta bilatzen duzun esperientzia musikalaren araberakoa da.

Zerk egiten ditu Laudioko jaiak berezi?

Laudioko jaietako berezitasuna kuadrillen lankidetzatik dator. Jaien mamia ez dator ekitaldietatik, baizik eta kuadrillek eta biztanleria osoak ekitaldi hauek hartzeko modutik. Hau da, herriak duen jarrera esango genuke dela Laudioko jaiak bereziak egiten dituen ezinbesteko faktorea.

GAUTXORIAK

Nondik dator zuen kuadrillaren izena?

Berez ez dauka jatorri zehatzik. Baina kuadrillako batek aipatu zuen eta asko gustatu zitzaigun Gautxoriak izena. Azkenean *gautxori* hitzaren bigarren esanahiarekin jolastu nahi genuen (festazaleak) eta parrandarako gogo horiek islatu.

Zein da jaietako egunik onena? Zergatik?

Ez dakigu egunik onena den baina Baserritar egunak zirrara berezia dauka. Goizean merkatua dago eta egun horretan kontzertu oso potenteak egoten dira. Beraz, goiz-goizetik gauera arte ekintza politak daude. Gainera, ostirala izanik, gauean giro nahikotxo dago.

Zergatik erabaki duzue Jai Batzordean parte hartzea?

Gure ustez, Laudioko jaiak disfrutatzea Jai Batzordearen barruan oso ezberdina da, beste mundu bat da. Batetik, antolakuntzaren kontua dago: zure herriko jaien antolakuntzan parte hartzeko eta laguntzeko aukera. Lehen eskutik parte hartzen duzu festen erabakietan.

Bestetik, jai kuadrillekin festetako ekintzetan beste giro bat dago: jai kuadrillekin lehiatzen edo aliatu egiten zara, jende berria ezagutzen duzu eta, horrela, giro nahiko polita lortzen da.

Egitarauko zein ekintzetarako zaudete gogotsuen?

Oro har gehien gozatzen ditugun ekintzak herri bazkariak eta kuadrillok antolatzen ditugun jarduerak izan ohi dira: bingo musikatua, jolasak, ginkanak... giroa sortu eta guztiok elkartzea eragiten duen edozein ekintza.

Normalean antzekoak izaten diren arren, urtero aldaketa txikiak gertatzen dira, berritzaileak, eta aurten are gehiago, atera garen kuadrilla berriak kontuan hartuta.

Zein uste duzue izango dela txosnetan gehien entzungo den abestia?

Baliteke *Potra Salvaje* izatea?

Zein duzue gustukoen: bafle-poteoa, batukada edo elektrotxaranga?

Gure gustukoena elektrotxaranga da! Musika zuzenean eta abesti ezagunak, konbinazio hobezina!

Zerk egiten ditu Laudioko jaiak berezi?

Guk uste dugu bereziena jendea dela. Laudioko eta eskualdeko herritarron disfrutatzeko gogoak ikarragarriak dira eta, horrela, giro alaia, atsegina eta maitekorra lortzen da. Gogoekin eta errespetuz, emaitza onak bermatuta daude!

SAGAZTIAK

Nondik dator zuen kuadrillaren izena?

Ez du jatorri berezirik. Sagazti hitza gustatu zitzaigun bere momentuan, gazteleraz *manzanal* dena, eta gure egiteko *sagazti* bilakatu genuen. Hortik dator Sagaztiak kuadrilla.

Zein da jaietako egunik onena? Zergatik?

Kuadrillen Eguna, kuadrilla guztia elkarrekin bazkaldu eta egun osoa elkarrekin pasatzen dugulako, eta hori geroz eta zailagoa da urteak pasa ahala. Gainera, ekintza eta jokoz betetako eguna da baita ere.

Zergatik erabaki duzue Suziri Jai Batzordean kuadrilla moduan parte hartzea?

Badira pare bat urte kontu honi bueltak ematen hasi ginen, Laudioko jaietan gehiago murgiltzeko helburuarekin, jokoetarako ideia zoro bat edo beste planteatzeko asmoarekin edota kuadrillen bazkarietan parte hartzeko intentzioarekin ere.

Egitarauko zein ekintzetarako zaudete gogotsuen?

Ekintza aldetik, guk antolatutakorako, noski, besteoi ere gustatuko zaielakoan gaudelako eta ekintza berriak ilusio handiagoz disfrutatzen direlako. Kontzertuei dagokionez, Zetak taldea ikusteko gogoz gaude, azken urteetako nobedadea delako.

Zein uste duzue izango dela txosnetan gehien entzungo den abestia?

Eguzkiloreak, *Ardi beltzak*, *Beste behin*, *Tirikitruki*, *Potra Salvaje* eta *Eguzkiaren argia* aipatuko genituzke.

Zein duzue gustukoen: bafle-poteoa, batukada edo elektrotxaranga?

Batukada edo elektrotxaranga biak bikainak dira, sentsazio ikaragarria da kaleetatik kuadrilla eta herritar guztiak elkartuta dantzatzen eta abesten ikustea.

Zerk egiten ditu Laudioko jaiak berezi?

Aiaraldeko handienak direla eta, horrez gain, inguruko jende eta familia kide asko etortzen direla. Bestalde, herriaren historia dago. Euskal Herritik zein Espainiatik etorritako hainbat aitite eta amonei esker, kultur anitz batzen dira herrian eta horrek xarma berezia ematen die festei.



HI MUGI fisioterapia

Andere Ugarriza Lado
3147 zbk
946 72 75 66
689 96 71 74

Zumalakarregi 65, LAUDIO

www.himugifisioterapia.com

Haitzulo barri

40 URTE elkarrekin dantzan

Jaiak gurekin ospatu!

Alberto Acero enparantza, LAUDIO

CEPA LAUDIO AMURRIO HHI

Edozein adina ikasten jarraitzeko aproposa delako

DOAKO IKASTAROAK

MATRIKULA EPEA ZABALIK: Irailaren 2tik 13ra arte

DBH titulua lortzeko ibilbide osoa (hasierako klaseak + DBH)
Testuen irakurketa eta lanketa
Gaikuntza digitala: oinarrizko informatika kontzeptuak ikasi (ziurtagiriarekin)
Hizkuntzak: atzerritarrentzat espainiera, oinarrizko euskara eta oinarrizko ingelesa.
Artea belaunaldiz belaunaldi
Memoria martxan tailerra

Latiorro 8, LAUDIO **94 672 17 34** Astelehenetik ostegunera: 9:00-13:30 Ostiraletan: 14:00ak arte

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO

Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00

75 urte zurekin

PADI PROGRAMA

INPLANTEAK


3D ERRADIOGRAFIAK

ENKARKI
ALQUILAMOS SOLUCIONES VENDEMOS SERVICIO

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA
Eraikuntza, industria, ekitaldiak, lorezaintza eta garbiketa

ONDO PASA JAIETAN!

Arza II industrialdea, LAUDIO · **946 43 00 42** · enkarki@enkarki.net · **www.enkarki.net**

Abuztuak

17 Larunbata
San Rokezar eguna

08:00 **Arrautzopilen eta untxi gisatuaren XLV. Txapelketa Gastronomikoa** (G)
Aldai plaza, Rakataplarekin

09:00 **Kalejira**
Lankaietako Lagunak taldearekin

10:00-14:00 **Umeentzako parkea** (E)
Lamuza parkean

10:00 **Txirrindularitza proba** (G)
Zumalakarregin, Laudioar Txirrindularitza Elkartearen eskutik

11:00 **Ginkana** (E)
Lamuza plazan

11:00 **Familia-gunea: zirku tailerra** (E)
Txosnagunean

11:00 **Diana**
Laudioko Gaiteroak taldearen eskutik

12:00 **Meza**
Lamuzako Done Petri eliza

12:00 **Kalejira**
San Roke Musika Elkartearen eskutik

12:30 **Entzierroak eta bigantxak** (E)
16 urtetik gorakoentzat

12:30 **Animazioa**
Laudioko Gaiteroekin

12:30 **Voces Riberas taldea** (G)
Aldai plazan, Rakataplak antolatuta

13:00 **Musika-poteoa** (E)
Batzalarrin kalean

13:00 **Yogurinha Borova**
Txosnagunean

13:15 **Txirrindularitza probaren amaiera** (G)
Arrañon (sari banaketa Alberto Acero plazan)

14:00 **Atzoko gazteen bazkaria eta dantzaldia** (G)
Institutuko jolastoki estalian

14:00 **Gure gaurko gazteentzako bazkaria (5-16 urte artekoentzat)** (E)
Lamuza parkean

16:00 **Molto GP Txapelketa** (E)
Aldai plazan, Txindoki taldearen eskutik

16:00-18:30 **Umeentzako parkea** (E)
Lamuza parkean

17:00 **Erraldoi eta buruhandien kalejira**
Herriko plazatik, Galtzagorri, Laudioko Gaiteroak eta Lankaietako lagunak taldeekin

18:00 **Cluedo-poteoa** (E)
Txosnagunetik, Bihurriak kuadrillaren eskutik

18:00 **Animazioa**
Laudioko Gaiteroekin

18:30 **GO!azen** (E)
Herriko plazan

19:00 ***LJ 75/ ST 75* antzezlana** (G)
Lamuzako frontoian

19:30 **Burbuilak taldearen kontzertua** (E)
Alberto Acero plazan

20:30 **Alarma Morea taldearen kontzertua** (E)
Alberto Acero plazan

20:30 **Jai tematikoa** (E)
Galtzagorri kuadrilla

21:30 **Matx** (E)
Alberto Acero plazan

22:00 **Beldurraren ibilbidea** (E)
Lamuza parkeko sarreratik. 12-16 urte bitarteko gazteentzat, Oihala Zabaltzen taldearen eta herriko boluntarioen laguntzarekin

23:00 **Kali-pong** (E)
Institutuan, Suziri Jai Batzordearen eskutik

23:00 **Boney M taldearen kontzertua** (G)
Zumalakarregin

23:00 **Txopet, Nakar eta DJ Bitterkas** (E)
Txosnagunean

18 Igandea

10:00 **Ibilgailu klasikoen, kirol-ibilgailuen eta ibilgailu berezien kontzentrazioa** (G)
Aldai plazan, Arkabex San Roke Racing klubarekin

11:00 **Jakemate musika-taldea** (G)
Aldai plazan, Arkupe tabernaren eskutik

1982AN SORTUA
GORKA
• TABERNA •
Jaietan goserik ez
Pintxoak
Eramateko Tortillak
Errazioak
Gauero: Eramateko Bokatak
Batzalarrin kalea 7, LAUDIO 94 672 49 30

TOÑI ARRAINDEGIA
Jai zoriontsuak!
Zubiko Kurajo 2, LAUDIO
toniarraindegia@gmail.com
621 21 65 98 • 650 42 13 51

AUTOBUSES ONIEVA
AUTOBUS - TXIKIBUS - TAXI
Gora Laudioko jaiak!
Jaietan ere kalitatea, erosotasuna eta segurtasuna
Informazioa eta erreserbak: 94 672 64 45
Larrialdiak: 619 76 66 51
71 eserleku arteko autobusak
www.onieva.com onieva@onieva.com

ILARGI TABERNA
Jai zoriontsuak!
Batzalarrin kalea 6, Laudio
94 672 09 99

Virtus FONTANERIA
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA 9:30-13:30 / 15:00-17:00
OSTIRALETAN GOIZEZ BAKARRIK 9:30-13:30
ITURGINTZA-INSTALATZAILE TXARTELA, INSTALAZIO TERMIKOEN INSTALATZE ETA MANTENTZE-LANEN TXARTELA, IG-B GAS INSTALATZAILE TXARTELA, HOZKAILU-SISTEMEN MANIPULATZAILE TXARTELA
ZORU ERRADIATZAILEA, AEROTERMIA ETA BEROGAILUEN INSTALAZIOA
BUXADURAK KENTZEA
UR-JARIOAK ANTZEMATEKO KORRELAZIO AKUSTIKOKO EKIPO TEKNIKOA
GALDARAK ORDEZKATZEA
LAMUZA 21 behea, ezkerra. LAUDIO 690 038 713 fontaneriavirtus@gmail.com

innotu
AHOLKULARITZA - GARAPENA - INTEGRAZIOA
SOFTWARE ETA SISTEMAK
WWW.INNOTU.COM
94 465 95 80
Kit Digitalaren olatura gurekin igo, zure enpresaren digitalizazioa inoiz baino errazago

Abuztuak

21 Asteazkena
Berakatz eguna

10:00 **Aldibereko xake partidak (E)**
Aldai plazan, Laudio Xake Taldeak eta Basalarrinak antolatuta

10:30 **Laudioko jaialdia eskupilota partidak (E)**
Lamuzako frontoian, Herriaren elkartearen eskutik

11:00-14:30 **Txu-txu trena (E)**
Herriko kaleetan barrena

11:00 **3x3 Hockey Txapelketa (E)**
Lamuza parkeko erabilera anitzeko kantxan, Ganbegi 6-2 taldearen eskutik

11:00 **Txupina, kalejira eta luntx herrikoia (E)**
San Roke nagusien egoitzatik, Untzueta taldearen eskutik

11:00 **Familia-gunea: serigrafia tailerra eta jolasak (E)**
Txosnagunean

12:00 **Umeentzako pintxo hotzen lehiaketa (5-16 urtekoentzat, kategoria ezberdinetan) (E)**
Aldai plazan

12:00-18:00 **Scape Room-a (E)**
Lamuza plazan

15:30 **Herri bazkaria (E)**
Lamuza parkean, Suziri Jai Batzordearen eskutik

17:00-19:30 **Txu-txu trena (E)**
Herriko kaleetan barrena

17:00 **XXVII. Sanroke Hockey Txapelketa (E)**
Gardeako kiroldegian, Ganbegi 6-2ren eskutik

17:00 **Padel partida amerikar herrikoiak (E)**
Laudio Padel Klubaren eskutik, Gardean

17:00 **Erraldoi eta buruhandien kalejira (E)**
Herriko plazatik, Galtzagorri, Laudioko Gaiteroak eta Lankaietako lagunak taldeekin

17:00 **Flan-xurga lehiaketa (E)**
Lamuza parkean, Hontzak kuadrillaren eskutik

18:00 **Animazioa**
Laudioko Gaiteroak taldearen eskutik

18:30 **Dantza plaza**
Eingo taldearekin (E)
Aldai plazan

19:00 ***Historias de dos* dantza emanaldia (E)**
Lamuza plazan

19:00 ***Asfaltoaren azpian, euria* antzezlana (1. saioa) (E)**
Lamuzako frontoian, Piszifaktoria Ideien Laborategiaren eskutik

19:00 **Kantukada (E)**
Parketik

20:30 **Altzar Hadi taldearen kontzertua (E)**
Alberto Acero plazan

21:00 ***Asfaltoaren azpian, euria* antzezlana (2. saioa) (E)**
Lamuzako frontoian, Piszifaktoria Ideien Laborategiaren eskutik

21:30 **Koadriga-lasterketa (E)**
Txosnagunean

22:00 **Pirulo Txou ikuskizuna (G)**
Herriko plazan

23:00 **Zumba (E)**
Txosnagunean

ALMACÉN PINTURAS
REGUERA
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
Zumalakarregi 19, behea
94 672 82 74
Pol. Ind. Gardea 4
94 672 81 22
www.pinturasreguera.com

JAI ZORIONTSUAK!
babiotec®
suministros
Industriarako hornidura integrala
Laudioko industrialdea 3-1 pab., Laudio / 945105479
babiotec@suministrosbabiotec.com / www.suministrosbabiotec.com

Suziri
jai batzordea
Laudioko jaiak, herritik gertuago
@laudiokojaibatzordea · laudiokoordinakundea@gmail.com

Egitaraua

Abuztuak

22 Osteguna
Kuadrillen eguna

10:00-14:00 **Umeentzako parkea (E)**
Lamuza parkean

11:00-14:00 **Zezen mekanikoak, erratz-makinak eta surf taula (E)**
Herriko plazan

11:00 **Familia-gunea: ohe elastikoak eta ur-jolasak (E)**
Txosnagunean

12:00-18:00 **Scape Room-a (E)**
Lamuza parkean

13:00 **Abarka jaurtiketa (E)**
Aldai plazan, Eztandak kuadrillaren eskutik

13:00 **Bilbotxeros Band musika taldearen kontzertua (G)**
Alberto Acero plazan

14:30 **Kuadrillen bazkaria (G)**
Aldai plazan, Suziri Jai Batzordeak antolatuta, Bilbotxeros Band-ekin

16:00 **Laudio's Got Talent (E)**
Aldai plazan, Ainubeak kuadrillaren eskutik

16:30-19:00 **Umeentzako parkea (E)**
Lamuza parkean

18:00 **MHK (Muturreko herri-kirolak) (E)**
Zezen-plazan, Zoroak Inkurtul Taldearen eskutik

18:00 **Animazioa**
Laudioko Gaiteroak taldearen eskutik

19:00 ***Benditas* antzezlana eta *Shot the target* dantza emanaldia (G)**
Herriko plazan

19:00 **Umeentzako emanaldia Gora Bihotzakekin (E)**
Lamuza plazan

19:00 **Zaldi-probak: San Roke Saria (E)**
San Roke probalekuan, Lauzaldi Kirol Klubaren eskutik

19:00-22:00 **Indarkeria matxista prebenitzeko Beldur Barik mahai informatiboak (E)**
Batzalarrin kalean

20:00 **Kalejira (E)**
Zezen-plazatik, Okerrak kuadrillaren eskutik

20:00 **Mariachis Los Tenampas taldearen emanaldia (G)**
Alberto Acero plazan

20:30 **Plancton taldearen kontzertua (E)**
Batzalarrin kalean, Ilargi eta Gorka tabernen eskutik

21:00 **DJ Blessive (E)**
Aldai plazan

23:00 **Tremenda Jauria taldearen kontzertua (G)**
Herriko plazan

23:30 **BOTH, Moonshine Wagon eta Muxutruk erromeria (E)**
Txosnagunean

bonaire
disco bar
Zure disko-taberna!
Zumalakarregi etorbidea,
LAUDIO // 946 72 58 41
Jarrai gaitzazu! @bonaire.laudio

AIALA
MATERIALES DE CONSTRUCCIÓN
www.mcaiala.com
ZURE ETXEKO ERABERRITZEA
ERREALITATE BIHURTZEN DUGU
Eraikuntza materialak
Iturgintza eta Berogailua
Sukaldeak
Komun-ontziak eta hidromasajea
Keramika
Tximiniak
Pellet berogailuak
Komuneko altzariak eta osagarriak
Burdinak eta sare-begiak
Keraben
TEJAS BORJA
Aldaiturriaga poligonoa z/g, 01470 Amurrio (Araba) · Tel. 945 89 11 41 · aiala@mcaiala.com

etxaurre
inmobiliaria
20 urte zurekin
Pisuak
Txaletak
Lokalak
Lursailak
Balioespenak
94 672 85 50
BEZEROENTZAKO ARRETA
Zumalakarregi 38
01400 Laudio
Ondo pasa jaietan!

PROIEKTA estudio
DISEÑO DE INTERIORES
Berriztatze integralak
Sukalde eta komunen berrikuntzak
Neurrira egindako altzariak
Dekorazioa
Elexondo kalea 22, AMURRIO
Tel. 606 918 74

autocares Sobrón
www.sobronbus.eus
Jaietan ere, zurekin

kafe iluntze
LAUDIOKO JAIAK GOZATU
GORA SANROKEAK!
Zumalakarregi Etorbidea, 47
01400 Laudio - Araba
kafeiluntze@gmail.com 946725023

BERRIZ KARGATZEKO AUDIFONORIK ONENA
WIDEX SOINUAREKIN
37 orduko autonomiadun audifonoa
7 eguneko autonomiadun kargagailua
Aural
CENTROS AUDITIVOS
Premium Partner
LUYANDO ENTZUMEN ZENTROAK
Orduña. Barria, 7. T. 945 384 499
Vitoria. Calle de Postas, 48. T. 945 286 366
Amurrio. Elexondo, 1. T. 945 892 422
Llodio. Batzalarrin Kalea, 3. T. 944 042 286

Abuztuak

23 Ostirala
Baserritar eguna

09:00 **Tokiko ekozileen eta artisauen azoka (E)**
Aldai plazan eta Herriko plazan

11:00 **Kalejira Joaldunekin**
Herritik

11:00 **Umeentzako herri-kirol jolasak (E)**
Zumalakarregin

11:00 **Familia-gunea: puzgarri eta jolasak (E)**
Txosnagunean

11:00 **Seniorren eta emakumezkoen San Roke bolakeku sari handia (E)**
San Roke udal-probalekuan, Ruperto Urquijo Bolatoki Klubaren eskutik

11:00-22:00 **Scape Room-a (E)**
Lamuza plazan

12:00 **Itxarkundiaren dantza erakustaldia (E)**
Aldai plazan

12:00 **Musika animazioa trikiti doinuekin (E)**
Herriko kaleetan

12:00 ***Pro Kulturala (A) Lab Laudio* erakusketaren inaugurazioa (E)**
Kulturlaben lokalean

12:30 **Entzierroa eta bigantxak (E)**
16 urtetik gorakoentzat

13:00 **Musika animazioa Kittu taldearekin (E)**
Herriko kaleetatik

13:00 **Igel-toka Txapelketa (E)**
Batzalarrin kalean, Basalarrinak antolatuta

13:00 **Pintxo-dastatzea (E)**
Lamuzako Done Petri Elizan, Zintzarriak kuadrillaren eskutik

14:30 **Herri bazkaria (E)**
Institutuko jolastokian, Zintzarriak kuadrillaren eskutik. Txartelak goizeko hamarretatik aurrera egongo dira salgai

16:30 **Gynparta (E)**
Aldai plazan, Txinpartak kuadrillaren eskutik

17:00 **Erraldoi eta buruhandien ibilaldia**
Galtzagorriren, Lankaietako Lagunen eta Laudioko Gaiteroen laguntzarekin

17:30 **Zirkinik Bez taldearen musika emanaldia (E)**
Herriko plaza

18:00 **Seniorren eta emakumezkoen San Roke Bolaleku Sari Handia (E)**
San Roke udal-bolalekuan, Ruperto Urquijo Bolatoki Klubaren eskutik

18:00 **Animazioa**
Laudioko Gaiteroak taldearen eskutik

18:30 **Artzain-txakurren Bixente Urkijo erakustaldia (E)**
Lamuza parkean, Arate Elkartearen eskutik

18:30 ***Pro Kulturala (A) Lab Laudio* erakusketa (E)**
Kulturlaben lokalean

19:00 ***Izarren Hartza* antzezlana (E)**
Lamuza parkean

19:00 **Idi-probak (E)**
San Roke probalekuan, Lauzaldi Kirol Klubaren eskutik

20:00 **Korrontzi Band eta San Roke Musika Elkartearen kontzertu bateratua (E)**
Alberto Acero plazan

20:00 **Kalejira eta bokatada (E)**
Aldai plazatik abiatuta, Itzelak kuadrillak antolatuta

23:00 **Zetak taldearen kontzertua (E)**
Zumalakarregi etorbidean

23:00 **Eire, Guda Dantza eta Xaukena Xauk taldeen kontzertua (E)**
Txosnagunean

OKINDEGIA - PANADERIA
IZA
DESDE 1956

GORA OGI OSASUNTSUA!

Kurtzegan, 3 · Tel. 946 61 00 68
OROZKO
Zumalakarregui, 30
Tel. 946 72 84 94
LAUDIO

okindegiaizahnospanaderia@gmail.com @panaderiaiza @iza_okindegia_panaderia

SURYA
Masaje terapeutikoak
Masaje lasaigarriak
Aurpegi-tratamenduak
Gorputz-tratamenduak
Estetika-tratamenduak
Etxez etxeko makillajea
Jai zoriontsuak!
Zumalakarregi 28, LAUDIO · 944 030 362
688 887 950 @SuryaLlodio

KOPAS
IDEIAK GAUZATZEN DITUGU
Gora Laudioko jaiak

Aialako Industrialdea, 8
01479 Murga - Aiara
fabrica@kopas.es
Tfno. 945.39.94.05

www.kopas.es

Alda. Urkijo, 88 -2º
48013 Bilbao
kopas@kopas.es
Tfno. 94.442.22.24

IZA
igogailuak
www.izaascensores.es 94 672 21 52
@izaascensores

AZOKA

Giro lasaiaz eta koktel paregabeaz gozatu

Mundu osoko artisau-garagardoak

Kafe karta, smoothiak, irabiaki naturalak, infusioak, te hotzak, txokolateak...

Alberto Acero enparantza 13 (Laudio) 94 672 42 13 @azokakafebar

OBRA BERRIA eta ERABERRITZEAK
BASARTE, S.L.
ERAIKUNTZAK ETA HONDEAKETAK
35 urte baino gehiagoko esperientzia
Zeramika eraikuntza, LAUDIO / basarteconst@telefonica.net
94 672 12 58 · 945 89 20 19 · 609 400 135

Zubiko Kurajo 2, LAUDIO EGIN ZURE ESKAERA: 94 672 03 91 - 620 01 41 74

Egitaraua

Abuztuak

24 Larunbata
Odoloste eguna

11:00 **Orientazio-probak (E)**
Herriko Plazatik

11:00 **Familia-gunea: umeentzako jolasak (E)**
Txosnagunean

11:00 **Diana**
Laudioko Gaiteroak taldearen eskutik

11:00-22:00 **Scape Room-a (E)**
Lamuza plazan

12:00 **Kalejira kubatarra (G)**
Herriko kaleetan, Baisalaren eskutik

12:00 ***Pro Kulturala (A) Lab Laudio* erakusketa (E)**
Kulturlaben lokalean

12:30 **Entzierroa eta bigantxak (E)**
16 urtetik gorakoentzat

12:30 **Animazioa**
Laudioko Gaiteroak taldearen eskutik

13:00 **Gildas musika taldearen kontzertua (G)**
Alberto Acero plazan

13:00 **Animazioa (E)**
Arloteen eta Ekin Joleak txistulari taldearen eskutik

13:00 **Erruki Jauna**
Donde Yuri tabernan

13:00 **Wallas Magoa**
Txosnagunean

16:30 **Bola-joko arabarra: San Roke Txapelketa (E)**
Lamuza parkeko bolalekuan, Laudioko Pasabolo Klubaren eta Bolo Alavés taldearen eskutik

17:00 **Erraldoi eta buruhandien kalejira**
Galtzagorriren eta Laudioko gaiteroen eskutik

17:00 **San Roke Txapelketa: Athletic Club-Bizkerre (E)**
Ellakuriko futbol zelaian, Altzarret Kirol Elkartearen eskutik

18:00 **Animazioa**
Laudioko Gaiteroekin

18:30 ***Pro Kulturala (A) Lab Laudio* erakusketa (E)**
Kulturlaben lokalean

19:00-22:00 **Beldur Barik: Jaietan indarkeria matxista prebenitzeko mahai informatiboak (E)**
Batzalarrin kalean

18:00 **DJ Alta (G)**
Zubiko malekoian

19:00 **Odoloste-jana (G)**
Institutuan, Erroke Deuna Kofradiak antolatuta

21:00 **Kalejira punkzaharrak elektrotxarangarekin (G)**
Herriko kaleetan

22:00 ***Círculo* antzezlana (G)**
Alberto Acero plazan

23:00 **Estrella del norte orkestraren berbena (G)**
Herriko plazan

00:00 **Preso eta iheslarien aldeko kalejira**
Geltokiko zubitik

00:15 **Kalejira (E)**
Aldai plazatik, Intziriak kuadrillaren eskutik

01:00 **DJ Bad Sound Sister eta DJ Reimy (E)**
Txosnagunean

25 Igandea
Kofradiaren eguna

11:00 **Jolas tradizionalak (E)**
Lamuza plazan, Kirikiñoren eskutik

11:00 **Animazioa**
Laudioko Gaiteroen eskutik

11:00 **Prozesioa eta meza (E)**
Santa Luzia abesbatzaren eta Ekin Joleak taldearen emanaldiekin

12:00 **Animazioa**
Laudioko Gaiteroak taldearen eskutik

12:00 ***Pro Kulturala (A) Lab Laudio* erakusketa (E)**
Kulturlaben lokalean

12:00 **Erraldoien elkarretaratzea**
Herriko plazan

12:30 **Entzierroa eta bigantxak (E)**
16 urtetik gorakoentzat

12:30 **Animazioa**
Laudioko Gaiteroak taldearen eskutik

12:45 **San Roke musika elkartearen kontzertua**
Aldai plazan

13:00 **Musika-animazioa Euskorleans**
Herriko kaleetan

14:00 **Erroke Deuna kofradiaren bazkaria (G)**
Institutuan

17:00 **Erraldoi eta buruhandien kalejira**
Galtzagorriren eta Laudioko Gaiteroen eskutik

18:30 ***Pro Kulturala (A) Lab Laudio* erakusketa (E)**
Kulturlaben lokalean

20:30 **Joselu Anayak taldearen kontzertua (E)**
Alberto Acero plazan

23:30 **Kalejira eta Roketxu maskota erretzea (E)**
Herriko plazan
Ñorrala kuadrillarekin

00:00 **Jaien amaiera txupina**

EUSKAL HERRIA

Esperantzaren nazioa.

GORA HERRI JAIAK!

ehbildu

Kaos Etiliko, Zinkha, Walter Ego eta Periferia Latiorroko jaietan

Larunbateko auzo bazkaria izan ohi da jaien jarduerarik arrakastatsuenetako bat. **Aiaraldea.eus**

Irailaren 13tik 15era ospatuko dira Latiorroko jaiak aurten. Oraindik ez dute behin betiko egitaraua plazaratu, baina hainbat kontu aurreratu dituzte antolatzaileek. Bi berrikuntza nagusi nabarmendu dituzte: "Latiorro eskolaren eta Jesuri Guraso elkartearen inplikazioa gora doa: ardo dastatzea antolatuko dute lehenengo aldiz ostiralean", azaldu dute. Horrez gain, "larunbateko herri bazkariaren osteko orduak indartu" egingo dituzte baita ere, batukada eta txapel jaurtiketa antolatuta.

Baina ez dira faltako ohiko jarduerak ere. Ostiralean familientzako ikuskizuna egongo da Traka Matrakaren eskutik, birziklatutako musika tresnak baliatuta. Larunbat goizean Elorritxuganera Mendi Martxa egingo dute. Irailaren 1etik aurrera irekiko dute izen ematea, Kirolprobak.com webgunean. Igandean, aldiz, ohiko marmitako txapelketaren XXXIII. edizioa egingo dute.

Musika eskaintza

Musika eskaintzari dagokionez, ohiko eskema mantenduko dute, tokiko sortzaileei lekua eginez. Gauzak hala, ostiralean Zinkha talde aiaraldearra izango da oholtzara igotzen lehena, Kaos Etilikoren txanda izango da gero, eta DJ Teso laudioarra arduratuko da gaua ixteaz.

Larunbatean aldiz, Walter Ego talde laudioarrak joko du lehenbizi, eta ondoren arituko da Periferia boskote kataluniarra. Jarraian, Gautaegun erromeria eta DJ Masa egongo dira, goizeko ordu txikiak arte. Gauargi erromeria, aldiz, igandea girotzeaz arduratuko da.

Jai batzordeak 10 urte

Egungo jai batzordeak 10 urte bete ditu jaien antolakuntzan murgilduta. Kide berri ugari batu dira bidean, baina nabarmendu dute ongi etorria izango dela "belaunaldi berrien, ostalarien eta auzoko talde guztien parte hartzea". Bi modu daude batzordera batzeko: mezua bidaltzea lateorroko.jaiak@gmail.com helbide elektronikora, "edo irailean auzora hurbiltzea".

@centroyaso
Yaso
YASONE MEABE
· Masaje eta osteopatia zentroa · Estetika ·
· KAE saioak (Kundalini activation), Breathwork eta LNT ·
Baias 7, Laudio 688 696 619
BELÉN ANDRÉS
Psikologia eta Mindfulness
Hazkunde pertsonaleko ikastaroak
665 714 596

indriska
c/ Zumalakarregi 39 · 946 72 28 62
Jaietan ere, egin gurekin topa!

egoki
FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA
· Fisioterapia funtzionala · Osteopatia ·
· Masaje terapeutikoa · Drenaje linfatikoa ·
· Zoru pelbikoa · Edozkitzea ·
· Etxez etxeko zerbitzua ·
· Amatasun eta erditzeondoko prestaketa ·
Maestro Elorza Kalea 5, Laudio (tren geltokitik hurbil)
T 945 561 951 · M 605 446 628

ODEIBAR
GARAGARDOTEGIA
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!
Ezagutu gure menua
· Espezialitateak: oilaskoa, txerri-ukondoa eta katxopoa.
· Etxera eramateko janaria
· Taldeentzako menuak
ALDAPETA 2, LAUDIO · 94 672 06 83
EZAGUTU GURE TERRAZA!

HOTEL ORDUÑA PLAZA
****
Balneario
Areto desberdinak ekitaldi berezientzako
(ezkontzak, bilerak, jaunartzeak...)

Erlaxatu etxetik gertu
Foru plaza, URDUÑA · Tel. 945 56 90 38
info@hotelordunaplaza.com
DOAKO APARKALEKUA
@hotelordunaplaza

RESTAURANT

Orozkoko jaiak

Abuztuaren 30etik irailaren 4ra

Aitor Iza
OROZKOKO ALKATEA

Urtero lez, abuztuaren amaieran hasten direz orozkoarrek urte osoan zehar itxoiten dauriezen datak. Abuztuaren 30ean, arratsaldeko zazpiretan herritarrek zapia jantziko daurie eta festak Zubiaurren murgilduko direz bost egunetan zehar.

Aurton, lehen aldiz jai osoak, Udaleko lantalde barriak eratu dauz. Eskerrak emon behar dizkiegu orozkoko auzokideei, azalaraztu duten interesangatik, partaidetzagatik, gogoengatik, lana egiteko asmoarengatik eta jai hauekiko maitasunarengatik. Jai batzordeetan emondako aholkuak premiazkoak izan direz, baita kalean eta udaletxean eginiko gomendapenak ere.Betikolez, danatarik dogu festetan. Musika talde paregabeak, erromeriak, kalejirak, bertso poteoa, zekorketa, garrafea, marmitakoa, dantzak, mozorroak, pilota eta pala partiduak, bigantxak, joko potea eta erosi ezin direzen algarak, momentu onak eta bizipenak.

Badakit ez dozuela hutsik egingo. Orozkoko ateak irekita dauz gozatzera datozenentzako. Errespetuz bizi nahi doguz jaiek eta espero dot zauek be horen lekukoak izitea, orozkoarren kabian hamaika bat gautxori sartzen direz eta. GORA OROZKO ETA SAN ANTOLINAK!!

San Antolinak suten!!

“Pregoilariak izateak esker ona eta errekonozimendua suposatzen du”

JUBILATUEN ELKARTEKO BATZORDEKO KIDEAK izango dira aurtengo sanantolinetako pregoilariak. berrehun bazkide baino gehiago ordezkatuko dituzte, eta errelebo bila dabiltza. Duela hiru urte eratu zuten batzordea lokala ixtea ekiditeko. Izan ere, lokala itxi, GKE bati dirua eman eta herria elkargunerik gabe uztea erabaki zuten aurreko batzordeak eta lehendakaritzak.

Aurten Jubilatuen Elkarteko Batzordeko kideak izango zarete pregoilariak, aitortza suposatzen du horrek? Horrela hartu duzue?

Esker ona eta errekonozimendua suposatzen duela uste dugu. Guk ez genuen inoiz pentsatu elkartearen ardura hartzea. Baina lokala ixten ari zela ikusita, eta inork hartu nahi ez zuenez, gure kargu hartu genuen. Beste ezer baino gehiago, pertsona batzuk etxean geratuz gero, ez direlako berriro ateratzen. Topagune bat da, eta alde ludikoaz gain, jende askori oso ondo datorkio sozializatzeko.

Lokala, esan bezala, ixtera zihoan. Aurreko lehendakaritzak eta batzordeak dimisioa eman zuten hamar urte zeramatzatelako eta nekatuta zeudelako. Itxi, GKE bati dirua eman eta herria elkargunerik gabe uztea erabaki zuten. Dirua nori eman erabaki behar zen egun berean hartu genuen batzordearen ardura, boluntarioak gara denak. Bide honetan ahalegin guztiak egin ditugu lana ondo egiteko eta gauza berriak egiteko.

Noiz eratu zenuten batzordea, eta ondorioz, elkartearen ardura?

Duela hiru urte hasi ginen elkartzen eta ez genuen harremanik aurretik, bistaz baino ez genuen elkar

ezagutzen. Elkartu ginen ezin genuelako lokala ixten utzi, beharrak batu gintuen.

Nola jakin duzue pregoilariak izango zaretela? Eta zelan hartu duzue?

Ea pregoilariak izateko prest geunden galdetu ziguten lehenengo, eta behin baiezkoa emanda, proposatu gintuzten. Ohoretuta sentitzen gara, eta berrehun bazkide baino gehiagoren ordezkariak izango gara, horrek bultzatu gaitu baiezkoa ematera.

Zein da zabaldu nahi duzuen mezua?

Jendea animatu dadila batzordean gure erreleboa hartzera, guk datorren urtean utzi egingo dugulako, eta denok pasatu behar gara hemendik, guztiona eta guztiontzat delako. Guk orain zaintzen dugun bezala, guk ere zaindu gaitzaten nahi dugu. Konpromisoa eskatzen dugu, guk ere, aldez edo moldez, gure bizitza dugulako. Erretiratuta bagaude ere, gu gara lanpetuenak. Kontuan izan behar da guk kudeatzen dugula guztia.

Nork irakurriko du pregoia?

Lehendakariak batez ere, baina denon artean egingo dugu. Dena egiten dugu denon artean.

Jaietatik harago, zein da zuen jarduna urtean zehar?

Erretiratuen elkartearen jarduera nagusia txangoak dira, bi hilean behin txango bat egiten dugu. Horretaz gain, ostegun, larunbat eta igande arratsaldeetan irekita egoten da lokala kafea hartzeko, kartetan jokatzeko...

Bestalde, feldenkrais egiten dugu, mugitzeko arazoak dituzten pertsonek ere egin ahal duten gimnasia mota. Eta hileko azken igandeetan txokolate janarekin ospatzen ditugu hilabete horretako urtebetetzeak.

Santa Luzia egunean, aldiz, urtean hil diren guztien omenezko bazkaria eta meza ere egiten ditugu. Oso giro ona dago, eta hori da garrantzitsuena.

Abuztuak

(E) **Euskara hutsez**
(E) **Nagusiki euskaraz**
(E) **Elebiduna**
(G) **Nagusiki erdaraz**
(G) **Erdara hutsez**

30 Ostirala
Txupinazo eguna

19:00 **Txupinazoa, kanpai hotsak eta buruhandiak (E)**
19:05 **Eskupilota eta eskola-pala partidak (E)**
Plazako frontoian, Olgetan elkartearen eskutik
19:15 **Bilbotxeros Band (E)**
20:00 **Sardinak (E)**
Supelaurren txosnaren ondoan, Supelaur Kultur Elkartearen eskutik
21:30 **The Noa Hell Drinkers (E)**
Zubiaur plazan
23:30 **Urrats erromeria (E)**
Zubiaur plazan
02:00 **Dj Blessive (E)**
Zubiaur plazan

Abuztuak

31 Larunbata

10:00 **V. Orozko Harana kaleko pintura lehiaketa (E)**
Museoan
10:00 **Marmitako txapelketa (E)**
Eskolako patio estalian, Orozkoko EAJ-PNVren eskutik
11:30 **Dantza plaza Eingo taldearekin (E)**
Zubiaur plazan
13:00 **Bertso saioa (E)**
Zubiaur plazan, Potolari bertso eskolaren eskutik
17:00 **Futbol partiduak (E)**
Ibaiondo zelaian, Atxulaur elkartearen eskutik
17:00 **Mus txapelketa (E)**
Batzokian Orozkoko EAJ-PNVren eskutik
18:30 **Ezker pareta finala (E)**
Plazako frontoian, Ezkerparetaren eskutik
22:00 **Irrintzi lehiaketa (E)**
Zubiaur plazan, Supelaur kultur elkartearen eskutik

22:00 **Arene 6ren kontzertua (E)**
Gorbeia kalean
23:00 **The Golden Covers (E)**
Zubiaur plazan
00:00 **La Fugaren kontzertua (G)**
Gorbeia kalean
00:30 **Zirkinik Bez (E)**
Zubiaur plazan
03:00 **DJ AZID (E)**
Zubiaur plazan

Abuztuak

01 Igandea
Jubilatuen eguna

10:00 **Kalejira Betijai fanfarrearekin**

11:00 **Meza (E)**
San Juan parrokian

11:30 **Swing Master Class-a (G)**
Lehendakari Aguirre plaza

12:00 **Zekorrak zezen plazara etortzea (G)**
Zezenzaleen taldearen eskutik

13:00 **Vermut Swing (G)**

14:30 **Mus txapelketan izen ematea frontoian (E)**
Ezkerparetak antolatuta

14:30 **Bazkaria jubilatuentzat (E)**
Eskolan

18:00 **Areto dantzak Baisalarekin (G)**
Zubiaur plazan

18:00 **Zezenketak (G)**
Toreroak: Julio Méndez eta Javier Hurtado

20:00 **Golden Apple Quartet (E)**
Zubiaur plazan

21:30 **Ubixetaren dantzaldia (E)**
Zubiaur plazan,
Ubixeta dantza taldearekin

23:00 **Joselu Anaiak (E)**
Zubiaur plazan

Irailak

02 Astelehena
San Antolin

10:00 **Kalejira Beti Jai fanfarrearekin**

11:00 **Meza (E)**
San Antolin ermitan

11:00 **Garrafa erakusketa eta lehiaketa**
Zubiaur plazan, Garrafa elkartearen eskutik

11:30 **Emakumezko seniorren gomazko paleta partidak eta gizonezkoen eskupilota partidak (E)**
Plazako frontoian, Xala eta Pascual profesional ohien parte hartzearekin, Olgetan elkartearen eskutik

12:00 **Zekorrak zezen plazara ateratzea**
Zezenzaleen taldearen eskutik

18:00 **Zezenketak (G)**
Toreroak: Julio Norte eta Eduardo Ruiz De Velasco

18:00 **Orkresta elektrotxaranga (E)**

20:00 **Los Tenampas (G)**
Zubiaur plazan

23:00 **Trikizio (E)**
Zubiaur plazan

Irailak

03 Asteartea
Umeen eguna

11:00 **Umeen marrazki lehiaketa (E)**
Zubiaur plazan

11:00-14:00 **Umeentzako jolas parkea (E)**
Zubiaur plazan
Nerabeentzako jolas parkea (E)
Igerilekuetan

14:00 **Umeentzako bazkaria (E)**
Eskolan

15:00-18:30 **Umeentzako jolas parkea (E)**
Zubiaur plazan

16:00-19:30 **Nerabeentzako jolas parkea (E)**
Igerilekuetan

18:30 **Garagardo dastatzea (E)**
Ezkerparetaren eskutik

19:00 **Mozorro lehiaketa (E)**
Zezen plazan, Antolinzaleak jai batzordearen eskutik

20:30 **Txiki Irrintzi Lehiaketa (E)**
Plazan, Agate deuna abesbatzaren eskutik

21:30 **"Goazen" karaokea (E)**
Plazan

Irailak

04 Asteazkena
Berakatz eguna

10:00 **Kalejira Samasiku** (E)

12:00 **Joko poteoa** (E)
Ezkerparetaren eskutik

15:00 **Herri bazkaria** (E)
Eskolako patio estalian. Tiketak museoan salgai abuztuaren 19tik aurrera

18:00 **Broken Brothers**
Zubiaur plazan

19:00 **Bigantxak** (E)
Zezen plazan, zezenzaleen taldearen eskutik

21:00 **DJ K** (E)
Zubiaur plazan

00:00 **Jai amaiera**

Ibarra Abuztuak

14 Asteazkena

17:00 Txupinazoa
18:00 Mus eta briska txapelketa
21:00 Txorizoa doan
22:00 Beranduegi erromeria

15 Osteguna
Andra Mari

12:00 Meza nagusia
13:00 Trikipoteoa
15:00 Herri bazkaria
Tiketak: 15 euro
16:30 Bingoa
17:00 Mozorro festa
Ez da lehiaketa izango.
Gaia: "Ibarra West"
20:00 Eingo taldea
21:00 Saiheskia doan
22:30 DJ Deejay_Imanol

16 Ostirala
San Roke
(Umeen eguna)

12:00 Meza nagusia
12:00 Paella txapelketan izena ematea
11:00 Puzgarriak eta jolasak
14:30 Paellen aurkezpena
17:00 Igel txapelketa
18:00 Bits jaia
19:00 Txokolatada
20:00 Haurrentzako disko dantza
21:30 Arrufiaren zozketa eta jaien bukaera

Goikiri Irailak

21 Larunbata

17:30-19:30 Egurrezko jolasak
Adin guztientzat
19:30 Sagardo dastatzea
Sagardotegiko pintxo tipikoekin. Tiketak 4 eurotan salgai Donde Segundo-n eta Generali Seguros-en
20:30 Afari popularra
22:00 DJ Arriaga

22 Igandea

10:30 Jaiaren hasieran
Trikitiarekin
12:00 Meza nagusia
Goikiriko hilen alde
12:00 Puzgarriak
13:00 Euskal dantzak
Untzueta taldearekin
13:15 Boleto errifa
13:30 Tortilla eta paella aurkezpena
17:00 Txokolatada
17:15 Herri kirolak
18:00 Irrintzi txapelketa
18:30 "Los Gavilanes" mariatxiak

Beraza
Irailak

26 Osteguna

19:00 **Lehen suziriaren jaurtiketa eta kanpai hotsa**

27 Ostirala

17:30 **Kalakan egurrezko jokoak eta graffiti tailerra**

18:30 **Pontxa ta flobin**
Umeentzako ikuskizuna. Ondoren, **txokolatea** ume guztientzako

21:00 **Beranduegi erromeria**
Bitartean **sardina dastatzea**

28 Larunbata

14:30 **Herri bazkaria**
Ondoren **bingoa**

17:30 **XXVII. Mus Azkar Txapelketa**

18:30 **Las Felliniren ikuskizuna**

21:30 **Joselu Anayak taldearen kontzertua**
Ondoren musika emanaldia **DJK**ren eskutik

29 Igandea
San Miguel

11:00 **XVII. Paella txapelketa**
Sariak:
1. 80 € eta oparia.
2. 40 € eta oparia.
3. 20 € eta oparia
Goizean zehar kalejira **Soplagaitak** girotuta

12:00 **Mikel Deunaren omenezko meza santua**
Meza ostean **euskal dantzak Ubixeta taldearen eskutik**

13:30 **Paellen aurkezpena eta sari banaketa**
Ondoren zozketaren zenbakia aterako da. Bazkalostean **bingoa eta aulkien jokoa** egongo dira

Artziniegako jaiak

Abuztuaren 30etik irailaren 8ra

Joseba Vivanco
ARTZINIEGAKO ALKATEA

Beti esaten dut Artziniegako jaiak ez direla besteak baino hobeak edo okerragoak. Gureak dira, besterik gabe. Eta, beraz, onenak. Eta onenak dira eta izango dira, bakoitzak helburu horrekin egiten badio aurre gure jaiei. Jai herrikoiak direlako, beren adierazpen gorenean. Jendeak antolatuak, jendeak aurrera ateratakoak eta jendeak gozatutakoak. Eta horregatik jakin behar dugu parte-hartze hori ezean, jai onenak izateari utziko lioketeela. Artziniegakoak oso jai parte-hartzaileak direlako eta parte-hartze hori funtsezkoa delako. Horregatik, parte hartzera animatzen zaituztet, bakoitzak nahi duen ekintzetan, parte-hartzea dibertitzea eta gure jaiak bizirik mantentzea delako. Jaiak ez dira hesitik ikusteko. Parte hartu. Eta gozatu, lagundu, errespetatu. Jai parte-hartzaileak nahi ditugu, baina baita besteekiko geroz eta errespetu gehiago dutenak ere. Jai batzuk zeintzuetan eraso matxistek, diren motakoak direla ere, tokirik izango ez duten. Eta jai batzuk zeintzuetan kale eta tabernetan euskararen presentzia gero eta ohikoagoa izango den. Horregatik, Udal gisa bat egin dugu Gora Aiaraldeko Jai Euskaldunak! ekimenarekin, jaietan euskara sustatzeko. Parte-hartzaileak, herrikoiak, eraso sexistarik gabeak eta euskaldunak. Gora Artziniegako Jaiak!

Ez onenak ez txarrenak, gureak

ARTZINIEGA
UDALA

“Kuadrillarik gabe ezingo litzateke jaien egitaraua egin”

Abuztuaren 30etik irailaren 8ra ospatuko dira aurten Artziniegako jaiak. Bederatzi egunez adin guztietarako egun eta ekintzak antolatu dira, baita sorpresaren bat ere. **EDGAR HERNANDEZ** jai batzordeko kideak xehetasunak eman ditu.

Jaiei esker uda luzatu egiten da Artziniegan.

Bai. Aurten abuztuaren 30ean hasiko dira, oraindik haurrek ez dute eskola hasi, beraz, aste osoa dugu antolatuko diren ekintzez gozatzeko.

Prestaketa orain arte zelakoa izan da?

Asanblada irekiak egiten aritu gara nahi duenak parte hartu zezan, eta lantalde bat osatzen saiatu gara ere lanak eta ardurak banatzeko.

Egun, zenbat kide zaudete jai batzordean?

Orain bi pertsona gaude. Jendea bilatzen saiatzen ari gara, eta horregatik sortu dugu lantaldea, haiei jaietako zeregin batzuk emateko. Lantalde horretan jendea sartzea nahi dugu, etorkizunean jaien ardura har dezaten. Nik bost urte daramatzat eta dagoeneko aldaketa behar da, jende gaztea etorri behar da eta beraiek arduratu behar dira. Jende gazterik gabe ez dago jairik.

Zein da jaietako ekintzarik gogokoena herritarren artean?

Hemen jendeari gehien gustatzen zaizkion ekimenak play-backa eta bonbonen lasterketa dira. Urte asko daramatzagu play-backa egiten eta urtetik urtera gero eta jende gehiagok parte hartzen du, aparkalekua bete

egiten da. Bestalde, iaz 20 urte bete zituen bonbona lasterketak, eta jendeari gustatzen zaio, goiko kalea betetzen jarraitzen da eta jendeak parte hartzen jarraitzen du.

Kuadrillek protagonismo handia izan ohi dute jaietan.

Hemen kuadrilla guztiek jarduerak egiten dituzte, eta aspalditik antolatzen dituzte jarduerak. Prakanasaiak kuadrillak, adibidez, kulero eta galtzontzillo lasterketa antolatzen du; eta Goma Biko kuadrillak, berriz, tabernaz taberna eta bonbona lasterketa. Kuadrilla bakoitzak, gainera, galtza eta kamiseta propioak ditu. Kuadrillarik gabe ezingo litzateke jaien egitaraua egin.

Eskaintza zabala prestatu duzue, adin guztietako nahiak uztartuko dituena.

Aurten gazteena ez den kontzertu handi bat ekarri nahi genuen, eta Los Inhumanos taldearekin harremanetan jarri gara. Adineko jendea ere etortzera gonbidatu nahi dugu, ez bakarrik gazteak. Horrez gain, gazte eguna eta txiki eguna ditugu beste urteetan bezala. Finean, adin guztietarako egunak.

Zer nabarmenduko zenuke aurtengo egitarautik?

Los Inhumanos nabarmenduko nuke bereziki. Ez dira inoiz inguru honetan izan, eta jendea erakar dezakeen taldea dela uste dut, jende askok ezagutzen duena. Pilota partidak ere aipagarriak dira; duela gutxi erretiratu diren inguruko pilotarien pilota partidak izango dira. Eta aurten Julen Axpe ere etorriko da. Horiek dira berrikuntzak, aurreko urteetako esentzia galdu gabe.

Zelakoa da jendearen parte-hartzea jaietan?

Jendea inplikatu egiten da jaietan. Otorduak daudenean, jendeak mahaiak eta aulkiak jartzen ditu, bakoitzak berea jasotzen du... Jaiak herrikoiak dira, eta jendea oso parte-hartzailea da. Jenderik gabe ezin da jairik egin. Lan asko du jai batzordeak eta jendea beti laguntzeko prest dago.

Abuztuak

30 Ostirala

Pretxupinazoa
20:15 Espazio morea
20:30 Zurrakapotea
21:00 Txupinazoa
21:30 Kalejira
23:30 Mugi Pandero
01:30 DJ Gaua
02:00 Kulero lasterketa

31 Larunbata

12:00 Pintxo txapelketa
14:30 Bazkari herrikoia
16:00 Motorcross-a
16:00 Bola Txapelketa
17:00 Igel-toka Txapelketa
20:00 Bonbona Lasterketa
22:00 Play-back Txapelketa
00:00 DJ Raspu

Irailak

01 Igandea

11:30 Enkantea
13:00 Tabernaz taberna
18:00 Kronoeskalada iturritik iturrira
19:30 Otegiren erromeria
21:00 Berakatz zopa dastatzea

02 Astelehena

16:00 Tokiko Mus Txapelketa
16:00 Multiabentura

03 Asteartea
Txiki eguna

11:30 Puzgarriak
14:00 Makarroi jana
17:00 Apar festa
19:00 Haurrentzako ikuskizuna
20:00 Txokolate jana

04 Asteazkena
Nagusi eguna

13:30 Nagusientzako luntxa

Artziniegako jaiak

14:30	Nagusien bazkaria
16:00	Bingoa
17:00	Amigos del Swing taldearen kontzertua

05 Osteguna
Gazte eguna

10:00	Mendi martxa
13:00	Musika girotzea
14:00	Makarroi jana Goiko plazan
17:00	Joko herrikoiak
20:00	Musika

06 Ostirala

18:00	Frontenis finala
19:00	Artzikirol finala
20:00	Nesken partidua
21:00	Kuadrillen afaria
23:30	Los Inhumanos taldearen kontzertua
01:30	Altxa Porrue taldearen kontzertua

07 Larunbata

12:00	Trikitixa emanaldia
14:00	Bazkaria Arteko landan
16:00	Joko herrikoiak Arteko landan
19:00	El Despiste fanfarria Arteko landatik jaisten
21:30	Pilota Txapelketa Toñin Luengas frontoian
22:30	Julen Axperen emanaldia
00:00	Kontzertua
01:30	DJa

08 Igandea

09:00	Tortilla eta Marmitako Txapelketa
11:00	Txirrindulari lasterketa
12:00	Big Band Berri
17:00	Herri kirol erakustaldia
18:00	Herri kirol desafioa
19:00	Argazki eta film labur proiekzioa
20:00	Odoloste dastatzea
20:30	Etxebarria aita-seme trikitilarien emanaldia
21:30	Jaien amaiera traka

Artziniega Museoak piztuko du suziria, 40. urteurrenaren testuinguruan

Artziniega Museoa kudeatzen duen Artea Etnografia Elkartea izango da aurtengo jaien pregoilaria eta, historia luzea badute ere, pregoi laburra egingo dutela zin egin dute.

Museoko historian parte hartu duten hainbat kide: Benjamin Respaldiza, Paki Ofizialdegi, Jose Luis Zurbitu, Teresa Lafragua eta Imanol Aretxabala. **Aiaraldea.eus**

Kultura proiektu batek 40 urte betetzen dituenean, pareko ospakizunak merezi ditu. Hori egiten ari da aurten Artziniega Museoa, zeinak hamaika ekintza berezi prestatu dituen lau hamarkadeko efemeridea goraipatzeko. Hala ere, koroaren azken harri bitxia falta zitzaion eta Artziniegako Jai Batzordeak oparitu dio, hiribilduko jaietako pregoilariak izango baitira Artea Etnografia Museoko kideak.

Lehenik eta behin, taldeko kideek aurreratu dute pregoi laburra irakurriko dutela eta gero gogoratu nahi izan dute betetako ibilbidea ezinezkoa izango litzatekela boluntarioek zein bazkideek egindako ekarpenik gabe. Horri esker heldu da proiektua egun duen mailara eta herriaren kultura jardueren ardatza izatera.

Ezina ekinez egina

Edonola ere, egungo egoerara hel-

tzeko bidea luzea eta bihurgunez beterikoa izan da, inurri lan hutsa. Dena 1980ko hamarkadaren hasieran abiatu zuen Benjamin Respaldiza apaizak. Ikusita Artziniega sekulako eraldaketa unean sartuta zegoela, esku hartzea erabaki zuen. Hain zuzen, landa eremura lotutako gizartea izatetik izaera industriala garatzera igarotzen ari zen herria eta bidean ondare handia galtzeko arriskuan zegoela sumatu zuen.

Hori ekiditeko, hainbat lanabes eta tresna biltzeari ekin zion, gazte talde baten laguntzaz. Hasieran herritarrek eurek ez zuten oso ondo ulertzen egitasmoaren xedea, baina laster onartu eta aitortuko zuten. Guardia Zibilaren susmoa ere piztu zuen jende hori guztia ikusteak objektuak biltzen santutegian eta behin baino gehiagota bisitatu zituzten.

Biltegitik museora

Ondare historiko eta etnografikoa gordetzea, dena den, lehen fase nekeza baino ez zen. Zaila izan zen, baina erronka konplikatuagoa zen pieza horiek guztiak erakusteko tokiarekin eta ereduarekin asmatzea, biltegi hutsa baino gehiago izateko.

Aukera egun dagoen eraikinean sortu zen, baina erditzea ez zen erraza izan. Hain zuzen, gaur museoa hartzen duen etxea nahiko txikituta zegoen 1985an. XVIII. mendetik 1970eko hamarkadara arte kongregazio erlijioso baten egoitza izan zen eta gero eskola publikoa. Hala ere, 1980ko hamarkadan hutsik geratu

SUSTRAIAK
-FISIOTERAPIA-
DIZIPLINARTEKO ZENTROA
Fisioterapia eta
errehabilitazio aktiboa
Podologia · Nutrizioa
Ondo pasa jaietan!
Jauregi urbanizazioa 1, behea, ARTZINIEGA
658 60 88 41

zen eta modu batean edo bestean gero eta okerrago zegoen.

Udalak berreskuratzea zuen buruan eta asmo horrek Artea Etnografia Elkartearen helburuekin bat egin zuen. Museoa han ireki behar zen, baina horretarako obra handiak eta bide burokratiko izugarri luzea ibili beharra zegoen.

Ibilbide luzea egin duten arren, taldeko kideek aurreratu dute pregoi laburra irakurriko dutela, eta eskerrak eman dizkiete museoaren 40 urteko ibilbidean modu boluntarioan lagundu duten herritar guztiei

Herri oratzearen eta museoaren alde 2019an eginiko mobilizazioetako baten irudiak. **Aiaraldea.eus**

Oztopoak oztopo, 2004an ireki zituen ateak Artziniega Museoak eta geroztik hamaika erakusketa, jarduera, hitzaldi, bisita gidatu eta tailer egin dituzte bertan. Une kritikoak bizi izan ditu eta, adibidez, 2018an etenaldia egin behar izan zuen behartuta, finantzazioa ez baitzen nahikoa.

Gertakariak bere alde txarra eta ona izan zuen. Okerrena izan zen ziurgabetasuna, ez baitzegoen argi proiektua berpizteko baliabideak egongo ziren. Alderdi ona izan zen herriaren mobilizazioa eta babesa, eta horri esker Arabako Foru Aldundiak eta Udalak akordioa sinatu zuten museoaren biziraupena bermatzeko.

Inoiz baino osasuntsuago

40 urte betetzeak kalterik ez diola egin erakusten dute aurten antolatutako jarduerek. Zerrenda luzea osatzen dute eta une benetan bereziak ekarri dituzte. Esaterako, ohiko udako solstizioaren ospakizuna, zeina Korrontziren kontzertuarekin alaitu zuten, besteak beste.

Hurrengo geltokia argi dago, Artziniegako jaietako txupinazoa. Han egongo dira Artea Etnografia Elkarteko kideak eta han espero dituzte herritarrak eurekin.

SUPER DARY

Benetako zaporeak eta gertutasuna.

Zure asebetetzea gure pasioa da.

Gora Artziniegako jaiak!

Barrenkale kalea 6, ARTZINIEGA
611 794 666
supermercadodary@gmail.com

JOSEBA RESPALDIZA

Ardo eta edari banaketa

Estankoa-Loteriak

Barrenkale kalea, ARTZINIEGA · 945 39 60 44

1929 urtetik
LA ENCINA
RESTAURANTE

Astelehenetik ostiralera
eguneko menuak

Jaietan ere, egin gurekin topa!

Garay hiribidea, 4 Artziniega (Araba)
ERRESERBATZEAK: 945 39 60 40 / 945 39 62 55

Eguzkilore

945 10 52 43
Garai hiribidea 4 ARTZINIEGA

ZELAIKO ETXE landetxea
Ozeka (Aiara)

Josu eta Bego:
667 402 245 · 695 784 347
zelaikoetxe@hotmail.com

INSTALACIONES
RAGA IBARRONDO

ITURGINTZA BEROKUNTZA GASA AIRE GIROTUA

Denda 945 30 37 35
Jesús 636 42 80 15
Juanmi 620 63 81 38
Susana 636 77 74 55

José Madinabeitia, 1
Amurrio
ragaibarrondo@gmail.com
www.ragaibarrondo.com

OBHGASTROBAR
ITURRIALDE

Etxegoien kalea, 14,
Amurrio (Araba), 01470
Tel. 667 91 90 15
945 06 45 04

Askotariko pintxoak, gosariak etab.

Paelletan espezializatutako sukalde oparoa:
- Abakanduna
- Itsaskiduna
- Mistoa
- Landakoa
- Beltza
- Barazkiduna

Garabilla Landetxea
www.casaruralgarabilla.com

Llanteno - Aiara
Artziniegatik 1,5 km-ra
616 13 84 49
@casaruralgarabilla

aeme
artziniegako enpresa eta merkataritza elkartea
Jai Zoriontsuak!

PIRINEUM
TABERNA

Musika zuzenean · Guinnes kañeroa
Munduko garagardoak eta ardoak
Barrenkale 29, ARTZINIEGA

Antzinako Azokaren XXV. edizioa, irailaren 14an

Duela bi urte abiatutako bide beretik jarraituko du aurten azokak eta Artziniegako Udalak jadanik zabaldu du bertan parte hartzeko gonbita eskualdeko herritar ororen artean.

Ikuskizun ugari egon ohi da azokako egitarauan. **Josu Zaldibar**

Artziniegak Antzinako Azokaren XXV. edizioa ospatuko du irailaren 14an, larunbata. 1998an hasi ziren egitasmoa antolatzen, zehazki, Erdi Aroko Alde Zaharra monumentu-multzoa izendatu zuten urtean.

Geroztik, pandemiak iraun zuen tartea kenduta, urtero prestatu dute jaia eta aurten ere ekingo diote horri. Edonola ere, azokak bilakaera izan du. Hasieran Artea Etnografia Elkarteak hartzen zuen bere gain. "Euskadiko lehena, Euskal Herriko bigarrena", aldarrikatu du Udalak.

Hala ere, urteen poderioz, hasierako bultzadaren indarra murrizten joan zen eta nolabaiteko krisian sartu zen egitasmoa. Hori bideratzeko, 2022an hausnarketa prozesua abiatu zuten herrian eta elkarteen, ostalarien eta ordezkari politikoen artean erabaki zuten, adibidez, enpresa baten laguntza kontratatzea kale animazioa eta beste zenbait gauzen ardura hartzeko.

Azken edizioetan eman dioten indar gehigarri hori nabaritu da antzezleetan, edota Inkisizioak erabilitako tortura tresnen erakusketan. Dena den, ez da ahaztu behar azoka honen izaera eta sekretua dela artziniegarrek eurek girotzen dutela Alde Zaharra. Egia da kanpotik saltzaileak edota eskaintza anitza duten lagunak bertaratzen direla: sutegi bat nola baliatzen zen erakusten dutenak edota ezpatak eta Erdi Aroko armak eskura jartzen dituztenak.

Hala ere, jaia gehien girotzen dutenak herritarrak dira. Askok mozorroa janzten dute. Batzuenak garaiko arropa dotore eta koloretsua da, beste batzuek legenarduen gisa prestatzen dute bere burua, edo apaiza izango balira legez. Ez dira falta euren eskulanak edo artelanak ateratzen dituztenak kalera eta Artea Etnografia Elkarteak, adibidez, aukera profitatzen du Alde Zaharrean bertan dagoen sutegiaren ateak irekitzeko, zaindutako ondare historikoa balioan jartzeko.

Halaber, herriko margolariek udaletxe zaharreko arkupeetan margotzen dituzte artziniegarren aurpegiak, apurka-apurka handitzen doan margolana osatuz urtez urte..

LAUDIO

Ikasturte osoa

660€

Idiomas

FUNDACIÓN Vital FUNDAZIOA

50 urtetik gorako esperientzia
Cambridgeko azterketak prestatzeko zentroa

fundacionidiomas.eus

Mundua, bagoaz.

BANOOOA GO!

Irentsi mundua LABORAL Kutxaren GO! txartelarekin.

EZ du komisiorik Estatu osoko 10.000 kutxazain baino gehiagotan*.

EZ du komisiorik, LABORAL Kutxaren aldetik, atzerriko kutxazainetan**.

EZ du komisiorik dibisa aldatzeagatik.

EZ DU KOMISIORIK, EZ HEMEN*, EZ ATZERRIAN**

*Zure probintzian dirua komisiorik gabe ateratzeko, LABORAL Kutxaren kutxazain-sarea duzu; zure probintziatik kanpo, berriz, entitate hauetako kutxazainak erabil ditzakezu: Caja Rural, Cajamar, Bankinter, Caja de Ingenieros, Cashzone, Deutsche Bank, Arquia Banca, Euro Automatic Cash eta Euronet WorldWide.
**LABORAL Kutxak ez du komisiorik kobratuko atzerriko kutxazainetan. Kutxazainaren jabeak komisio bat ezar lezake kutxazaina erabiltzeagatik (LABORAL Kutxak ez).

Abantaila horietaz baliatzeko, LABORAL Kutxaren bezero izan behar duzu, 14 eta 29 urte bitartekoa (biak barne). Horrez gain, 18 urtetik aurrera nahitaezkoa izango da entitate honetan Bizum aktibatuta izatea.

LABORAL kutxa